berria

Asteartea
Apirilaren 13a
2010. VIII. urtea
2.114. zenbakia
1,10€
www.berria.info




Joan Mari Torrealdai, Txema Auzmendi, Iñaki Uria, Martxelo Otamendi eta Xabier Oleaga, atzo, Martin Ugalde kultur parkera sartzen. GARI BERASALUZE

'Egunkaria auziko' epaia → libre!

# Bidegabekeria agerian utzi du absoluzioak

Auzitegi Nazionalak errugabetzat jo ditu Torrealdai, Uria, Auzmendi, Otamendi eta Oleaga, ETArekin ez zutela harremanik izan eta delituirik ez dutela egin argudiatuta

Epaiak dio euskarazko kazeta ixteko aski arrazoi ez zegoela eta itxierak Konstituzioaren babesik ez zuela. Aho batez hartu du erabakia epaimahaiak GEHIGARRI BEREZIA

«Atzekoz aurrera egin dute indukzio prozesua. Lehenbizi, erabaki da zein den ondorioa [...]; gero seinale, zantzu eta aztarna bila hasi dira; eta, azkenik, arbuiatu egin da ondorioarekin bat ez datorren ezein esplikazio». Espainiako Auzitegi Nazionalaren hitzak dira, *Egunkaria auziaren* epaian jasotakoak. Bost epaituek ETArekin «inolako harremanik» ez zutela dio, delituirik ez dutela egin, eta errugabetzat jo ditu. Gustura hartu zuten albistea atzo bostek. Epaituek ez ezik, familiakoek eta *Egunkaria*-ko langile ohiek. Baina zuhur ere bai, «hau amaieraren hasiera delako». Dignidad y Justiciak eta AVTk esan dute helegitea jartzea «aztertzen» ari direla.

## Sententziak «poza eta lasaitasuna» eman die epaituei

## Iritziak

**Joxe Azurmendi**
Pozaren eta amorruaren eguna
**Laura Mintegi**
'Egunkaria'-ren irakaspenak
**Joan Mari Larrarte**
Aurrera!
**Pello Urzelai**
Auzi bidegabea

## Alderdiek ardurak eta kalte-ordainak eskatu dituzte

GAUR 48 ORRIALDE
HARIAN 2 · IRITZIA 4 · EUSKAL HERRIA 8 · EKONOMIA 17 · MUNDUA 20 · KIROLA 25 · AGENDA 30 · PLAZA 38

# Harian ›

**Bazterketaren aurkako laguntzak** → Jaurlaritzaren neurri berriak

## Diru Sarrerak Bermatzeko Legea

2008ko abenduan onartu zuen Eusko Jaurlaritzak Diru Sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Legea. Horren ondorioz, Diru Sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistema osatu zen. Hona hemen sistemaren barruan dauden laguntzetako batzuk:

▪ **Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta.** Bizitzeko oinarrizko gastuak zein gizarteratzeko edo lanerako gastuak estaltzea du helburu. Bi mota egongo dira: gizarteratzeko eta babeserako oinarrizko errenta lanaren bidezko diru sarrerarik ez dutenei emango diete; diru sarrera hoirek izanda ere baliabide nahikorik ez dutenei, berriz, laneko diru sarreren errenta osagarria emango diete. Bi urtero, laguntza eman zeneko baldintzek bere horretan jarraitzen duten aztertuko da, errenta ematen jarraitu ala ez erabakitzeko.

▪ **Etxebizitza sari osagarria.** Diru sarrerak bermatzeko errenta jasotzen dutenentzako osagarria izango da, etxebizitza gastuei aurre egitera bideratua; errenta jasotzeari uztean laguntza jasotzeari ere utziko diote. Legeak eskubide subjektibo bihurtu du saria.

▪ **Pentsioen errenta osagarria.** Kontributizio pentsioak zein kontributiziokoak ez direnak jasotzen dituztenen diru sarrerak osatuko ditu.

# Gizarte laguntzen inbutua, estutzen

## Bazterketaren aurkako laguntzak jasotzeko baldintzak zorroztea egotzi diote Eusko Jaurlaritzari hainbat gizarte eragilek

## Etxebizitza bakoitzean gehienez ere bi laguntzako muga ezartzea kritikatu dute

**Maite Asensio** Bilbo

Krisi ekonomikoarekin batera, gora egin dute familien zein norbanakoen zorpetzeak, langabeziak, hipotekak bertan behera uzteko eskaerek, pobrezia egoeran izateko arriskuan daudenen kopuruak... Eta, ondorioz, gizarte laguntza eskaerek ere bai. Abagune horretan ari da Eusko Jaurlaritza Diru Sarrerak Bermatzeko Legea garatzeko araudiak lantzen, baina krisi garaiko beharrizanei erantzun ordez gizarte politiketan murrizketak egitea leporatu diote Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako 30 gizarte eragile inguruk. Laguntza sozialak emateko baldintzak zein horien hartzaileen gaineko kontrola zorroztuko ditu Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietarako Sailak, eta, ondorioz, «bazterketa soziala areagotuko» dela iragarri dute zenbait sindikatuk, pobrezia eta bazterketaren aurkako taldek, etorkinen eskubideen aldeko elkartek eta talde feministek.

Bi dekreturen harira sortu da eragileon ezinegona: diru sarrerak bermatzeko errenta arautzeko dekretua —uda baino lehen onartzea espero du Jaurlaritzak— eta etxebizitza sari osagarria arautzeko dekretua —iragan urtarrilean onartutakoa—. Antzinako oinarrizko errentaren parekoa izango da diru sarrerak bermatzeko laguntza; bizitzeko oinarrizko gastuei eta gizarteratzeko zein laneratzeko prozesuen gastuei aurre egiteko baliabiderik ez dutenei emango zaie. Era berean, errenta hori jasotzen dutenek etxebizitza prestazio osagarria jaso ahal izango dute. Etxebizitza gastuei aurre egiteko diru laguntza hori Gizarte Larrialdietarako Laguntzen partidatik atera zuen Jaurlaritzak lege berriarekin batera, aurrekontuan mugarik izan ez zezan; hala, laguntza hori eskubide bihurtu da.

**Aurreko Jaurlaritzaren ildo bera jarraitu dute sozialistek: laguntzak enpleguarekin lotu**

**Errenta jasotzen dutenek ezin izango dute lan baimenik edo murrizketarik eskatu**

Araudion bidez, bergizarteratzeko laguntzak banatzean Araba, Bizkai eta Gipuzkoako aldundiek zeuzkaten irizpide ezberdinak ezabatu eta laguntzok emateko sistema bateratu nahi du Jaurlaritzak. Eragileen ustez, aurrerapausorik badago dekretuotan, baina balorazio orokorra ez da positiboa. «Etxebizitza saria eskubide bihurtu izana oso ona da, baina dekretuetako letra txikia irakurrita, hori jasotzeko baldintzak zorrozten dira. Inbutua estutzen da, eta, beraz, laguntzak murrizten, hain zuzen, gizarte babeserako sistemaren oinarriak sendotzea beharrezkoen den unean», azaldu du bazterketaren aurkako Berri Otxoak taldeko kide Juan Carlos Becerrak.

### Bi laguntza gehienez

Etxebizitza bakoitzean gehienez ere bi diru laguntza jasotzeko mugak eragin ditu eragileen gaitzespen irmoena. Diru sarrerak bermatzeko errentarekin zein etxebizitza sari osagarriarekin gertatuko da: etxe bakoitzeko laguntza bakarra emango da bizikidetza unitatea osatzen dutenen artean ahaidetasun loturarik badago, eta gehienez ere bi laguntza emango dira halako harremanik ez dagoenean. Neurri horrek etxebizitza konpartitzen duten gazteei, etorkinei eta banatu diren pertsonei kalte egingo diela salatu dute.

Izan ere, Gemma Zabaleta sailburuak azaldu izan duenez, «pertsona asko pilatzen dituzten etxeak» desagerrarazteko helburua du neurriak. Bizkaiko SOS Arrazakeriak irmoki gaitzesti du hori: «Etorkinak etxeetan metatzea eta erroldatze faltsuak saihesteko sortua delakoan aurkeztu digute araudia; iruditeria kolektiboan immigrazioari lotutako bi kontzeptuak, alegia. Datu objektiboetan oinarritutako azterketa egin beharrean, euskal herritar berri hauek estigmatizatzen dituzten irudiak indartzen ditu gobernuak. Argudio horren zentzugabekeria agerian dago, oinarrizko errenta jasotzerik ez duenak jende gehiagorekin hartu beharko baitu pisua».

Era berean, zalantzan dago zein ondasun hartuko den kontuan laguntzak ematerakoan. Diru sarrerak bermatzeko errenta arautzeko dekretuaren zirriboroak dionez, ohiko etxebizitzaz gain, jabetza konpartituan edo usufruktuan edukitako etxeak ondasun gisara zenbatuko dira. «Jabetzaren balioa kontuan hartuko da, baina horrek ez du laguntza jaso ahal izatea saihestuko», azaldu du Jaurlaritzak. Aldiz, etxebizitza sari osagarriari buruzko dekretuak dio halakorik daukatenek edo babes ofizialeko etxerik dutenek ezingo dutela laguntza hori jaso.

### Enpleguarekin lotuta

Gizarte laguntzak arautzean aurreko Jaurlaritzaren ildo bera jarraitu dute sozialistek: laguntzak enpleguarekin lotu. Hala, diru sarrerak bermatzeko errenta jasotzen dutenek Gizarteratzeko Ituna deiturikoa sinatu beharko dute: «lanerako prest» egon beharko dute laguntzaren hartzaileak zein bere bizikidetza unitatea osatzen dutenek, eta ezin izango diote «enplegu egoki bati uko» egin. Eginbehar horietatik kanpo geratuko dira lan egin ezin dutenak, hala nola pentsiodunak, erabateko ezintasuna duten pertsonak eta ikasten ari diren 23 urtetik beherako gazteak. Diru sarrerak bermatzeko errenten %30 eta %40 artean jasotzen dituzte talde horiek, Jaurlaritzaren iazko datuen arabera.

Halaber, lanaren bidezko diru sarrerarik eduki eta errenta jasotzen dutenek ezin izango dute lan baimenik edota lanaldi murrizketarik eskatu, «ezinbesteko arrazoiak» argudiatu ezean. Eragileek salatu dute baldintza horrek lan esparrua eta bizitza pertsona-




Laguntzen murrizketa salatzeko pankarta baten atzean jendea, iragan

8» Segikoak izatea egotzita, sei urteko kartzela zigorra ezarri die Gorenak lau gazteri

20» Justizia eta Barne eskumenak berreskuratu ditu Stormontek, 1972tik lehen aldiz

## Bazterketaren aurkako laguntzak → Jaurlaritzaren neurri berriak

### «Dolua», gizarte eskubideak murrizten ari direlako

Gizarte eskubideen murrizketengatik «dolua» adieraziko dute gaur Bizkaiko zenbait gizarte eragilek. Eusko Jaurlaritzak Bilbon duen egoitzaren aurrean elkartuko dira, 10:30ean. Beltzez jantzita, elkartasuna agertuko diete langabeei eta krisiak zein laguntzen murrizketak kaltetutakoei.

### %25

▪ **Caritasi laguntza eskatu ziotenen kopurua, gora.** 2009an, 25.000 lagunek eskatu zuten laguntza Gipuzkoako Caritasen, aurreko urtean baino 5.000 gehiagok, hain zuzen. Hartara, elkarteak adierazi du %23 eta %25 artean egin zutela gora laguntza eskaerek.

### Bazterketaren aurkako taldeak, Legebiltzarrean

Gizarte bazterketaren aurkako plataformen ordezkariak Eusko Legebiltzarrean izango dira gaur. EBko legebiltzarkide Mikel Aranak eskatu du haien agerraldia, Diru Sarrerak Bermatzeko Legea garatze aldera. Eusko Jaurlaritzak landutako bi dekretuek gizarte laguntzetan izango dituzten ondorioak azalduko dituzte.

### 48.000

▪ **EAEn laguntzarik jasotzen ez dutenak.** Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan 138.125 pertsona zeuden langabezian martxo hasieran. Bazterketaren aurkako taldeek emandako datuen arabera, langabe horietako 48.000 inguruk ez dute laguntzarik jasotzen.

Gizarte laguntzak jasotzen dituztenen inguruko aurreiritziak ezabatu beharraz mintzatu dira eragileak. Krisiarekin batera, gainera, are anitzagoak dira laguntza hartzaileen bizimoduak eta egoerak.

# Uste baino hurbilago dagoen errealitatea

**M. Asensio** Bilbo-Barakaldo

Estibalitz Vivancok 37 urte ditu. Bilbokoa da, aktorea, Getxoko Antzerki Eskolan (Bizkaia) lau urtez trebatua. Sei urte daramatza antzinako oinarrizko errenta zein egungo diru sarrerak bermatzeko errenta jasotzen. «Gure lanbidean ohikoa da: zailtasun asko ditugu, enplegua ez delako oso egonkorra. Lan asko egiten dugu, baina ez da ordaindua beti». Vivancoren adibidea argigarria da, gizarte laguntzak jasotzen dituztenen perfila anitza dela adierazten baitu: adin, lanbide eta jatorri ugariko pertsonek dituzte zailtasunak oinarrizko gastuei aurre egiteko. Halere, esparru honetan ere pobreziaren feminizazioa antzematen da: gizarte eragileen arabera, laguntza hartzaileen %72 andreak dira.

Laguntza sozialak etorkinekin edota muturreko bazterketa egoeran daudenekin lotzen direla salatu izan dute gizarte eragileek; talde horiek «arrotzak» dira askorentzat, eta horrek laguntza hartzaileen inguruko aurreiritziak elikatzen ditu. «Baina guk ez dugu lan merkatua asmatu», dio Berri Otxoak taldeko Juan Carlos Becerrak. Gizarte laguntzen hartzaileen errealitatea oso hurbilekoa dela azaldu du: «Enpleguak prekarioak eta ezegonkorrak badira, zabor kontratuak ditugu, oso soldata baxuekin; ondorioz, askok eskatzen dituzte gizarte laguntzak. Baina egoera horiek isilatu ordez, pikareskaren argudioa erabiltzen dute askok laguntzen hartzaileen aurka egiteko».

Becerrak berak diru sarrerak bermatzeko errenta jasotzen du. Jaurlaritzaren araudi berriak kalte egingo diola dio, etxebizitza bakoitzeko laguntza hartzaile kopurua bira mugatu baitu. «Hiru lagun bizi gara etxean; bik errenta jasotzen dugu, eta hirugarrenak eskaera egin du, baina ezingo du jaso. Hortaz, alde egin beharko du, beste nonbaiten erroldatu eta errenta eskatu ahal izateko. Tartean, etxeko gastuak biren artean banatuko ditugu; horrek egoera prekarioagoan utziko gaitu».

Gainera, Becerrak dio antzinako bizikidetza ereduak berriro ikusten hasi direla, esaterako, Barakaldon (Bizkaia). «Krisiaren ondorioz, kanpora joandako jende asko itzuli da, gurasoenera batez ere». Herriko bizilagun asko egoera «dramatikoan» daudela erantsi du: «Laguntzak heldu bitartean, aurreztutako diru apurraren eta senideen laguntzaren bidez egiten dute aurrera».

> **“**
> Aktoreen artean ohikoa da errenta jasotzea: lan asko egiten dugu, baina ez da ordaindua beti»
>
> «Gustuko zerbaitetan lanean banabil, trukean diru gutxi jaso arren, hori da nire proiektua»
> **ESTIBALITZ VIVANCO**
> Gizarte laguntzen hartzailea
>
> «Krisiaren ondorioz, kanpora joandako jende asko itzuli da, gurasoenera batez ere»
> **JUAN CARLOS BECERRA**
> Gizarte laguntzen hartzailea

Baina zer gertatzen da halakorik ere ez dutenekin? La Posada de los Abrazos elkarteak bazterketa egoeran dauden dozenaka lagun hartzen ditu Bilbon dauzkan etxebizitzetan. Gehienak emakumeak, batzuk etorkinak. Izenik eman nahi ez duen Nicaraguako emakume bat da bertan babesa aurkitu duenetako bat. Kontabilitatea eta Zuzenbidea ikasi zituen bere jaioterrian, baina duela bi urte Bilbora heldu zenetik, etxeko langile gisara baino ezin izan du jardun. Sektore horretako barneko langile askok bezala, kontraturik gabe eta erroldatu gabe egon da. «Duela lau hilabete, zaintzen nuen andrea zahar egoitza batera eraman zuten, eta kaleratu ninduten. La Posada existituko ez balitz, ez dakit non egongo nintzateke».

Izan ere, erabateko babesgabetasun egoeran geratu zen: etxerik, diru sarrerarik eta sare sozialik gabe. Gainera, urtebeteko erroldatzea eskatzen dute diru sarrerak bermatzeko errenta jaso ahal izateko, beraz, oraindik ezin du eskaerarik egin. La Posadako langile Amparo Pimientok salatu du etorkin asko daudela antzeko egoeran: «Nola bizi behar dute? Nork babesten ditu? Herritar izateko eskubidea dute etorkinek».

Hartara, Estibalitz Vivancok dio gizarte laguntzak «baliatu» behar direla. «Niretzat aukera bat da, ikasteko, adibidez». Krisiaren ondorioz kulturarako diru laguntzak ere murriztu direla eta, zailagoa da proiektu berriei ekitea, aktorearen ustez. Beraz, unibertsitatera sartzeko hautaproba prestatzen ari da. Ildo horretan, ez du ondo ikusten gizarteratzeko itunaren bidez errentaren hartzaileak lan egitera behartzea: «Ikasten ari banaiz, edo oso gustuko dudan zerbaitetan lanean banabil, ordainetan diru gutxi jaso arren, hori da nire proiektua. Beste zerbaitetan lan egiteari uko egingo nioke».




otsailean, Bilbon egindako elkarretaratzean. LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS

la bateratzeko neurrien aurka egiten duela.

Dena den, Juan Carlos Becerra harago joan da, eta filosofia horren ondorioz heda daitezkeen aurreiritziez mintzatu da: «Badirudi langabezia arazo pertsonala dela, langabeak ez direlako trebatzeko edo enplegua topatzeko gai, eta sistemak ez duela zerikusirik. Gizarteratzeko itun horren bidez zein enplegu mota bultzatuko dute? Krisiaren abagunean, zein baldintza dituen merkatuan sartuko gaituzte?». Laguntzak jasotzen dituztenen %35 inguru lanean dabiltzala erantsi du Becerrak. «Arazoa da lan hori prekarioa dela».

Era berean, enplegu motaren eta laguntzetako baten iraupenaren artean kontraesanak ikusten ditu: «Laneko diru sarreren errenta osagarria [diru sarrerak bermatzeko errentaren moldeetako bat] bi urtez jaso ahal izango da gehienez ere, eta salbuespen gisara beste hamabi hilabetez luzatuko da, Lanbideren aldeko txostena izanez gero». Becerraren iritziz, enplegu motaren aurrriak: «Laguntza kobratu gabe baldintza prekarioetan lan egiten jarraitu baino lehen, jendeak nahiago izango du langabeziara joan eta oinarrizko errenta jasotzea. Neurri zentzugabea da, ez duelako ahalbidetzen leku batean lan ibilbidea garatzea; halako bizi proiektuek denbora gehiago eskatzen dute».

# Elkarteen alardeak

Parrandek sasoi berezirik ez badute ere, konturatzerako gainean ditugu udako jaiak. Berandu baino lehen, nire auzoan santakrutzak —batzuentzat santaputzak— hasiko dira, hiru aste barru.

Eta jai mundialak dira, zinez. Ume, gazte zein helduentzat. Egunez eta gauez giroa, aparta. Udalak emandako apurrekin antolatzen dute auzokideek guztia. Meritua badute lagun hauek. Gainera, arrazoi dute ezer egin ez, eta kritikatzen gabiltzanoi egurra banatzen digutenean, baina antolatzaileen artean emakumeei sukaldean sartzen uzten ez dien elkartea egoteak tripako mina ematen du. Nire auzokoak baino jai politagorik ez dut ezagutzen, eta hala ere...

Koadrilakoa duzun eskubide urratzaile hori —zapaltzaile ere dei niezazkioken—, jator, batez ere, kroserako dirua hartzeko orduan. Berdintasun legearekin, udaletik laguntzarik jasotzeko zailtasunak lituzke, baina ez jai batzordearen eskutik.

Emakumeek kide izateko eskubiderik ez dutenez, jaietako egitarautik kanpo egon beharko luke elkarte horrek antolatutako guztiak. Urtean osoan auzokide batzuk izorratzen aritu ondoren santakrutzetan jatortasunaren alardeak egiteko aukerarik ez luke izan behar. Bitartean, santakrutzak ez dira herrikoiak izango.



**Jira**
Xabier Lekuona

# Katyn II

Ostiralean, lanera nindoala Santizpiritu zubia lainoz troxatua miretsiz, Katyneko oihanean lehertu zen poloniar estatu buruak Smolenskera eramaten zituen hegazkina. Lech Kaczynski presidenta, armadako, banku zentraleko arduradunak eta Katynen 1940ko udaberrian sobietarrek masakratu 14.000 hiritarren hogei familia kide zeuden airekoan. Tupolev 154 haren istriputik ez zen nehor salbatu.

Sobietarrek 1990an baizik ez zuten onartu luzaz bigarren mundu gerrako misterio zakar antzera geratu zen sarraskiarekiko beraien erruduntasuna. Stalin, Molotov eta Beria odoltsuek erabaki zuten orduan poloniar antikomunistak eliminatzea, Errusian bertan zurien garbiketa ederki kudeatu ondoan. Ikasleak, politikariak, soldaduak zituen NKVD poliziak etsai. Nazien armadek zituzten lehen gorputzak aurkitu Moskura abiatu zirenean komunismoaren suntsitzera —horretarako utzi baitzuten Hitler boterean sortaldeko aferagile liberalek—.

Nurenbergeko auzian ez zen aipatu Katyneko gertakaria. Frantses komunistek berandu arte sobietarren parte hartzea ukatu zuten. 2007an Andrzej Wajdak *Katyn* filma ondu zuenean agertu ziren kritikak aski dira irakurtzea.

Doluminak gure iturgin poloniarrari.



**Bira**
Itxaro Borda

**Zuzendaria:** Martxelo Otamendi
**Zuzendariordea:** Xabin Makazaga
**Edizio arduraduna:** Lurdes Huizi
**Argitaratzailea:** Euskal Editorea SM
**Publizitatea:** Iragarri SM
**Lege gordailua:** SS-0662/03
**Batzorde parekidea:** 0712I84059

**Egoitza nagusia:** Martin Ugalde kultur parkea. Gudarien Etorbidea, z/g. 20140 Andoain.
**Telefonoa:** (0034) 943-30 40 30
**Faxa:** (0034) 943-30 09 43
**Webgunea:** www.berria.info
**Posta elektronikoa:** berria@berria.info
**Publizitatea:** publi@iragarri.net
**Harpidetza saila:** (0034) 943 - 30 43 45

**Date:** 13/04/2010
**Exemplaire:** 2.114
**Editeur:** Euskal Editorea s.l.
**Directeur de publication:** Martxelo Otamendi
**Comission paritaire:** 0712I84059
**Delegation Labourd:** Lisses 3, 64100-Baiona. Tel.: (0033) 559256220. Fax: (0033) 559254303. E-mail: lapurdi@berria.info

**ORDEZKARITZAK**
**Araba:** Bizenta Mogel, 6. Posta kodea: 01008 Gasteiz. Telefonoa: 945-15 04 52. Erredakzioko faxa: 945-14 83 07. Posta elektronikoa: araba @berria.info.
**Bizkaia:** Uribitarte kalea, 18, 3. C. Posta kodea: 48001 Bilbo. Telefonoa: 94-435 26 00. Erredakzioko faxa: 94-423 49 75. Posta elektronikoa: bizkaia@berria.info.
**Lapurdi:** Lisses, 3. Posta kodea: 64100 Baiona. Telefonoa: 559-25 62 20. Faxa: 559-25 43 03. Posta elektronikoa: lapurdi @berria.info.
**Nafarroa:** Iratxeko Monasterioa, 45, 13. Posta kodea: 31011 Iruñea. Telefonoa: 948-36 66 22. Publizitatea: 948-36 66 23. Posta elektronikoa: nafarroa@berria.info.

berria

# Sekularizazioaren gezur ustela

**Andoni Olariaga**
**Jon Jimenez**
Filosofian lizentziadunak
*www.basque.criticalstew.com*

(Dogmatismoen kontra III)

Historia ofizialaren arabera, sekularizazioa Iraultza Frantsesetik aurrera gertatu zen Estatuaren eta Elizaren banaketaren fenomenoa litzateke. Etimologikoki, sekularizazioa latinezko *saeculare*-tik eratorritakoa da, eta, alde batetik, *mendea* (*saeculum*), eta, bestetik, *mundua* esan nahi du. Sekularra, beraz, mundutarra denari erreferitzen zaio, zerutiarraren kontra. Sekularizazioarekin, Estatuak konfesionala izateari uzten dio edozein tutela erlijiosotik askatzeko, eta orduan laikoa bihurtzen da. Beraz, Estatua erlijiotik askatu denez gero, zientzia, morala, artearen eta giza espresio orokorren sekularizazioa —*munduratzea*, *egúneratzea*— gertatzen dela deduzitu daiteke. Halaxe al da, ordea?

Gizakia askatu egin omen da dogmetatik, horietatik liberatu —omen— zuen Ilustrazioak. Baina badirudi kate berriak ezarri dizkiola, eta horiek gizakia barrenean gatibatu dutela, arrazoimenean, alegia. Fedea, orduan, ez Liburu Santu(et)an, baizik eta arrazoimenean geratu da itsatsia orain. Fede erlijiosotik askatu, baina bere kateetan lotu gaitu dogmatikoki. Beraz, Ilustrazio Frantsesak dogmatismo laikoa ekarri zuen. Bere garaian, Marxek Hegel kritikatu zuen, esanez, gizakia libreki gauzatzen omen zen Hegelen estatu absolutuaren ideiak, ideia absolutu horrek, alegia, beheko diferentzia guztiak ezabatzen zituela (hizkuntza desberdinak, tradizioak,...). Hortaz, gizakia, politikoki eta erlijiosoki, Estatuan alienatu zen Ilustrazio Frantsesaz geroztik, aurretik Jainkoarekin bezala. Herriaren opioa estatu razional-absolutu hori da orduan (aurretik erlijio kristaua izan den bezala), gizakiaren emantzipaziorako oztopo nagusi. Dena den, bere burua arrazional, historiko, eta abar gisa aitortu duenez, bera laikotu dela pentsatzen dugu eta, ondorioz, ez dela fede —berri— batean oinarritu defendatzera helduko dira batzuek. Ordea, fedea orain Arrazoian jarri du, eta Ilustrazioaren *balio*(absolutu)etan.

Dena den, Marxen kritikatik eta mende bat berantago, Nietzschek -XIX. mende bukaeran—, lehen aipatu Hegelen Estatu razional-absolutu hori ere ezbaian jarri zuen, Estatu alemaniarrak —Estatu absolutuaren adibide— aberria, gizartea, morala,... denak sartu baitzituen zaku berean. *Nirekin edo nire kontra*, alegia. Eta, ez al gaude orain egoera berean? Alegia, estatu Espainolak ez al du berdina egin? Berrehun urtetatik hona horixe besterik ez du egin eta! Alegia, Estatua, hiritarrekin, demokratekin, Ilustrazioarekin, arrazionaltasunarekin, kulturaniztasunarekin… eta moral konkretu batekin, bere erlijio instituzional propioarekin batu du. Eta beste aldean, biolentoak, nazionalistak, tradizionalistak, erromantikoak, etnikoak, eta abar zorritsu gehiago jarriz —amoralak, ez-erlijioso-ofizialak, eroak...—.

Espainiar Estatuarekin jarraitzearren, esan beharra dago fenomeno arras arraro baten aurrean gaudela. Ilustratuenetatik ilustratuenatzat dauka bere burua —arrazionalena da bera—, baina *bere morala*, predikatzen duena, erlijio katoliko apostolikoarena da. Hots, arrazoimenaren gaineko fedea baino erlijio katolikoarena berarena dugu. Frankismo garaitik datorren fede kristau horri, ordea, orain morala deitzen zaio. «Kondenatu ezazu», «biolentzia gaizki dago edonondik datorrela», «hiltzea txarra da»... Eta zertan oinarritzen da Estatua bera, (bere) biolentzian ez bada?! Bergaminek frankismoko genozidioa gogoratuz esaten zuenez: *España, la democracia de los gusanos*. Eta «nazio» hori bera, konstituzioaren oinarrietan, erlijiosoki datorkion «*unidad indivisible*» batean oinarritzen da, historian eta gaur egun agertzen ez den fede dogmatiko batean. Eta *unidad* horretatik eratortzen den *demokrazia* bera, gehiengoaren erabilpen dogmatikoa eta autoritarioari esker «eraiki» —hau da, inposatu— izan da. Gehiengoaren inposaketa horri prozedura demokratiko-arrazionala deritzote batzuek, alegia, lehen modernitatetik datorren zilegitasun kuantitatiboarena (gehiengoa=arrazoia), zeinak aurretik faxismoak demokratikoki ere oinarritu dituen. Euskaldunak itotzen gaituen Espainiar kultura eta balioak, erro-errotik Ilustrazio frantseseko ideia handi dogmatikoak dira, beraz, hori bai, progresoaren eta kulturaniztasunaren gezur arranditsuekin mozorrotuta. Eta euskaldun multikultural (Zulaika), hiritar (Atxaga), ilustratu (...) eta abar engainatu eta ez hain engainatuek, Estatu horretan nahi dute euskaldun izaten jarraitu. Nola?!

Arazoa hauxe dugu, hortaz: estatuak ez digu esaten zein den bere moralaren eta bere izaeraren jatorria. Ez digu esan jatorri hori fedea dela. Fede dogmatikoa. Orain, historia, arrazoimena, tradizioa,... eta abar omen dira hura oinarritzen dutenak. Orain, morala sekularra omen da, Ilustrazioko balio sekulartuetatik datorkigulako, ez Elizaren predikuetatik. Baina oinarrian berdin-berdinak dira. Izan ere, astia daukanak hemerotekara joatea dauka 1964an *25 años de paz* nola ospatu zen ikusteko, eta zer esaten zen bakeaz eta bizitzaren sakratutasunaz. Eta zer esaten zuten, baita ere, *Diario Vasco* eta *El Correo español* egunkariek, orain bezala profesional huts eta objektiboak zirenek... garai haietan gaur egun bezalaxe.

Sekularizazioa gezur ustel bat besterik ez da. Eliza sekularizatu bai, baina Estatua Eliza bihurtu zitzaigun. Haren dogmatismo zantarrera lotu gintuen eta lotzen gaitu. Izan ere, orain, dogmatikoki ere, baina itxuraz demokratikoki, espainola da «*la única lengua juntamente oficial y común de todos los ciudadanos españoles*», eta beste hizkuntzak erregionalak dira. Horren arrazoi txit sekularra: «*porque en España hay diversas realidades culturales, pero sólo una de ellas es universalmente oficial en nuestro Estado democrático*». Eta horri ere gaur egun demokrazia eta aniztasuna deitzen zaio. Duela ez asko, faxismo nazional kristau espainola.

Izan ere, garaiak aldatuz doaz, eta euskaldunak ere mentalki kolonizatuz goaz, konturatu gabe. Eta gezurrak, errepikatzearen errepikatzeaz egia bihurtzen dira gure artean. Filosofo handiek ere, Habermas, Rawls, Rorty eta enparauek, ez dute ezbaian jartzen: gure gizartea sekularra da, filosofia ere sekularra, morala bezalaxe. Eta Espainia, europarra, laikoa eta demokratikoa. *No comment*.

Hizpideak

# Absoluzioa

**Koldo Aldabe**
kaldabe@berria.info

Absoluzioa iritsi da. Txema Auzmendi, Xabier Oleaga, Martxelo Otamendi, Joan Mari Torrealdai eta Iñaki Uria errugabetu egin dituzte, *Egunkaria* errugabetu egin dute.

Exijitzen genuen epaia iritsi da; ez genuen besterik onartuko. Ospatu ere egin dugu, atzo hori egitea zilegi genuen eta.

Justiziatik oso urrun gaude, ordea. Justiziak ezin du-eta konpondu atzera bueltarik ez duena. Alferrik esango dute Espainiako justizia *garantista* dela, auzitegi bateko sala batek beste baten gehiegikeriei jipoia eman arren, ez baitu ezer konpontzen. Gainera, zer dela eta *Egunkaria* absolbitu *Egin* zigortu eta gero, ez bada lehena bestea justifikatzeko? Ezin esan, gainera, oraingo epaiak etorkizuneko beste operazioren bat geldiaraziko duen.

Bide luzea geratzen da, bai, justizia benetakoa iristeko. Auzibideak ixtetik hasi beharko lukeena. Eta askok egiten duten galdera: bai, baina *Euskaldunon Egunkaria* zertan da?



**Hitz beste**
Anjel Lertxundi

# Kaltea

A*lea jacta est!*», edo bota dituzte dadoak, hartu dute erabakia, gertatu da denok espero —eta exijitzen— genuen absoluzioa. Baina absoluzioa gerta dadin, akusazio bat egon da, absoluzioaren pozak ezin digu hatz salatariak egindako kaltearen handia ahaztarazi. Epaituei eta haien familiei egindako kaltea; proiektuan lanean ari ziren kazetariei, egunkariari berari, irakurleei, euskarari. Ohorearen kalteak, ekonomikoak, sozialak, politikoak. Osasun fisiko eta psikologikoari eragiten dietenak. Kalte indibidualak, kalte kolektiboak.

Absoluzioaren pozarekin geldituko gara, baina konformatu, ez.

Hemendik aurrera, Julio Zesarrek Rubicon ibaiaren aurrean botatako esaldia entzuten dudan aldiro, latinezko *alea* dioen tokian *kaltea* etorriko zait niri, espresio berri bat geldituko baita nire euskal errepertorioan:

«Kaltea *jacta est*!», edo kaltea egina dago, tamalez, eragindako txikizioak ez baitu atzera bueltarik.

Adur




# Zabortegiak: bai ala bai

**Jose Luis Paulin Seijas**
Medikua eta Oiartzun ke? taldeko kidea

Nazioarteko zientzia-elkarteak dioenez, «materia ez da ez sortzen ez suntsitzen, eraldatu egiten da».

Egungo zabortegien betetzeak eta horrek ekarritako kutsadurak argi utzi du sortzen ditugun hondakinen kudeaketak arazoak dakarzkigula. Horiek horrela, azken urteotan hondakinak birziklatzeko ardura (ez hainbeste berrerabili, murriztu eta konpostatzekoa) hartu dugu, eta zabortegiak jo ditugu zaborren kudeaketak ekarritako gaitz guztien iturritzat.

Horregatik, egun, bi proposamen ditugu mahai gainean:

1.Errausketa: 4 edo 5 edukiontzirekin, «teorian» birziklatzen eta konpostatzen ez den guztia erre egingo da. Baieztapen horren arabera, zabortegirik behar ez denaren irudi faltsua saltzen zaie herritarrei.

2. Atez ateko gaikako bilketa: Aurrez birziklatu eta gainontzekoa errausten duten ereduekin baino birziklatze-maila askoz altuagoak lortzen dira sistema honekin. Aitzitik, sortzen den errefusa apurrak zabortegia behar du; inork entzun nahi ez duen hitz madarikatu hori, alegia.

Azalpen horren ostean, Gipuzkoako errausketaren aurkako mugimendutik argi utzi nahi dugu honakoa: *zero zabor* helburua ez duen hondakinak kudeatzeko edozein sistemak behar du zabortegia. Zabortegi hori toxikoa edo inerteena izango da, baina zabortegia ezinbestekoa da. Gauzak horrela, *zero zabor* helburura iritsi bitartean, inerteen hondakindegi bat badugu, gaitz-erdi. Errausketak eta atez ateko bilketak behar dute zabortegia, aldea ezinbesteko duten zabortegi horren izaeran dago.

1.Errausketa: Plantan sartzen den guztiaren %90a erretzera hel daiteke, baina sobera geratzen den %10ak zabortegi askoren pisua jarriko digu gainean.

—Errekuntzak uzten dituen errautsak bi motatakoak izan daitezke: lehenak hegalariak (toxikoak) eta bigarrenak zepak («teorian», errekuntza egoki batekin, toxikoak izan behar ez luketenak). Errauts hegalariek hondakin arriskutsuentzako zabortegi bat behar dute, edo bestela zementu bihurtu behar dira inerteak izan daitezen (honekin hondakinen bolumena handitzen da). Zepak eraikuntzako material gisa erabil daitezke, baina hainbat lekutan toxikoak direla ohartu dira, eta zalantzan jarri dute material horien erabilgarritasuna eta kalitatea. Horregatik, errauste-planta askotan zepak pilatzen ari dira hondakin arriskutsuen zabortegietara noiz eramateko zain. Zabortegi horiek garestiak eta arriskutsuak dira, baina oraindik bada gehiago…

—Zepak hozteko erabiltzen den ura, zaborra pilatzen den biltegian sortutako lixibiatuak eta filtroak kutsatuta egoten direnez, segurtasunezko zabortegiak behar dituzte.

—Errauste-plantaren tximiniatik ateratzen diren gas eta partikula (orain toxikoak) tonak, zoritxarrez, izugarrizko zabortegia den atmosferara isurtzen dira. Airean geratzen direnek negutegi efektua eragiten dute, eta erortzen direnek beste zabortegi bat sortzen dute; errauste-plantaren 15 kilometroko itzulinguruan sortzen den zabortegia, alegia. Hemen, beste zabortegi txiki batzuek jasotzen dituzte gure hondakinen hondarrak: inguruan ditugun eta gure elikagai diren landare, animalia eta urak, hain zuzen ere. Kateari jarraituz, guk geronek eta gure seme-alabek gure hondakinen zabortegi izaten bukatuko dugu.

2. Atez ateko gaikako bilketa: Birziklatze-mailak %80-90era heltzen dira, eta *zero zabor* helburura begira jarriz gero, %90a gainditzera ere hel daiteke sistema hau. Beraz, %10-20ko errefusa izaten jarraituko dugu eta zabortegia beharrezko izango zaigu. Hondakindegi honetara eramandako hondarrak inerteak dira, ez dira toxikoak, eta, hortaz, ez da zabortegi toxiko eta arriskutsurik behar horiek metatzeko. Errefusategi horietan materia organikorik ez denez egongo, usain txarrak, gasak eta, orokorrean, kutsadura ekidingo ditugu. Gainera, hondakindegi honen kudeaketa toxikoena baino merkeagoa da.

Hona hemen adibide bat. San Markoko zabortegia ireki zenean atez atekoa hedatua eta martxan egon izan balitz, itxi zen garaian bere edukieraren %10-20a soilik egongo zen betea eta hau gutxi balitz, ez luke arazorik emango.

Hala ere, atez ateko bilketak ezinbestekoa du hondakindegi bat, eta non jarriko ote den galdetzen diogu geure buruari. Gure lurralde txikia itotzen ari diren hainbat azpiegiturak behar duten lekuaren zati nimiño bat nahikoa da aipatu diren ezaugarriak izango dituzten errefusategiak egiteko. Eta horretaz ari garela, non jarriko litzateke errauste-plantak ezinbestekoa duen zabortegi toxikoa?

«Materia ez da ez sortzen ez suntsitzen, eraldatu egiten da». Zertan eraldatzen den? Hori gure esku dago.

# Berriz min hau



**Larrepetit**
Castillo Suarez

Minduta sentitu naiz, minik sentitzeko unea ez den arren. Ez delako mina bukatzen askatasuna deitzen duten honetan ere

Ez dut inoiz kartzelaz hitz egin, handik ateratako batekin. Ez dut inoiz hitz egin idatzi ez ditudan gutunez, egin ez ditudan bisitez edo jaso ez ditudan deiez. Hitz egin dugu literaturaz, edertasunaz, bizitzaz, heriotzaz... baina sekula ez dugu min horretaz hitz egin. Kafetegian gaudela, gure elkarrizketa moztu dute, eskua luzatu dizutenek ongietorria adierazteko. Aurrera jarraitu dut, jendea zurekin hitz egiteko geratu denean, solasaldi horiek ahalik eta motzenak izan daitezen. Minduta sentitu naiz, minik sentitzeko unea ez den arren. Ez delako mina bukatzen askatasuna deitzen duten honetan ere.

Autobusean bueltatu naiz etxera eta poltsan gordeta daukadan egunkaria atera dut irakurtzeko. Zutabe txiki bati erreparatu diot. «Peru Aranburu lekeitiarra espetxetik atera da», dio izenburuak. Etxera iritsi naizenean, CDen artean bilatu dut Aranbururen hitzak dituen Berri Txarrak-en kanta: "*Min hau neure-neurea / dudala badakit / baina zauria ez dut / topatzen inundik; / benetan al datorkit / poza erraietatik / ala ez ete nabil / neu bere atzetik? / Honezkero ikasia / nago gerizpean / itzalari azalean / eusten bestean / aldiz uzkurtu eta / juxtu saihespean / bihotza sumatzen dut / eguzki eskean / Gudu zelai bihurtzen / denean norbera / irabaztea zer da / eta zer galera? / Nik ez dut nahi hemendik / onik atera / baizik eta bizirik sentitzea bera/ Berriz min hau / luze dirau*». Kanta bukatu eta berriz hasteko eman diot. Berriz min hau.

## Hemeroteka

### Mehatxuen bide ankerra
Floren Aoiz › Gara

Hamar urteko kartzela zigorra egitasmo politiko bat defendatzeagatik. Hauxe da espainiar erresumaren Fiskaltzak, hau da, diktaduraren ondorengoen estatuak, nire kontra eskatzen duena. Eta antzeko zigorrak ezarri nahi dizkiete beste lagun askori, hainbat auzitan egin duten moduan[...].

2002koa da gure kontrako sumarioa (36/02); beraz, oraingoan berretsi duten mehatxua aspaldikoa da, tartean hainbat lagun kartzelan luze ibili direlarik. Nabarmena da badutela presioa areagotzeko asmoa, eta batzuek, disimulurik gabe, hurrengo udal eta foru hauteskundeekin lotu dute Fiskaltzaren eskaera[...].

Badirudi ez dutela deus ere ikasi hondarreko 50 urteotan. Zinez uste dute ezker abertzalearen helburua hainbat poltrona lortzea dela? [...] Independentziaren hodeiertza begien aurrean dugula, nola murgildu epe laburreko miopian? Agian hori da afera, ez dutela deus ere ulertu, harrokeria poliziala-ren menpe daudelako, beren miopia politikoa larritzen ari delako, alegia.

Agerikoa da ez direla izan duten estrategiaren bilan sakonik egiteko gai. Izan ere, errepresioak independentistak ugaltzen ditu. Itxikeriak aldaketa desioa areagotzen du. Kriminalizazioak estatua bera ahultzen du, atxikimenduak biltzeko aukerak mugatzen dituelako. Noiz «seduzitu» du orain baino gutxiago espainiar Estatuak? Espainiar nazionalismoa bakarrik dago [...].

Ez, kontua ez dira hurrengo hauteskundeak, independentziaren bidean gaudela baizik. Kontua ez da Alderdien Legea gogortzea, baizik eta neoliberalismoari aurre egiten dioten herrien zerrendako lehen postuetan gaudela euskaldunok, hemen, zorionez, langile mugimendua dugulako.[...].

Eta errepresioak ezin du joera nagusia aldarazi. Egia esan, joera hori indartu eta errotu du. Salneurria ez da makala, alta. [...] Zama ez da arina izan, ezta izanen ere. Ederki dakigu, ederki jakinaraziko digute.

Alferrik ari dira, berriz. Ikasi egin dugulako mehatxuen azpian bizitzen. Jakin badakigulako borrokak bideak irekitzen dituela, lainoak uxatzen dituela, udaberriak ekartzeko ahalmena duela. Gure herriaren oroitzapen kolektiboan idatzi dute, odolez eta malkoz idatzi ere, eta ez dugu sekula ere ahantziko [...].

Finean, gure herria isilarazteko saioak porrot egin du, eta errepresioak ikasgai argia eskaini digu: geure estatua behar dugu!

## Zuzendariari

**BERRIA**k irakurleen eskutitzak plazaratzen ditu. Ez dute 2.500 karaktere —espazioak barne— baino luzeago izan behar, eta **BERRIA**k mozteko eskubidea du. Helbide honetara bidali behar dira, izen-abizenak eta herria adierazita: Berria, Martin Ugalde Kultur Parkea, 20140 Andoain. Eskutitzak Internet bidez bidaltzeko: iritzia@berria.info.

### Jon Mirande

Jon Mirande pertsonaia eztabaidagarria izan da Euskal Herrian. Guraso zuberotarrengandik sortua, Parisen, 1925. urtean, euskaldun berri bikaina, bere buruz bihurtuta, hizkuntza asko ikasi eta menperatzera iritsia, Euskal Herrian baino gehiago kanpoan bizi izan zen. Horregatik eta bereziki neonazien eta antisemiten alde jarri zelakoan, Euskal Herriko bere garaiko idazleengandik eta abertzaleengandik bazterturik aurkitu zen, eta bakardade osoan bizitzen omen zen. Omen diot, Parisen bizi zen Txomin Peillen herrikidearekiko harremanak bazituelako eta andre bat harekin bizitzen zelako. 1972. urtean ukan zuen amaiera gaixtoa ezagutzen dugu Euskal Herrian.

Gure mende berrian gauza asko ezagutzeko Interneten aukera badugu. Gunerik gune joatean Jon Miranderi buruzko artikulura joan nintzen, eta erdarazko testu bat atzeman nuen, zeinean Jon Miranderen asmo nazional sozialistek ETAri oinarrizko ideologia ekarri ziola adierazten baitzen. Guztiz harritu naiz, nik ezagutu nituen garai haietako ETAko kideek Mirande, politikan behintzat, baztertzen zutelako; honetaz gainera, *Anaitasuna* aldizkari ezkertiarreko taldekoekin haserre bizian sartu zen. Artikulu berean, Krutwig eta Mirande pentsalari berdintzat jotzen ditu egileak. Nik, behintzat, bien idazkiak irakurri eta Krutwig bera ezagutu ondoren, asmo desberdinetako pertsonak direla aitortzen dut, eta politikaz Krutwigen asmo askorekin ados nagoela esan dezaket.

Gero, bilaketa gehiago egin nuen sarean artikulu arraro honen egileari buruz; Ernesto Milla Rodriguez du izena, eta haren *curriculum vitaea* oso esanguratsua topatzen dudala esan behar dut: espainiar neonazia; OAS ohiaren aldekoa, frankismoaren nostalgikoa eta, naski, antieuskalduna eta ultrakontserbadorea. Horren aburuz, gero eta irakurle gehiago ba omen dituzte Miranderen idazlanek euskaldun gazteen artean. Jarrera honetan egileak ETAren nazionalismo iraultzailea eta nazismoa parekatu nahi dituela adierazi nahi du. Oroit gaitezen Aznarrek eta Basta Ya mugimenduak tankera honetako alegazioak egin zituztela duela hamabi urte.

Gaur egun Jon Miranderen obrak irakurtzen baldin badira, ez dut uste horien asmo naziengatik irakurtzen direnik. Nik neuk haren olerki eta eleberri batzuk irakurri ditut, eta idazle bikaina izan zela aitortzen dut, haren asmo pronazi eta antisemitak onartzen ez ditudan arren. Hurbiletik ezagutu zuten batzuek «pertsona maitagarria zela» aitortu zidaten. Beharbada nortasun bikoizdun gizon bat zen.

Jon Mirande izan da izan zena, eta orain ezin dugu ezer egin, baina haren gomuta ez dugu baztertu behar, alde txarrak zein alde onak.

Orain bertan txarra dena da neofaxista batek haren asmo nazien erabiltzea eta gezurrak jendeen gogoetan sartzea, Euskal Herriko abertzaletasuna deabrutu eta zikintzeko.

**Jakes Lafitte.** Angelu.

### 'Hatsaren poesia' urdina, poesiaren hats bustia

Maiteminez. Elurpeko maitasunezko hazi honek maitasuna behar du loratzeko, eta, aurten ere, atzerrian, malko zuri batek irrist egin dit masailean behera maite galdu hura oroitzean.

Oroitzen naiz 2001ean atera zela lehen aldikoz, Senpereko *Hatsaren poesia* liburuan, olerki-liburuik gabeko olerkari xume hau. Olerki-lehiaketa zenbaitzuetara arrakastarik gabe aurkeztua nintzen, eta argitaletxe pare batera bidali ere nire olerki-bilduma, erantzunik gabe. Senpereko Hatsa Elkarteak soilik argitaratu zituen nire olerkiak, eta ordutik hona urtero parte hartzen dut liburu kolektibo horretan; esker oneko naiz Auxtin Zamorari, aukera horrengatik, hainbeste pertsona sentibera ezagutzeko aukera emateagatik.

Hamar urte hauetan, hamaika gauza gertatu zait, gauza batzuk politak, beste batzuk ez hain politak. Oraindik ez dut olerki-liburuik argitaratu, baina nire olerki aunitz bertze hizkuntzetara itzuliak daude: gaztelaniaz, frantsesez, ingelesez, alemanez eta txekieraz. Hamar urte hauen erdialdean, gutxi gorabehera, maitemindu nintzen betiko batbatean, eta ohartu gabe laminen eta sorginen lurraldean, udako egun eguzkitsu eta urdin batean, barka maitemintzeagatik, eta maitasuna maitatuari ongia opatzea denez, onena opa diot bihotzak eginik.

2010ean bihotz-begiz gaurko egun urdinak olerki urdin bat ekarri dit, gozoa. Irakurri ondoren, bihotzean gordeko duzun horietakoa. Nekaturik nago sentitzeaz, baina, hala ere, olerkiak idazten ditut tantaka, uholdeka, hitz zaparradaz. Nekaturik nago amesteaz, baina, hala ere, goizero jaikitzen naiz isilik, gozo. Gaur, atzo ez bezala, urdin jaiki naiz biluzik, ene maite urdinarekin egin baitut amets. Txindokiren altzoan, haritzaren babesean, apiril urdin honetan, elkarri eskutik helduriK, malko zuritan, gaurko egun urdinak olerki urdin hau ekarri baitit gozo. Elurpeko lore zuritxikiaren gisa, loratu nahian, malko zuriak erori zaizkio zuhaitzari, urrezko euri hura gogoan.

**Ainara Maia Urrotz.** Brno (Txekia).

## www.berria.info

**'Egunkaria' libre!**
Zain geunden oso aspalditik! Iritsi da, azkenean. Ustezko epaile horiek nork epaituko ditu orain?

Zorionak, Martxelo, Iñaki, Joan Mari, Xabier eta Txema!

**Patxi Lurra.**

**Besarkada bana guztioi!**
Martxelo, Iñaki, Joan Mari, Txema, Xabier eta bide luze honetan sufritu duzuen beste guztiei besarkada handi bana!

**Miren.**

**Albiste on bat, azkenean**
Martxelo, arrazoi guztia duzu: behingoz Euskal Herriak albiste on bat izan du.

Mila esker *Egunkaria* posible egin zenuten guztioi.

**Aintzane.**

# Sei urteko kartzela jarri die Gorenak lau gazteri, Segikoak izateagatik

Auzitegi Nazionalak gazteei ezarritako zigorra berretsi du Gorenak, defentsarako abokatuen helegite guztiak atzera botata

Gorenak dioenez, helburuak bihurtzen ditu delitu berez delitu ez liratekeen ekimenak

**Aitziber Laskibar**

Segi gazte erakundeko kide izatea egotzita, seina urteko espetxe zigorra ezarri die Espainiako Auzitegi Gorenak Garikoitz Mujika, Eneko Aizpuru, Zigor Ruiz eta Asier Tapiari. Akusatuen defentsarako abokatuek aurkeztutako kasazio helegiteak atzera bota, eta Auzitegi Nazionalak jarritako zigorrak berretsi ditu Gorenak. «Erakunde terrorista osatzen duen legez kanpoko elkarteko kide» izatea leporatu die; Segiko kide izanik, ETAko kide izatea.

Jendaurreko agerraldietan parte hartu izana eta egunkarietan iritzi artikuluak idatzi izana baliatu dute auzitegiek gazteei delitu egin izana leporatzeko, eta, Jarrai, Haika edo Segi gazte erakundeetan lan egin dutelakoan ETAkoak izatea egotzita, orain arte Espainiako auzitegiek jarritako zigorrak errepikatu ditu.

Orain zigortu dituzten lagunak 2005. urtean epaitzekoak ziren, *Haika-Segi auzian* epaitutako 33 lagunekin. 24 gazteri bi urte eta erdi eta hiru urte eta erdiko zigorrak jarri zizkien Auzitegi Nazionalak, ETAri laguntza eman izana egotzita. Armarik erabiltzen ez duten erakundeak ezin direla erakunde armatutzat jo argudiatu zuen orduan Auzitegiak. Baina, gerora, zigorrak gogortu egin zituen Gorenak helegiteei erantzuterakoan. Gazte erakundeak ETAren zati zirela eta gazteak ETAko kide zirela esan zuen, eta seina urteko kartzela zigorrak jarri zizkien epaitutako 24ri. Epai hark aurrekaria sortu zuen, eta ondoren Jarrai, Haika edo Segiko kide direlakoan epaitu dituzten guztiei ezarri diete zigor bera.

Akusatuen defentsak aurkeztutako helegite guztiak atzera bota ditu Gorenak, lau gazteen zigorrak berresteko kaleratu berri duen 125 orriko autoan. Abokatuek helegiteetan ohartarazi zutenez, auzitegiek Segiren jardunak eteteko agindu baino lehenagoak dira zigortutako batzuei delitu egin izana egozteko oinarri diren ekimenak. Tapiari ETAko kide izatea egozteko oinarri bakarra, esaterako, 2001. urteko martxoan auzitegiek Haikako hainbat gazte atxilotu eta gazte erakundearen jardunak eteteko agindu ondoren erabakia salatzeko egindako prentsaurrekoan idazki bat irakurri izana da. Segiko kide gisa aritu zen Tapia, epaileen ustez, eta «erasoari erantzuteko» deia egin zuen.

Abokatuek argudiatu zutenez, Segi oraindik ez zegoen legez kanporatuta, eta, beraz, haren izenean aritzeak ezin zuen delitu izan. Izan ere, edozein ekintza delitutzat har dadin, ustezko delitua egin den unean indarrean dagoen legeak espresuki jaso behar du ekintza hori delitu dela. Epaimahaiak zigorra ontzat emateko argudiatu duenez, «batzuetan legearen hizkuntzak abstraktua izan behar du, eta legelariak araua errealitatera egokitu behar du».

Zigortuei egozten zaizkien ekintza zehatz bakarrak izanik euren iritziak jendaurrean emateko agerraldiak egin edo artikuluak idaztea, edo protesta eta bileretan parte hartzea, hori zigortzea eskubide zibil eta politikoak urratzea litzatekeela ere esan zuten abokatuek. Baina Gorenaren ustez, «talde terroristako kide izateko delitua ez da arau hauste zehatzen bidez soilik egiten, berez delitu diren helburuak bilatzean bertan baizik». Bestalde, adierazpen eskubideak mugak dituela dio, eta adierazpen askatasunerako eskubidea «gehiegizkoa» dela delitua «jarrera terroristak laguntzea» denean. Epaileen ustez, jendaurreko agerraldiak egitean, gazteek «ETAren helburuei laguntzen zieten, nolabait».

Gainera, epaileen ustez, ETAren «helburuak lagun ditzaketen ekimenak egiten dituztenak erakunde terroristako kidetzat jo behar dira, kide horiek zuzenean indarkeria ekintzetan parte hartu ez arren». Areago, ekimenen bat «terrorista» den edo ez zehazteko, helburua kontuan hartu behar dela dio: «Terrorismoa ez da beti erakunde armatuarekin lotzen; ekimen horrekin lortu nahi den helburuak zehazten du izaera terrorista». Gazte erakundeek ETAren helburuei mesede egiten diela uste du Gorenak eta, beraz, gazteak ETAko kidetzat jo behar direla.



Gazteak, Auzitegi Nazionalean epaitu zituztenean. SERGIO BARRENECHEA / EFE

## 2.700 euroko isuna, batzokia erasotzea egotzita

Seina urteko kartzela zigorra eskatu zuen hasieran fiskalak Hodei Egaña eta Haritz Lasa donostiarrentzat

**Erredakzioa**

Espainiako Auzitegi Nazionalak 2.700 euroko zigorra jarri die Hodei Egañari eta Haritz Lasari Donostian Jose Maria Sert plazako batzokiari eraso egin izana leporatuta. Zehazki, batzokiaren orman Mertxe Garmendia Donostiako Udalean EAJko zinegotzidenaren aurkako pintaketak egitea egotzi die Espainiako Auzitegi Nazionalak bi gazteei.

Edozein kasutan, Garmendia ez zen pintaketa haiengatik mehatxatuta sentitu. Hala dio behintzat Egaña eta Lasaren defentsak Auzitegi Nazionalean aurkeztutako idatziak.

**Kartzelarik ez bi gazteentzako**

Hasiera batean Juan Moral Auzitegi Nazionaleko fiskalak Hodei Egaña eta Haritz Lasa sei urtez espetxeratzeko eskatu zuen. Fiskalaren arabera, batzokiaren aurka egindako erasoan lokaleko jabeei ubelduak eta bestelako minak eragin zizkieten. Horrez gain, altzairuak eta bitrinak apurtu izana ere leporatzen zien fiskalak gazteei, baita batzokiko hormetara likido bat bota izana eta bidean aurkitutako hainbat objektu batzokiaren aurka jaurti izana.

Garmendiaren deklarazioen berri izan ondoren, zigor eskaera aldatu zuen fiskalak. «Terrorismo» delitu bi leporatzen zizkien Egañari eta Lasari hasiera batean, eta azkenean, «kalte terrorista» gisa hartu zituen erasoak.

Fiskala eta defentsa akordio batera heldu ostean, 15 hilean egunean 6 euro ordaintzeko isuna jarri dio epaileak akusatu bakoitzari. Beraz, guztira, 2.700 euro ordaintzeko zigorra jaso dute.

**Egindakoaren kalte ordaina**

Izan ere, eskaera mota aldatzean, erasoak eragindako kalteak ordaintzeko proposatu zuen fiskalak. Horren aurrean, defentsak bankuko ordainagiri bat aurkeztu dio epaileari. Fiskalak ezarritako indemnizazioa bi akusatuek ordaindu dutela erakusten du errezibo horrek.

Egañak eta Lasak batzokiaren aurka egindako erasoen erantzuleak direla onartu dute, baita epaileak jarritako zigorra ere.

# NaBairi buruzko ituna laster lortzea espero du Aralarrek, «beranduenez udako»

Negoziazioa bide onetik doala esan arren, alderdi batekin ez dutela elkarrizketa hasi onartu du Txentxo Jimenezek

**Joxerra Senar** Iruñea

Nafarroa Bairen inguruko akordioa beranduenez sanferminak iritsi aurretik lortu nahi du Nafarroako Aralarrek. Koalizioa osatzen duten alderdiek eztabaidari ekin ziotenean, behin betiko akordioa lortzeko martxoaren 15eko epemuga jarri zuen Aralarrek, baina ez zuen aurreikuspen horretan asmatu. Orain, bigarren epemuga bat jarri badu ere, «bideragarria eta arrazoizkoa» dela deritzo Txentxo Jimenez. Nafarroako Aralarreko koordinatzaile nagusiak aitortu du alderdi batzuekin eztabaida «oso aurreratuta» dagoela, eta «bai kuantitatiboki bai kualitatiboki» akordioaren puntu nagusietan oso epe motzean adostasunera iristea espero du.

Iruñean eskainitako prentsaurrekoan, zuhurtzia handiz mintzatu da Jimenez. Mintzaide dituen beste alderdien izenik aipatu gabe, onartu du negoziazioak «erritmo desberdinak» dituela eta alderdiren batekin oraindik ez dutela hitz egin. «Batzuekin oso akordio sakona lortzetik oso gertu gaude, eta beste batzuekin ez gara hitz egiten hasi. Hori ez da izan, denontzako hitzordu kopuru bera egon ez delako, alde bakoitzak jarrera eta borondate bera agertu ez duelako baizik».


Aralarreko Nekane Perez eta Txentxo Jimenez, atzo. IÑIGO URIZ / ARGAZKI PRESS

Jimenezek aipatu du ez dagokiola Aralarri erabakitzea beste alderdiek zer egingo duten eta uneotan ez dagoela jakiterik egun koalizioa osatzen duten alderdi guztiek elkarrekin aurkezterik izango ote duten datorren urteko hauteskundeetan: «Batzuk beste proiektu baten egon daitezkeen zantzuak ematen ari dira. Aukeratu egin beharko du zein den bere 2011rako bere proiektua».

### Larunbatean batzarra

Datorren larunbatean Nafarroako Aralarrek biltzarra egingo du. Bertan, Nafarroako egungo egoera politikoa aztertzeaz gain, koalizioaren etorkizuna izango dute hizpide. Hala, aurrekoa urriaren 31n alderdiko militanteek zuzendaritzari NaBairen barne eztabaidari ekiteko emandako agindua zein sei hilabeteotako kudeaketa eztabaidatuko dute. Jimenezen arabera, beharrezkoa da udako «nahikoa sendotasun» izango duen akordio bat lortzea.

# Bi agoiztar epaituko dituzte kartelak jartzea egotzita

Txelui Morenok adierazi du jazarpenari «ekimen politiko handiagoz» erantzungo diola ezker abertzaleak

**Erredakzioa** Iruñea

Iazko ekainean, Europako hauteskundeetan Iniciativa Internacionalistaren aldeko kartelak jartzeagatik Agoizko bi herritarren aurka salaketa jarri zuen Guardia Zibilak, eta atzo epaiketa hasi zen Iruñeko epaitegian hauteskunde delitua egitea egotzita. Ezker abertzaleak epaiketaren une berean elkarretaratzea egin zuen epaitegi aurrean *proiektu politiko guztiak aurrera eramateko eskubidea, gurea independentzia*, eta Txelui Morenok adierazi zuen jazarpenari «ekimen politiko handiagoz» erantzuteko asmoa dutela.

Elkarretaratzean, Morenok gogorarazi du, oztopoak jarri bazituzten ere, Nafarroan hirugarren indar politikoa izan zela Iniciativa Internacionalista. «Hori da hain justu Espainiako Gobernuak gustuko ez duena, eta legez kanpokoa edo ez, ezker abertzaleak gizarte babesa du oraindik». Morenok gaineratu du jazarpenaren bidez independentista zigortzea nahi badute, «oker» dabiltzala.



Ezker abertzaleko kideen protesta, atzo, Iruñean. IÑIGO URIZ / ARP

# Eloy Velasco epailearen akusazioa erabat gezurtatu du FARCek

Auzia «gerra zikinari» egotzi dio, eta Chavezen gobernuaren aurkako erasoaren atzean Alvaro Uribe dagoela dio

**Erredakzioa** Iruñea

Gogor mintzatu da Kolonbiako FARC erakunde militarra. Eloy Velascok martxoaren 1ean auto baten bidez agindu zuen ETAko ustezko sei kide eta FARCen zazpi kide auzipetzeko, eta, era berean, erakunde horien artean eta Venezuelako Gobernuaren arteko elkarlanaren nahiko zantzu zeudela esan zuen. FARCek Annacol berri agentzian kaleratutako oharrean salatu dute «azpijoko bat» baino ez dela eta «ustekabeko eraso politiko eta juridiko» horren atzean Kolonbiako Gobernua bera dagoela iritzi dio.

FARCen arabera, Alvaro Uribe Kolonbiako presidenteak Hugo Chavezi dion gorrotoaren ondorio da Venezuelako Gobernua ETArekin eta FARCekin lotzeko saioa. Era berean, Eloy Velasco «PP frankistaren» menpeko epaile fanatikotzat jotzen du, eta Mariano Raxoi PPko presidentearen esanetara dagoela uste du. «Raxoi eta bere poltsikopean den epaileak ez diote begiratu nahi Uriberi egozten zaizkion gizatearen aurkako krimenei». Adierazgarritzat jo dute Velasco epaileak gezurrezko testigantzetan oinarri dutela bere ikerketa. Haren ustez, guztiaren atzean Etxe Zuriaren esanetara den Kolonbiako Gobernuaren gerra zikina dago.

GIPUZKOA ETA DONOSTIAKO
AURREZKI KUTXA

Batzar Nagusi Eratzailea

DEIALDIA

Erakundearen Estatutuen 24. artikuluan eta Erakundearen Gobernu-Organoak izendatzeko Prozedura-Araudiaren 24. artikuluan eta ondorengoetan xedatutakoaren arabera, Gipuzkoa eta Donostiako Aurrezki Kutxa honen Administrazio Kontseiluak, aurtengo martxoaren 26an egindako bere bileran, Batzar Nagusi Eratzailerako deia egitea erabaki zuen, zeina **2010eko apirilaren 30erako, arratsaldeko sei eta erdietan** lehen deialdian eta ordu erdi bat geroago, hala balegokio, bigarren deialdian, Erakundearen Hitzaldi-Aretoan, Donostiako Andia kalea z/g, ondorengoa izanik:

EGUNEKO GAI-ZERRENDA:

1.- Batzar Nagusiaren eraketa.
2.- Kontseilari Orokorrentzako agurra.
3.- Administrazio Kontseiluko Batzarkideen hautapena:
2 Titular eta 2 Ordezko, Entitate Fundatzaileen ordezkaritzan.
4 Titular eta 4 Ordezko, Ezarleen ordezkaritzan.
2 Titular eta 2 Ordezko, Udalbatzen ordezkaritzan.
4.- Kontrol Batzordeko Kideen hautapena:
Titular 1 eta Ordezko 1, Entitate Fundatzaileen ordezkaritzan.
2 Titular eta 2 Ordezko, Ezarleen ordezkaritzan.
Titular 1 eta Ordezko 1, Udalbatzen ordezkaritzan.
5.- Administrazio-Kontseiluaren esku uztea, ordezkatzeko gaitasuna barne, Batzar Nagusiak hartuko dituen akordioak formalizatu, zuzendu, interpretatu eta egikaritzeko ahalmenak.
6.- Batzarraldiaren Akta onartzeko ikuskatzaileak izendatzea.

Edozein taldek egindako hautagai-zerrenden aurkezpena, apirilaren 26ko, 10ak baino lehen egin beharko da, eta idatziz zuzenduko zaio Hauteskunde-Batzordearen Lehendakariari.

Donostia, 2010eko martxoak 26
LEHENDAKARIAK,
XABIER ITURBE OTAEGI

kutxa

# AHTaren kontrako ekintzak egin dituzte EAEko hamabi tren geltokitan

Adif eta Euskal Trenbideak erakundeek salatu dute pintaketak egin dituztela, eta txartel makinak hondatu

**Ainara Arratibel**

Adif Espainiako Trenbide Kudeaketarako Erakunde Publikoak eta Euskal Trenbideak-ek salatu dutenez, AHT abiadura handiko trenaren aurkako ekintzak egin zituzten atzo goizaldean hainbat geltokitan. Bi erakundeek jakinarazitakoaren arabera, Gipuzkoako eta Bizkaiko dozena bat geltokitan izan ziren ekintzak eta, besteen artean, txartelak ateratzeko makinak hondatu zituzten. Zerbitzuan, hala ere, ez zen trabarik izan, eta atzerapenik gabe ibili ziren trenak.

Adifen kasuan, Trapagako, Portugaleteko eta Basauriko geltokiak izan ziren kaltetuak Bizkaian; eta Donostiakoa, Pasaiakos, Hernanikoa eta Villabona-Zizurkilekoa Gipuzkoan . Geltoki horietan txartelak ateratzeko makinak izan ziren kaltetuak, eta AHTaren kontrako pintaketak egin zituzten.

Euskal Trenbideak erakundeak jakinarazitakoaren arabera, berriz, Zaldibarko (Bizkaia) geltokia izan zen kaltetuena. Antza, geltokiko txartel makina erre , zaintza kameretara pintura bota eta AHTaren kontrako pintaketak egin zituzten hainbat lagunek. Durangoko, Abadiñoko eta Basauriko geltokietan, berriz, sabotajeak txikiak izan ziren.

PSE-EEk gertatutakoa salatu du. «Halako ekintzekin erabiltzaileei bakarrik sortzen zaizkie kalteak, nabarmendu du Gipuzkoa Batzar Nagusietako PSE-EEko bozeramaile Julio Astudillok. Gertatuakoa gaitzetsi du, halaber, Gipuzkoako Batzar Nagusietako presidente Rafaela Romerok




AHTaren kontrako pintaketak Donostiako Herrerako geltokian. J. HERRERO / EFE

**Aramaioko alkatearen epaiketa**

Orain hiru urte herrian AHTaren inguruan egindako herri galdeketaren karietara, bihar epaituko dute Gasteizen Asier Agirre Aramaioko (Araba) alkatea. Desobedientzia eta prebarikazio delituak egozten dizkiote Agirreri.

AHT Gelditu! Elkarlanak babesa eta elkartasuna adierazi dio alkateari. «Aurrekari larria da. Arazo garrantzitsu baten inguruan herritarren iritzia zein den jakin nahi izatearen jarrera eredugarriak zapuzten ditu».

Haien arabera, Agirreri jarri nahi dioten zigorra, «zentzugabea» da. «Epaiketa bertan behera utzi beharko litzateke, udalak bere herritarrei zor dien errespetuan oinarritutako lanetan eskuhartze larria adierazten baitu».

Hori guztia salatzeko elkarretaratzea egingo dute bihar. 09:00etan izango da, Gasteizko epaitegiaren aurrean.

## Eskoriatzako tunelaren indusketa lanak amaitu dituzte

➜ Espainiako Sustapen Ministerioak amaitu ditu AHTaren Eskoriatzako (Gipuzkoa) tunelaren indusketa lanak. Hain zuzen ere, Uruburu II tunelaren lanak dira amaitu dituztenak.

Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkaritzak emandako datuen arabera, tunelak 460 metro luzeko bide bikoitza du, eta 85 metro koadroko sekzioa. Lan horietan, besteen artean, tunelaren goialdean eta barnealdean egin dituzte indusketak. Gainera, tunela drainatzeko, iragazteko eta estaltzeko lanak egin ahal izan dituzte.

AHTaren Eskoriatza-Aramaio zatiak 5,5 metroko luzera du. Horietatik 3,5 lur azpitik igarotzen dira. Uruburu II tunelarekin batera, beste hiru tunel daude: Uruburu I, Mazmela eta Induspe. Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkari Mikel Cabiecesek halako lanen garrantzia nabarmendu. «Gure apustua garbia da AHTaren alde. Euskadiren garapenerako ezinbestekoa da. Gainera, gizarteak eskatzen du».

## Urkiolan harrobiak galarazteko tramitea hasi du Jaurlaritzak

Zallobentako harrobiaren ustiapena debekatu nahi dute, haren handitzea saihestuz

**Erredakzioa** Gasteiz

Orain hilabete batzuk Eusko Legebiltzarrak emandako agindua betez, Urkiolako Natur Parkean (Bizkaia) erauzketak debekatzeko tramitea hasi du Jaurlaritzak. Lehen urratsa Natur Baliabideen Planaren aldaketa hastea izan da, eta horretarako agindua argitaratu dute EAEko Aldizkari Ofizialean. Neurri horren bidez, besteen artean, Zallobentako harrobiaren ustiapena debekatu nahi dute, haren handitzea saihestuz. Gainera, natur parkearen barruan ezingo da bestelako harrobirik eraiki, ez kanpoan ezta barruan ere. Ingurua berreskuratzeko plangintza ere landu beharko du.

EAJk, Aralarrek eta PSE-EEk botoa ematen zuten proposamenaren alde. «Hemendik aurrera ezingo da inguru horretan aldaketa edo bilakaera fisiko nahiz biologikorik eragingo duen ekimenik egin. Aldaketek Urkiolako Kudeaketa Planaren helburuak lortzea eragotzi edo zail dezakete».

Eusko Jaurlaritzak datorren urtean aurkeztu beharko duela, utzita dauden harrobiak lehengoratzeko plana. Hain zuzen ere, orain aste batzuk harrobiak lehengoratzeko eskatu zion Legebiltzarrak Jaurlaritzari. PSE-EEk, PPk eta EAJk bozkatu zuten proposamen horren alde.

martin ugalde foroa
MARTIN UGALDE FOROAren ekitaldia
Apirilak 22
19:00etan

Hizlaria:
XABIER MENDIGUREN BEREZIARTU
Kontseiluko idazkari nagusia 1998tik. Apirilaren 24an utziko du kargua.
'Bai euskararitik euskaraz baira'
*Kontseiluaren ekarpena euskararen normalizazioari*
EKITALDI IREKIA
*Andoaingo Martin Ugalde Kultur Parkean*
Hitzaldia zuzenean **www.berria.info**-n




Laudioko andre talde bat, bazkarian parte hartzea eskatzen. M. DEL VALLE / ARP

# Emakumeak, San Roke Kofradiako bazkaritik at berriro

Estatutuak aldatzeko ekimenak ez du aurrera egin, kofradiakideen ia bi herenak aldaketaren alde agertu diren arren

**Erredakzioa** Laudio

Abuztuko azken igandean Laudioko (Araba) San Roke Kofradiak egiten duen bazkarian ez da emakumerik egongo. Debeku hori ezartzen duten estatutuak aldatzeko proposamenak ez zuen aurrera egin Kofradiaren ezohiko batzarreko bozketan. Aldaketa onartzeko kofradiakideen hiru laurdenek baiezkoa eman behar dute. Ordea, bildu ziren 147 kideen artetik %62 baino ez zen agertu aldaketaren alde.

Jose Luis Navarro Kofradiako zerbitzuburuaren ustez, emaitzak agerian uzten du zein den gehiengoaren nahia, baina araudiak aldaketa galarazten duela nabarmendu du. Instituzioei bozketen berri eman ondoren haien erantzunaren zain gelditu dira. Horien erantzuna heldu bitartean urte honetako San Rokeko bazkaria San Pedroko atarian egiten jarraitzeko asmoa dagoela azaldu du Navarrok. Abuztu hasierako ohiko bilkuran estatutuen hainbat gairen inguruan bozketa egin nahi duela aurreratu du: aldaketak onartzen aldeko bozen kopurua, boza beste norbaiti uzteko aukera...

Laudioko Udalak ez zuen bozketaren inguruko balorazioirik egin nahi izan, oraindik eztabaidatu behar dutela argudiatuta.

# Hiru gizon atxilotu dituzte genero indarkeria egotzita

Ertzaintzaren 'Bortxa' telefonoak zerbitzu berri bat eskainiko die genero indarkeriaren biktima direnei

**Erredakzioa** Iruñea

Ertzaintzak hiru gizonezko atxilotu ditu egunotan genero indarkeria egotzita. Errenterian eta Tolosan (Gipuzkoa) izan dira bi atxiloketa; kasu bietan haurdun zeuden bikotekideei eraso egitea egotzi diete ustezko erasotzaileei. Lehen atxiloketa larunbatean izan zen, Errenterian. Bigarrena, ordea, igande goizaldean, Tolosan. Atzo arratsaldean Portugaleten (Bizkaia) gizon bat atxilotu zuten emazteari lepotik helduta eraso egitea egotzita.

Bestalde, Ertzaintzak *Bortxa* telefonoa emango die genero indarkeriaren biktimei, larrialdi egoera baten aurrean polizia unitateekin zuzenean harremanetan jar daitezen.

# Kolpeka hil dute gizon bat Tuteran, eta Foruzaingoa ikertzen ari da zergatik

Foruzaingoa Javier Martinezen hilketaren ikerketak egiten ari da, ustezko erasotzaileak atxilotu ahal izateko

**Naiara Elola** Iruñea

Foruzaingoa Javier Martinez 32 urteko gizonezko tuterarraren heriotzaren nondik norakoak ikertzen ari da. Iragan igandean, 07:30ean, herritar batek Martinez Tuterako (Nafarroa) Queiles pasealekuan botata aurkitu zuen konorterik gabe, buruan eta aurpegian kolpe handiak zituela. Hasiera batean, 32 urteko gizona, lanbidez ingeniaria, Tuterako Sofia Erregina erietxean artatu zuten, baina ondoren helikopteroz, Iruñeko Nafarroako Ospitalera eraman behar izan zuten. Han hil zen herenegun, 23:00etan.

Nafarroako Gobernuak baieztatu egin du gizonezkoari eraso egin ziotela igande goizaldean, eta Foruzaingoa datuak biltzen ari dela, gertatutako argitzeko eta arduradunak atxilotzeko. Lehenengo Tuterako Udaltzaingoa arduratu zen kasua ikertzeaz. Hala ere, hango Udalak ez du erasoaren inguruko informaziorik eman nahi izan, «kasua sekretupean» dagoela argudiatuta. Dena den, Maria Etxabe Tuterako zinegotziaren arabera, «ikerketa bide guztiak irekita daude, eta halako gertakariak argitzeko martxan jartzen den protokoloa abian da dagoeneko».

### Lagunak atsekabetuta

Javier Martinezen lagunek atsekabetuta daudela aitortu dute. Haren lagunetako bat zen Miguel Hugueten esanetan, «egun zoragarria izan zen larunbatekoa, eta hara nola amaitu den». Izan ere, Martinezek bere lagunekin batera Ribaforadan (Nafarroa) igaro zuen larunbat osoa. Hugueteren arabera, adiskideak Bartzelona eta Real Madrilen arteko saskibaloi eta futbol partidak ikusteko bildu ziren. Hala, bi norgehiagoka horiek amaituta Tuterara joan ziren gauean. «Tabernaz taberna ibili ginen, baina une batean lagunak banatu egin ginen», dio Huguetek.

Martinezen hainbat adiskidek jakinarazi dutenez, 06:30ean abiatu zen tuterarra etxe aldera. «Ez dakigu etxera itzultzerakoan zer gertatu zen; dakiguna da Queiles pasealekuko banku batean botata aurkitu zutela». Hala ere, aitortu duenez, ez dio irizten Huguetek 32 urteko gizonezkoa lapurreta egiteko eraso ziotenik. «Argi dugu ez ziotela lapurtu nahi izan, diru zorrotik ez zioten xoxik ere kendu», argitu du.

Hala ere, Martinezen adiskideek argi utzi dute oso mutil arrunta eta adiskide ona zela. Hilketa oso gertakizun arraroa izan dela aitortu dute Martinezen lagunek. «Igande goizaldetik buruari bueltak ematen ari naiz, eta milaka gauza pentsatu ditut, baina oraingoz ez dago ezer argi, guztia oso arraroa da», dio Hugetek. Babesa adierazi die Nafarroako Gobernuak eta Tuterako Udalak Martinezen ahaideei.





Anbulantzia bat, Nafarroako Ospitalearen atarian. JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

# 124.000 euro aurreztu nahi ditu Nafarroako Gobernuak ospitaleen bat-egitearekin

Nafarroako Ospitalea, Bideko Ama Birjina, Ubarmin, osasun etxeak eta arreta espezializatua bateratuko dituzte

**Erredakzioa** Iruñea

Iruñeko bi ospitaleak eta horren inguruan dauden osasun azpiegiturak bateratzeko dekretua onartu du Nafarroako Gobernuak. Dekretu horretan Nafarroako Ospitale Gunea izendatu duten egitasmoaren kudeaketa sistema berria ere ezartzen da. Maria Kutz Osasun kontseilariaren arabera, zuzendaritza postuen aldaketak urteko 124.000 euro aurrezteko balio izango du.

Konplexu berriaren zuzendaritza berrian kudeatzaile bat, zuzendari medikua, erizaintza zuzendaria, langileen zuzendaria eta administrazio zuzendaria izango dira. Horiekin batera, lau zuzendariorde izango dira medikuntzan, eta beste lau erizaintzan. Larrialdi zerbitzuak zuzendari bakarra izango du. Horren bitartez, izendapen askeko agintaritza postuak murriztu nahi ditu Nafarroako Gobernuak.

Kutzek jakinarazi du aldaketak indarrean sartuko direla Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den unetik bi hilabeteko epean, baina aldaketaren lehen fasea baino ez dela aurreratu du. Asmoa da hainbat esparrutako lan taldeekin «gaixoak artatzeko egitura bakar bat zehaztea» eta Nafarroako Parlamentura bidaltzea, bertan onartua izan dadin.

**1.114 ohe eta 5.824 langile**

«Nafarroako osasun sistemaren berrikuntza» ekarriko du egitura berriak, Kutzen ustez. Hala, gune berriak 1.114 ohe eta 5.824 langile izango ditu, horietatik 857 medikuak. Nafarroako osasun sistemako gaixo akutuentzako oheen %80 bertan egoteak ematen den zerbitzuaren kalitatea hobetuko duela nabarmendu du kontseilariak, «baliabideen kudeaketa egokiagoa» izatea ekarriko du eta.

Gune berriak Nafarroako osasun zerbitzuetako akutuentzako oheen %80 izango ditu, langileen %66 eta medikuen %44.

# Mugaz bi aldeetako erakundeek sendotu nahi dute elkarlana

Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusiak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak bost urteko bilan baikorra egin dute

**Jenofa Berhokoirigoin** Baiona

«Urrats handiak egin ditugu mugaz gaindiko lankidetzan, eta horretan jarraitu nahi dugu», esan du Iñaki Galdos Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria eta Kanpo Ekintzarako diputatuak, Jean Jacques Lasserre eta Monique Larran-Lange kontseilari nagusiak ondoan dituela. Hain zuzen, duela bost urte Baionan izenpetu mugaz gaindiko lankidetza hitzarmenaren balorazioa aurkeztu zuten atzo kontseilu nagusiak Baionan daukan egoitzan. Pertsona harremanak «benetan baikorrak» izan direnez eta proiektuak «lankidetza sendoan eta iraunkorrean oinarritu» direnez, eraman lankidetzaz «harro» dago Galdos.

Gizarte politikak, ingurumena, garapen ekonomikoa, azpiegiturak, lurralde antolaketa,turismoa ala kultura; jarduera arloak anitzak izan dira. Egin ahal izateko, «bi aldeetan dauden sistema administratibo ezberdinak gainditu behar» izan dituztela zehaztu du Jean-Claude Iriart Kontseilu Nagusiko zuzendariak.

Besteak beste, *Gipuzkoa eta Pirinio Atlantikoetako Kirolaren Antolaketari buruzko Liburu Zuria*-ren idaztea, ezinduen arreta ereduei buruzko jardunaldia eta mugaz gaindiko lehen udalekuak antolatu dituzte urte hauetan. Haietan 168 lagunek parte hartu dute.

2010eko abenduaren 31n bukatuko da hitzarmena, eta ondokoaz gogoetatzen ari direla jakinarazi du Jean Jacques Lasserrek.


Mugaz bi aldeetako ordezkariak, atzo. NICOLAS MOLLO





Elkarrekin hazten goaz

Eskaintzen dizkizugun produktuen atzean, eta gure zerbitzuaren xehetasunik txikienaren atzean, milaka pertsona dauzkazu zure ongizatearekin arduratuta. Horrexegatik aukeratu gaituzu gaur, eta horrexegatik aukeratuko gaituzu bihar ere.

**Te escuchamos / Entzuten zaitugu**
www.eroski.es/compromisos
902 540 340

EROSKI
zurekin

# Hizkuntza aniztasuna aldarrikatu du Baztarrikak kaleratu berri duen liburuan

Jaurlaritzaren hizkuntza politika «moteldu» egin dela uste du Hizkuntza Politikarako sailburuorde ohiak

**Erredakzioa** Donostia

Bizikidetzarako hizkuntza aniztasunak duen garrantzia goraipatu du Patxi Baztarrikak, orain urtebete arte Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuorde izan zenak. *Babeli gorazarre* liburuko 426 orrialdeetan Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan garatutako hizkuntza politikak aztertu ditu Baztarrikak; Espainiako eta Europako politikei ere begiratu die. «Hizkuntzen arteko oreka harmonikoari bizkar ematen dioten sistema demokratikoak eta nortasun baztertzaileak», bi muturrak, okertzat jo ditu Baztarrikak, eta hizkuntza aniztasuna ondo kudeatzearen alde egin du; hori da, haren hitzetan, «gizarte demokratikoetako osasunaren adierazle funtsezkoetako bat».


Gimenez, Baztarrika eta Etxenike, atzo, liburu aurkezpenean. J. CARLOS RUIZ / ARP

Liburua Alberdaniak argitaratu du. Gaztelaniazko itzulpena ere kaleratu du editorialak: *Babel o barbarie*. Atzo aurkeztu zuten, Donostian, Alberdaniako editore Jorge Gimenezek, Patxi Baztarrikak berak eta Pedro Migel Etxenike zientzialariak. Bi hitzaurre ditu liburuak: Etxenikerena bata, eta David Crystal filologo irlandarrarena bestea.

Baztarrikaren esanetan, hizkuntzen arazoa ez da lekuan lekukoa, «globala» baizik. Hizkuntza aniztasunaren arazoak Europa oso hunkitzen duela eta, beraz, Europan aniztasun hori islatuko duten politikak garatu behar direla adierazi du. Jaurlaritzari dagokionez, azken urtean euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko politikak «moteldu» egin direla uste du Baztarrikak. Hala ere, *Euskara 21* gogoetan egindako «ados jartzeko ahaleginari» eutsiko diola itxaropena badu.

# Garzonen aldeko mozioa aurkeztu dute Nafarroan

Kataluniako eta Mallorkako bi elkartek prebarikazioa leporatu diote Garzon auzipetzea erabaki duen epaileari

**Erredakzioa** Iruñea

NEB Nafarroako Ezker Batuak mozio bat aurkeztu du, Nafarroako Parlamentuak Baltasar Garzoni babesa adieraz diezaion. Espainiako Auzitegi Gorenak Garzon auzipetzea erabaki du, 1936ko gerrako eta frankismoko krimenak ikertzen hasi zenean prebarikazioa egin zuela iritzita. NEBek aurkeztutako mozioak salatzen du Garzon jazarria izaten ari dela. Gainera, CGPJ Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari eskatzen dio «inpartzial» jokatzeko. CGPJk hilaren 22an erabakiko du Garzon epaile lanetik behin-behinean baztertuko duen.

Parlamentuko Mahaiak tramiterako onartu zuen mozioa atzo, baina ez dago garbi aurrera egingo ote duen. UPNk adierazi du «instituzioei errespetua» izan behar zaiela eta, hortaz, ez dela ulertzekoa Nafarroako Parlamentuak beste instituzio batzuk kritikatzea. PSNk babestu egin du testua, tramiterako. Garzon auzipetzeak «iritzi publikoan zalantza ugari» sortu dituela adierazi du PSNk, baina nabarmendu du justiziaren erabakiak errespetatu behar direla. NaBaik ere tramiterako onartu du, baina zehaztu du arazoa ez dela Garzon Espainiako Auzitegi Nazionala baizik, eta «frankismoaren oinordekotzat» jo du auzitegi hori.

**Prebarikatzailea, Varela**

Kataluniako eta Mallorkako memoria historikoa berreskuratzearen aldeko elkarteek salaketa aurkeztu zuten atzo Espainiako Auzitegi Goreneko epaile Luciano Varelaren eta auzitegi bereko zigor salako presidente Juan Saavedraren aurka. Varela izan da Garzon auzipetzea erabaki duena, eta Saavedrak atzera bota zituen Garzonen helegiteak. Horregatik, memoria historikoaren elkarteetako kideek uste dute prebarikazioa egin dutela bi epaileek. Garzoni leporatutako delitu bera egitea egotzi diete, beraz. Beste elkarte batzuek, bestalde, salaketa aurkeztuko dute bihar, Buenos Airesko auzitegi batean (Argentina), frankismoko krimenak ikertzeko eskatzeko.




0 ZENT./MIN
EDOZEIN ORDUTAN
OPERADORE GUZTIETARA
100 SMS HILEAN
HILEAN 100 MB-KO INTERNET
0€
10 08
euskaltel
euskaltel
zuretzat
TARIFA
PROFESIONALENTZAKO
FINKO OSOA
Deitu 0 zent./min. ordainduta
Edozein ordutan
Operadore guztietara
Bidali 100 SMS hilean
Hilean 100 MB-ko Internet eta posta
Hori guztia, hilean
59,9 € bakarrik ordainduta
zuntzOptikoa
Zatoz Euskaltelen saltokira, edo deitu 900 840 200 telefono-zenbakira

Laburrean

## Guardia Zibilak Azpeitiko hiru gazte mehatxatu ditu

**AZPEITIA ›** AAM Amnistiaren Aldeko Mugimenduak salatu duenez, Guardia Zibilak Azpeitiko (Gipuzkoa) hiru gazte, besteak beste, torturarekin mehatxatu zituen, apirilaren 5ean, errepide kontrol batean gerarazi ostean. Guardia Zibilek armak gazteen aurpegietara begira izan zituztela eta jarrera «oso probokatzailea» izan zutela salatu du AAMk, batez ere gazteetako batekin.

## Mendizale bat hil da Anboton, 300 metro erorita

**BILBO ›** Mendizale bat hil zen herenegun eguerdian Anboto mendiko inguruetan. Gandorrean zihoala, Infernuko Zubi deitutako pasabidean, erori egin zen mendizalea, 58 urtekoa, eta 300 metro amildu zen. Mendizalearen lagunek SOS Deiak-era deitu zuten, eta gertaeraren berri eman. Erreskate taldeak bidali zituzten bertara, eta zauritua helikoptero batean jaitsi zuten Arrazolara (Bizkaia). Bertan zeuden medikuak, baina ezin izan zuten bizirik eutsi.

## Babesturiko etxeen politika finkatuko du Jaurlaritzak

**GASTEIZ ›** Datozen urteetan babes ofizialeko etxebizitzei buruz garatu behar diren politikak adostear dagoela jakinarazi du Iñaki Arriola Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza sailburuak. Hilabete barru, oinarrizko dokumentua izatea espero du, sektoreko ekonomia eta gizarte eragileekin adostu ondotik. «Herritarren beharretatik gertu» egongo den eta iraunkorra izango den politikak babestu ditu Arriolak, eta orain «geldirik» daude lurrak erabiltzen hastearen alde egin du.

## Salatu dute udalak ez dituela hizkuntz eskakizunak betetzen

**IRUÑEA ›** Iruñeko Udalak ez dituela ofizial administrari izateko hizkuntz eskakizunak betetzen salatu du NaBaik. Herritarrak euskaraz artatzeko, ofizial administrari postu batzuetarako euskara eskatzen zaie langileei, baina, NaBaik azaldu duenez, eskakizun hori bete gabe banatu ziren lanpostuak. Hutsik gelditzen bada lanpostu horietako bat, udal ordezkariek kategoria jaisten diote, eta hartara ez dute euskara ezagutzeko eskakizuna bete beharrik, NaBaik salatu duenez.

## %33,5

**▪ Bidaiarien joan-etorrien hazkundea Forondan.** Gasteizeko Forondako aireportuak 6.337 bidaiari izan ditu martxoan. Hala, iazko datuekin alderatuz, %33,5 hazi dira joan-etorriak. Urtea hasi zenetik, 12.533 bidaiari igaro dira bertatik.

## 340.315

**▪ Haur eskoletarako dirua Nafarroan.** 340.315 euroko diru saila onartu du Nafarroako Gobernuak, 16 herritako haur eskolak finantzatzeko. Abenduan 9,7 milioi euro bideratu zituzten haur eskola publikoen kudeaketara. Besteren artean Agoizko, Zarrakazteluko, Berako eta Altsasuko haur eskolek jasoko dute dirua.

## Preso arruntek bi euskal preso jipoitu dituzte Puertoko espetxean

**Erredakzioa**

Diego Ugarte eta Unai Bilbao euskal presoak jipoitu dituzte hainbat preso arruntek Puertoko espetxean (Cadiz, Espainia). Senide batek BERRIAri azaldu dionez, aurrez aurrekoetan preso politikoen senideak miatzeaz gain, preso arruntenak ere miatzeari ekin zioten. Bi euskal presoek salatu dutenez, «funtzionarioek berotu» dituzte preso arruntak preso politikoen aurka egin dezaten. Atzo preso arruntekin liskarra izan eta jipoitu eta jo egin zituzten Ugarte eta Bilbao. Gose greba hasi dute bi preso politiko horiek egoera salatzeko.

Premin San Pedro euskal presoak ere gose greba hasi du Granadako espetxean (Espainia), bikotekideak eta semeak ukimenezko miaketei uko egin eta haiekin asteburuan zuen bisita galdu baitzuen.

Irudia › Iruñea



## MONARKIAREN AURKA EGITEKO DEIA

Espainian II. Errepublika ezarri zela 78 urte beteko dira bihar, eta ekitaldi batekin ospatuko dute Iruñean, Mañueta frontoian, 19:00etan. Irudian ezkerretik eskuinera ageri diren Errepublikaren aldeko Batasun Zibikoa elkarteko Felix Hernandezek, Batzarreko Ioseba Ezeolazak, EPK Euskadiko Partidu Komunistako Paco Jimenezek eta NEB Nafarroako ezker Batuko Juan Carlos Esparzak egin zuten ekitaldirako deialdia, atzo, eta nafarrei eskatu zieten monarkiaren aurka ekiteko. Nafarroako Parlamentuan, bestalde, II. Errepublikaren aldeko adierazpena onartu zen atzo. IÑIGO URIZ / ARP



# Laneratzeko agentzia pribatuak baimenduko ditu Lan Ministerioak

Zerbitzu publikoen eskuetan dagoen bitartekaritza lana irabazi-asmoa duten enpresei ireki nahi die Madrilgo gobernuak

Kalte-ordain txikiagoa duen kontratu bat zabaltzeko prest jarraitzen du Corbachok

**Ivan Santamaria** Gasteiz

Langileen eta enpresen arteko bitartekaritza esku pribatuei irekitzeko prest dago Espainiako Gobernua. Lan erreformaren negoziazioen baitan atzo gizarte eragileei helarazi zien azken agirian irabazi asmoa duten agentzia pribatuak baimentzeko ideia jaso du Lan Ministerioak. Halaber, Aldi Baterako Lan Enpresei ezarritako mugak berriro aztertzeko eta batzuk kentzeko aukera aipatzen du agiriak.

Enplegu zerbitzu publikoen eskuetan dago gaur egun lan merkatuko bitartekaritza. Erakunde pribatuek, berez, ez dute debekatuta, baina irabazi asmorik gabekoak izan behar dute.

Alor horretan aritzeko agentzia pribatuek hainbat baldintza bete beharko dituztela aurreratu du Celestino Corbachok zuzentzen duen ministerioak. Esaterako, erkidego bakoitzeko enplegu zerbitzu publikoaren baimena beharko dute; euren jardueraren parte bat laneratzeko arazoak dituzten kolektiboei zuzendu beharko zaie; eta beharginentzat doakoa izan beharko du zerbitzuak.

Agentzia pribatu horien baitan mota ezberdinak egongo lirateke. Esaterako, erregulazio eskaeren ondorioz lana galdu behar duten beharginei beste lanpostu bat bilatuko dieten enpresa bereziak ezartzea begi onez ikusten du gobernuak. Erregulazioa indarrean jarri nahi duen enpresak aukera luke agentzia horien kontratazioa plan sozialaren barruan sartzeko.

Bitartekaritza orokorra ez ezik, Aldi Baterako Lan Enpresek gaur egun duten araudia moldatzeko asmoa iradoki du agiriak. Hain zuzen ere, enpresa horien jarduerari gaur egun ezartzen zaizkion mugak ezabatzeko egutegi bat prestatzeko borondatea du gobernuak, baina prest legoke jardueraren arabera epea finkatzeko. Bestalde, negozio kolektiboaren bidez arriskua dela-eta, ABLEko langileekin estali ezingo diren lanpostuak zehaztu ahalko litzateke.



Alfonso Moron, Elkarrizketa Sozialerako kabineteburua, atzo, gizarte eragileekin bildu ostean. JAVIER LIZON / EFE

### Kaleratzea, merkeago

Lan erreformari begirako lehen proposamena joan den otsailaren 5ean egin zuen Lan Ministerioak. Agiri horretan kontratazio mugagabea sustatzeko kontratua —kaleratuz gero kalte-ordain txikiagoa duena— orokortzea plantatu zien gizarte eragileei.

Atzo igorri zien agirian ideia horretan sakondu du gobernuak. Berriro ere, 33 eguneko kalte-ordaina duen kontratua langabe kolektibo orori ezartzeko formulak aipatzen dira. Celestino Corbacho Lan ministroak berak defendatu zuen atzo kaleratzea merkatzeko asmoa, «beti ere langileei eskubideak kendu gabe».

Aldi baterako kontratazioari dagokionez, obra edo zerbitzu kontratuei gehienezko epea ezartzeari atea ireki nahi dio gobernuak. Ildo horretan, aldi baterako kontratazioaren araudiak betetzeko direla egiaztatzeko kanpainak areagotuko dituela ziurtatu du.

Aurrera begira, gainera, kaleratze ordaina eraldatzeko moduak aztertzea proposatu die Corbachok sindikatuei eta patronalari. Hain zuzen ere, Austriako ereduari erreferentzia egin zaio. Eredu horren arabera enpresek langile bakoitzeko langabeziafuntsa eratu beharko lukete. Lanpostua aldatuz gero, funtsean pilatu dituen eskubideak beretzat gordeko lituzke langileak.

Kontratazioa sustatzeko ematen diren pizgarriak berrikusteko asmoan xehetasun gehiago eskaini ditu Lan Ministerioak. Lehentasuna laneratzeko arazoak dituzten 16 eta 30 urte bitarteko gazteak izatea nahi du. Halaber, 45 urte baino gehiago dituzten epe luzeko langabeen enplegua saritzea ontzat jo du. Kasu guztietan kontratu mugagabea egin beharko litzateke pizgarria jasotzeko. Kolektibo horietan egoteaz gain emakumea izatekotan, hobariak handiagoak lirateke.

Gazteak laneratzeko proposamenen baitan, gainera, formakuntza kontratua sinatzeko gehienezko adina hiru urtez luzatzea proposatu du, 21 urtetik 24 urtera. Plantilan aldaketarik eragiten ez badute, kontratu horiek ez dute gizarte kotizaziorik ordainduko.



# Erretiroaren adina atzeratzeari ezezkoa eman diote sindikatuek

Maiatzean zehaztuko ditu proposamenak Frantziako Gobernuak, eta uztailerako aurkeztuko du legegaia

**Iker Aranburu**

Sindikatuen aldetik espero zuen erantzuna jaso du Frantziako Gobernuak: erretiroaren adina handitzearen aurka daude. «Hau ez da negoziazioaren hasiera, konfrontazioaren hasiera baizik», laburbildu zuen Jean Claude Mailly FO sindikatuko buruak, Eric Woerth Lan ministroaren ahotik erreformari buruzko lehen datuak entzun ondoren. Gobernuak atzera egiten ez badu, mobilizazioak iragarriko dituztela ohartarazi dute sindikatu batzuek.

Agian erantzuna bazekielako, Frantziako Gobernuak argi utzi nahi izan du ez dagoela sindikatuekin negoziatzen, baizik eta indarrean jarriko duen erreformaren epeak eta erritmoak jakinarazten. Eztabaida bakarra Parlamentuan egin nahi du Frantziako Gobernuak, han UMPk gehiengo oso handia duelako eta erreforma, teorian, arazo handirik gabe aurrera egingo duelako.

Maiatzaren erdialdean proposamen batzuk jakinaraziko dizkie gobernuak gizarte eragileei, ekainaren erdian zehaztuko ditu eta uztailean aurkeztuko du lege proposamena, oporretatik itzultzean Parlamentuak eztabaidatu dezan. «Oso epe motza da», kexu zen Mailly: «Ez da premiazko dosierra. Gobernuak eta Errepublikako presidenteak egin nahi dute premiazko».

Mailly izan zen Eric Woerth Lan ministroaren bulegotik igaro zen lehenengoa, eta haren ondotik abiatu ziren François Chereque CFDTko idazkari nagusia eta Bernard Thibault CGTkoa. Arratsaldean jaso zuen ministroak CGC eta CFTC sindikatuetako buruen bisita, eta Medef, CGPME eta UPA patronaletako arduradunena.

Horien artean agian izango da erretiroaren adin ofiziala atzeratzea. 60 urtekoa da orain, eta hortik gora igotzeko aukera erabat baztertu dute sindikatuek. 60 urteko erretiroa «oinarrizkoa da» CFDTrentzat, nahiz eta Cherequek aitortu duen pentsio sisteman erreformak eztabaidatzeko prest dagoen, kotizazio epearen luzatzea, esaterako. Jarrera itxiagoa dute beste batzuek. «Adin kontuei buruz, gure aldetik blokeoa dago; ez dago ezer negoziatzeko», azaldu du FOko Maillyk. Ildo beretik ari da CGT ere. Sindikatuen artean desadostasun bakarra CGCren aldetik etor daiteke. Zuzendari mailako soldatadunen ordezkariak garrantzi handiagoa ematen dio pentsio saria azken soldataren antzekoa izateari —handiagoa gutxieneko soldata dutenen artean—, erretiro adinari baino.

Patronalaren aldetik, Laurence Parisot Medefeko presidenteak erabat baztertu du gizarte kotizazioak handitzea pentsio sistemaren galerak estaltzeko. Haren iritziz, neurri horrek Frantziako enpresen lehiakortasunari egingo lioke kalte.



Eric Woerth, Frantziako Lan ministroa. IAN LANGSDON / EFE

### ↓ Eztabaidagaiak

■ **Erretretaren adina.** Uneotan, 60 urte betetzean har daiteke erretiroa Ipar Euskal Herrian. Hala ere, gero eta gehiagok atzeratzen dute —61,7 da erretiroaren batez besteko adina, Frantzian—, pentsioa osorik jasotzeko kotizatu beharreko epea luzatu dutelako azken erreformek: 40,5 urte dira aurten, eta 41 urte 2012tik aurrera. Erretiroaren adina atzeratzea eta kotizazio epea luzatzea daude Frantziako Gobernuak aztertzen dituen aukeren artean.

■ **Gizarte kotizazioak.** Gizarte Segurantzaren eta erretretakutxaren defizitak (7.000 milioi euro iaz eta 10.700 milioi euroko aurreikuspena dago aurten) handitu ez daitezen, enpresek langile bakoitzeko pagatzen duten gizarte kotizazioak handitzea dago aukeren artean. Enpresaburuak erabat aurka daude, lan kostuak handitzen dituelako. Sindikatuek diru-sarrera guztiei ezarri nahi dizkiete.

■ **Epeak.** Parisko gobernuak esan du maiatzean aurkeztuko dituela bere proposamenak, ekainean gehiago zehaztuko dituela eta uztailaren erdialdera aurkeztuko duela lege proposamena, Parlamentua irailaren hasieran eztabaidatzen has dadin.

Ordainik gabeko justizia ez da benetako justizia.
Egunkaria libre!
EA
Estatua zorretan!

# Europaren erreskate planak hobetu egin du Greziaren zorrarekiko konfiantza

Herrialdeak 11.000 milioi euroko zorra jaulkitzeko asmoa du gaur, Ameriketako Estatu Batuetan

**Jakes Goikoetxea**

Euroguneko herrialdeek onartutako erreskate planak arindu egin du, pixka bat bada ere, Greziaren itolarria. Merkatuek konfiantza pixka bat gehiago dute Greziaren zorrak ordaintzeko gaitasunean. Greziaren eta Alemaniaren bonuen arteko aldea murriztu egin zen atzo: iragan ostiraleko 427 puntuetatik 346ra. Greziako zorra ostiralean baino pixka bat merkeagoa da: ostiraleko %7,25etik atzoko %6,62ra.

Aldea ez da handia ostiraleko datuekiko, baina bai ostegunekoekiko, orduan gehieneko mailara iritsi baitzen. Greziako zorraren interesa ia puntu bat murriztu da eta diferentziala ehun puntu pasatxo. Greziak zorra ez ordaintzeko arriskutik babesteko aseguruak, berriz, %17 merkatu ziren atzo.

Hala ere, zorra garestia da oraindik Greziako Gobernuarentzat. Diru gehiegi ordaindu behar du interesetan. Aintzat hartu behar da Greziak hilabete hasieran 5.000 milioi euroko zorra jaulki zuela, %6 inguruko interesarekin. Zor gehiago jaulkitzeko asmoa du gaur, 11.000 milioi euro Ameriketako Estatu Batuetan.


Diplomatikoek atzo protesta egin zuten Atzerri Ministerioaren aurrean, Gobernuak soldatak murriztuko dizkielako. KATERINA MAVRONA / EFE

### Lizarra-Garaziko printzipioak

Euroguneko herrialdeek su itzalgailua onartu zuten herenegun Greziarentzat. Behar izanez gero, euroguneko herrialdeek maileguak emango dizkiote, guztien artean 30.000 milioi euroraino iritsi arte, urtebeterako eta %5eko interesarekin. Nazioarteko Diru Funtsak zenbateko mailegua eta ze interesetan emango liokeen zehaztea falta zen. Atzo egin zuten horretarako bilera Bruselan. Azkenean, 10.000 milioi euro inguru izango dira, %2,84ko interesarekin.

Baina Europak erreskate plana onartu izanak ez du esan nahi Greziak erabiliko duenik. Alemaniak Gobernuaren arabera, oraingoz ez dago arrazoirik pentsatzeko Greziak erreskatea beharko duela. «Horman su itzalgailu bat egoteak ez du esan nahi erabili egingo denik», esan zuen Alemaniako Gobernuko iturri batek. Greziako Gobernuak oraingoz ez du laguntza zuzenik eskatu.

Greziak defizita murrizteko neurriak onartu ditu. Gobernua gaur bilduko da Atenasen, osorik edo zati batean Estatuarenak diren enpresak pribatizatzeko.

## Burtsa

J.B. ANDUEZA

**Bilbao 2000 indizea**




**Dibisak**

Euro bat: **1,3585** $

Euro bat: **126,99** ¥

**Beste indizeak**

| | | |
|---|---|---|
| Ibex 35 (Madril) | 11.460,80 | (+%0,58) |
| Ftse 100 (Londres) | 5.777,65 | (+%0,12) |
| CAC 40 (Paris) | 4.050,50 | (=) |
| Dax (Frankfurt) | 6.250,69 | (+%0,02) |
| Dow Jones* (New York) | 11.024,18 | (+%0,24) |

* Itxi aurretik

# Tragedia (izan) da

Egunkariakoa, absoluzio eta guzti ere, tragedia izan den bezala, Greziakoa ere hala da. Bidegabekeria izan da bat, bideragarritasungabekeria izan liteke bestea. Euroak 1,36ra jauzi egin arren eta periferiako merkatuek (tartean geureak) ospatu arren, oxigeno pittin bat baino ez da luze joko duen estualdirako. Oraingoz ospatzea erabaki zuten bankuek eta Santander (+%2,05) erraldoiak eta dibidendua ordaindu zuen BBVAk (+%1,13) bultzada burutu zuten, Bankinterren (+%2,81) laguntzaz. 2.181 milioiren salerosketa izan zen Ibex-35eko (+%0,58) akziotan. %2na pasako galerak izan zituzten Iberia eta Telecincok baina, gainontzean, irribarrea izan zen nagusi akzio azokan nahiz Andoainen, tragediaren nondik norakoak ezagutu arren. Ikuskizun dago Greziari emandako 30.000 milioiren absoluzioak zenbat irango duen. Auzi ekonomikoa edo politika ekonomikokoa, zehatzago. Ferrovial (+%3,19) izan zen indizeko txalotuena.

**Edurnezurik** (+%0,53) Telecom Italiarekin (+%1,86) ez bategiteko araudi eta politikako trabak nabarmendu dituzte Deutsche Bankeko (+%0,4) analistek euren azken txostenetan. Aire garraiokoak baino zailagoak dira, itxuraz, bategiteok.

**BBVAk** eta Santanderrek milana milioi euroren zorra jaulki zuten atzo nazioarteko merkatuan. Finantza erakunde gutxik dute Espainian horrelakorik egiteko ahalmena gaur-gaurkoz. Sala i Martin ekonomialariak *tsunamia* iragarri die, berregituraketarik ezean.

# Forum-Afinsako kaltetuek borrokan jarraitzeko asmoa berretsi dute

Kongresua antolatu dute Bilbon auziaren egoera aztertzeko, eta maiatzaren 8an kalera aterako dira Madrilen

**Mikel Carramiñana** Bilbo

Afinsa eta Forum Filatelico enpresen jarduera eten zutenetik lau urte beteko direnean, FAF Bizkaiko kaltetuen elkarteak «deitoragarria» deritzo auziaren bilakaerari. Zigor bideko auzibidea geldirik dago eta, merkataritzakoari dagokionez, Forum Filatelico likidatzeko prozesua hasi da, baina Afinsakoa oraindik ez.

Elkarteko ordezkari Juan Ramon Sertutxaren esanetan, familien egoera ekonomikoaren aurkako «atentatua» da eta, aurrezkietan ez ezik, askoren osasunean ere ondorioak izan dituela esan du: «Bost lagunek bere buruaz beste egin dute, eta egoerak eragindako gaixotasun fisikoak zein psikologikoak dituzte askok».

Kaltetuek, edonola ere, beren aurrezkiak berreskuratu arte borrokari eusteko asmoa dutela berretsi dute Bilbon eginiko agerraldian: «Epaitegietan ez ezik, kalera ateratzen jarraituko dugu». Maiatzaren 8an Madrilen egingo duten manifestaziora deitu dute.

### Kongresua eta manifestazioa

Forum eta Afinsa enpresetako bezero izandakoek kongresua antolatu dute Bilbon larunbat honetarako. Besteak beste, Auzitegi Nazionalaren aurtengo otsailaren 5eko epaia aztertuko dute hainbat abokatu eta adituekin. Epaileek ebatzi zuten Espainiako administrazioak ez duela erantzukizunik, 460.000 kaltetuei —20.000 inguru Hego Euskal Herrian—, kalte-ordainak ordaintzeko. Gainera, helegitea 150.000 eurotik gaineko inbertsioa zutenek bakarrik aurkeztu ahal izan dute, «bezeroen %1ek bakarrik», salatu duenez.

Ildo beretik, Espainiako justizian «federik ez» dutela esan du Sertutxak eta, horregatik, Europako epaitegietara joko dute helegiteak agortu ondoren.

Justiziarena ez ezik, beren burua Espainiako Gobernuaren «tratu txarren» helburu sentitu dute Forum-Afinsako hartzekodunek. Irainak ere jasan dituztela eta, horren harira, «aurreztaileak baino ez» direla gogorarazi nahi dio gizarteari: «Kaltetuen %85ek 20.000 euro baino gutxiago zituzten, ez gara espekulatzaileak».

EAJren jarrerarekin, bestetik, «minduta» daudela esan du, auziak izan zezakeen irtenbide politikoaren aurka bozkatu zuelako.



# Irlanda iparraldeko Justizia ministro aukeratu dute David Ford

Justizia eta Barne eskumenak berreskuratu ditu Stormontek, 1972tik lehen aldiz; DUP eta Sinn Feinen babesa jaso du Fordek

'Terrorismoarekin' eta mugekin lotutako gaiek Londresen esku jarraituko dute

**Arantxa Elizegi**

*Ostiral Santuko Akordiotik* ia hamahiru urtera berreskuratu ditu Stormontek Barne eta Justizia eskumenak. Igande gauerdian itzuli zizkion Londresko gobernuak. Atzo, berriz, Justizia ministro izango dena hautatu zuten 38 urtean lehen aldiz. Aliantza alderdiko David Fordek aukeratu dute horretarako. Izan ere, bera zen unionista, eta errepublikano gehienen sostengua zuen bakarra. «Elkarlana eta lidergoa lor ditzakegula erakustea da gure betebeharra; eta ziurtatzea herritarrek ikusten dituztela eskumenak berreskuratu izanaren onurak», esan zuen Fordek, izendatu berritan.

Guztiak ez dira, baina, erabakiarekin bat etorri. SDLP Alderdi Sozialdemokrata Laboristak eta UUP Ulstergo Alderdi Unionistak beren hautagaiak aurkeztu dituzte, argudiatuz Legebiltzarrean gehiengoa duten taldeen artean aukeratu beharko litzatekeela ministro berria —Aliantzak zazpi diputatu besterik ez ditu—. *Saint Andrewsko Akordioaren* arabera, ordea, bi komunitateen gehiengoa lortu behar du Justizia Ministerioa zuzenduko duenak. Hala, Fordek DUP Alderdi Demokratiko Unionistaren eta Sinn Feinen babesa eskuratu du. «Ipar Irlandak beste pauso bat eman du gaur etorkizun hobeagorako bidean», nabarmendu du Peter Robinson lehen ministroak. Aurrerantzean, Forden zuzendaritzapean lan egingo dute 4.000 langilek, eta Departamenduak 1.000 milioi euro inguruko aurrekontua izango du.

Fordek duela bederatzi urte hartu zuen Aliantza alderdiko buruzagitza. Garai hartan, DUPen eta Sinn Feinen arteko negoziazioek betetzen zituzten egunkari guztietako orrialdeak, baina, hala ere, urtetik urtera sostengua handitzea lortu zuen Fordek. Otsailaren hasieran, Hillsborougheko gazteluan egindako negoziazio luzeen ostean, unionista eta errepublikanoek hitzarmena lortu zutenean, atera zen lehen aldiz Forden izena Justizia ministro kargua hartzeko. Hark, baina, baldintza bat jarri zuen, koalizio gobernuak urratsak egin behar zituen komunitateen eskubideak zehazten dituen legedian. Martxoan iragarri zuen Aliantzak Forden hautagaitza.

**Fiskal nagusia**

Justizia Ministerioa zuzenduko duena aukeratzeaz gain, fiskal nagusi berria ere hautatu dute Irlanda iparraldeko diputatuek: John Larkin abokatu irlandarra. Orain arte Ingalaterra eta Galeserako fiskal nagusiaren gain zeuden betebeharrak hartuko ditu Larkinek. Bera ere Aliantza alderdiko kidea izan zen 1980ko hamarkadan, baina gutxi iraun zuen bere karrera politikoak. Irlanda iparraldeko hainbat politikari defendatu izan ditu azken urteetan.

Dena den, eta Londresek eskumen ia guztiak itzuli baditu ere, zenbait neurrik oraindik ere haren menpe jarraituko dute; esaterako, mugen gaineko kontrolak, segurtasun nazionalari dagozkionak edo *terrorismoarekin* lotutako auzien gainekoak.

Era batera edo bestera, gustura agertu dira Irlanda iparraldeko buruzagiak. «Gaur eman dugun pausoak urrunago bultzatzen du bake prozesua, Legebiltzarrean inoiz ikusi ez den moduan. Uste dut gure jendearen eta uharteko herritarren gehiengoak sostengatzen dutela erabakia», adierazi du Martin McGuinness lehen ministrordeak.



David Ford. BERRIA

## Irudia › Atentatua



### BENETAKO IRA-REN ERASOA

Bonba-auto bat zartarazi zuen Benetako IRAk Holywooden, Palace Barracks base militarretik gertu, igandetik astelehenerako gauean —argazkian autoaren irudi bat—. MI5 zerbitzu sekretuek kuartel bat dute han. Leherketaren unean handik igarotzen ari zen adineko gizon bat erietxera eraman behar izan zuten zaurituta. Eztandak kalte materialak eragin zituen. PAUL MCERLANE / EFE

Komunikazioak badu alternatiba

Egunkaria libre!

alternatiba

# Israelgo armadak milaka palestinar kanpora ditzake Zisjordaniatik

Lurralde okupatuetan egoteko Tel Aviven baimenik ez dutenak auzitegi militarretan epaituko dituzte

**Allande Sokarros**

Zisjordania okupatuan bizi diren milaka palestinar kanpora ditzake Israelek, gaur bertan indarrean jarri den agindu militar baten arabera. Horrek, 1969. urtean ebatzitako neurri baten aplikazioa zabaltzen du, Gazatik etorritako palestinarrak, besteak beste, «legez kanpo sartuak» direla esanez. Palestinako zein Israelgo giza eskubideen defentsarako erakunde ugarik salatu dute agindu hau. Horien esanetan, Zisjordaniatik ahal bezainbat palestinar kanporatzea da horren azken asmoa.

Iazko urriaren 13an, Israelgo armadak Zisjordanian dituen indarren buruzagi goren Gadi Shamni jeneralak izenpetutako agindu hori sei hilabeteren buru indarrean jartzekoa zen, hots, gaur. Honen arabera, Zisjordanian legez geratzeko baimen agiririk gabe atxilotzen duten edozein pertsona lurralde palestinarretik kanpora dezakete hiru eguneko epean. Zisjordanian geratzeko egonaldi baimen horiek potentzia okupatzaileak, hots, Israelek, emandakoak dira. Kanporatzea berehala gauzatu ezean, egonaldi baimenik gabe harrapatzen dutenak zazpi urterainoko espetxe zigorra edota 1.500 euroko isuna arriskatzen du.

Agindu hau Gazako lurralde palestinarretik Zisjordaniara bizitzerat joandako palestinarrentzat zein euren senide eta ondorengoentzat da. 2000ko irail amaieran, Bigarren Intifada piztu zenetik, Israelek debekatu egin ditu Gaza eta Zisjordaniaren arteko joan-etorriak. Neurri horiek gogortu egin dituzte, Tel Aviveko gobernuak Gazaren erabateko blokeoa indarrean jarri duenetik, Hamas Erresistentzia Islamikoaren Mugimenduak lurralde honen kontrola hartu zuelarik 2007ko agorrilean.

Gazatik etorritako palestinarrak ez dira, haatik, agindu militar horren aplikazioa jasan dezaketen bakarrak. Zisjordanian egotea debeku lukete, halaber, lurralde palestinarretik kanpo denbora batez egoteagatik egonaldi-baimena berritu ez dutenek, edo palestinar baten bikotekide atzerritar batek. Orain arte, Zisjordaniatik kanporatzeko aginduek ez zuten ondorio larririk izaten, Israelgo auzitegi zibilek baliogabetzen baitzituzten. Gaurtik hasita, baina, Zisjordanian «legez kanpo» daudenen kasuak auzitegi militarrek epaituko dituzte, eskubide zibilen babesik gabe.


Israelgo Polizia, palestinarrak atxilotzen, larunbatean, Zisjordanian. ABED AL HASHLAMOUN / EFE

### Salaketak

Palestinako Aginte Nazionalaren eta erakunde palestinarren salaketei gehitu zaie Israelgo giza eskubideen defentsarako hamar bat erakundek plazaratutako protesta bipila. Horiek eskutitz bat bidali zioten herenegun Israelgo Defentsa ministro Ehud Baraki, agindu militar horren gauzatzea galaraz zezan eskatuz. Barakentzako eskaria izenpetu duten erakunde israeldarren artean daude Gisha, Hamoked Zentroa, edo B'Tselem. Eskariaren egileek nabarmendu dute agindu militar hori indarrean jarri dutela jendaurrean eztabaidarik egon gabe eta Justizia zibilaren kontrolaz kanpo.

«Pentsatzekoa da kanporatze neurri hauek palestinarrentzat soilik direla; hortaz, argi geratu da agindu honen aplikazio gero eta zabalagoa eginda, demografia aldaketak bultzatu nahi dituztela, eta erlijioan zein naziotasunean oinarritutako bazterketa politika sendotuko dela», nabarmendu dute gobernuz kanpoko erakundeek testuan. Are argiago mintzatuz, hauxe adierazi du Gishako eledun Sari Bashik:«Armadak palestinarrak Zisjordaniatik kanporatzeko eta Gazara lekualdatzeko duen egitasmo zabalago baten barne sartzen da agindu hau».

Erabaki oso larria dela ohartarazi du, aldiz, Palestinako Giza Eskubideen Zentroko zuzendari Jaber Uishek, eta gaineratu: «Agindu militar hau erabat kontrajartzen zaio Genevako Giza Eskubideen Itunari. Okupazioaren ondorio bat gehiago da». Hark eta beste zenbaitek gogorarazi dute,

**Kanporatze agindua bete ezean, zazpi urteko kartzelara zigor ditzakete palestinarrak**

**Zisjordaniako kolono israeldarrak dekretu militarretik kanpo geratuko dira**

halaber, Zisjordanian «legez kanpo egotea» ez zaiela kolono israeldarrei egotziko; lurralde okupatuen kolonizazioa, aldiz, erabat legez kanpokoa da, nazioarteko zuzenbidearen arabera.

PAN Palestinako Aginte Nazionalaren izenean Israelekiko bake elkarrizketetan parte hartu duen Saeb Erekatek ere gogor salatu du Zisjordanian aplikatuko den agindu militarra. «Jokabide hauek *apartheid* politika bultzatzen duen estatu batenak dira». PANeko Negoziazio ministroaren esanetan, Israelen helburuak argiak dira: palestinar gutxiago eta kolono gehiago egotea, eta Zisjordaniaren kolonizazioa bazterreraino eramatea. Palestinako Aginte Nazionalak eta nazioarteak berak behin baino gehiagotan eskatu diote Israelgo Gobernuari kolonizazioa gelditu eta negoziazioak hasteko.

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO
INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA

GAIA: INDUSTRI AURRIAK LURRERATZEKO DIRULAGUNTZAK

**Aurrekontua:** 80.000 € 2010 urterako eta 1.200.000 € 2011 urterako.
**Norentzat?** Jabeentzat edo udalentzat jabeen ordez jardunez gero.
**Non?** Eusko Jaurlaritzako Lurraldearen Antolamendurako Zuzendaritzan. Lakua II, 2. solairua, 01010 Vitoria-Gasteiz.
Argibideak: 945 01 98 63 eta 945 01 98 33 telefono zenbakietan.
**www.euskadi.net**
**Noiz arte?** 2010eko maiatzaren 13 arte.
***Legedia:*** *Apirilaren 21eko 75/1998 Dekretua (1998ko maiatzaren 7ko EHAAn, argitaratua) eta Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren 2010eko martxoaren 31ko Agindua (gaur argitaratua, 2010eko apirilaren 13ko EHAAn).*

XXIX. UDA IKASTAROAK CURSOS DE VERANO
XXII. EUROPAR IKASTAROAK CURSOS EUROPEOS
BIZITZEKO IKASTEN
AURRERA EGITEKO IKASTEN
APRENDER PARA VIVIR
APRENDER PARA PROGRESAR
ELKARREKIN BIZITZEKO IKASTEN
IRAKASTEKO IKASTEN
APRENDER PARA CONVIVIR
APRENDER PARA ENSEÑAR
Argibideak eta izen ematea - Ikastaroen Idazkaritzan
Información e Inscripciones - Secretaría de los Cursos
Beka eskaria:
Solicitud de beca:
Matrikula eskaria:
Solicitud de matrícula:
Fundación BBVA

**Tinduf (I) → Bizimodua errefuxiatu guneetan**

Sahararrek 35 urte egingo dituzte aurki basamortu idorrean errefuxiatuta; izaera nomadari eusten badiote ere, betikotzen ari dira behin-behineko kanpalekuetan, eta itxarote luze horretan irauteko mundu bat zutitu dute.

# Basamortuen basamortuan

**Kristina Berasain** Tinduf

Harea, harriak eta haizea. Tarteka, zuhaitz bakan batzuk lur antzuan. Eta zeru zabalean eguzki akigarria. Hammada. Basamortuen basamortua. Ingurumari horretan bizi dira sahararrak. Errefuxiatuta, ahaztuta eta traizionatuta. Aurki, heldu den azaroan, 35 urte beteko dituzte Tindufen. Aljeria hego-mendebaldeko eremu idor horretan ez zen beste inor bizi iritsi zirenean, eta desertu horretan mundu bat zutitu dute. Irauteko mundu bat. Eta itxarote luze horretan behin-behinekoa zena betikotzen ari da. Banan-banan zutitu zituzten kanpalekuak edo uilajak; Rabuniko aurreneko kokaguneen ostean Aaiun. Smara, Dakhla eta Auserd ondoren. Lur iharraren azpian ura dagoen badakite, gauez arretaz entzunez, eta horrek baldintzatu zuen kanpalekuen kokagunea. Dakhlako kanpalekuan 1,5 metrora dago ura, eta ura bizirik irauteko keinua da basamortuan. Uilaja bakoitza sei edo zazpi daira edo herrixketan dago banatuta, eta horien barrenean lau edo bost auzo daude. Rabuni hiriburu administratiboa da gaur egun.

Galia Larusi (20) egunsentian iratzartzen da. Aitak goizeko lehen errezoa egitera deitzen ditu seme-alabak. Emakumeek, ama tartean, lasto-buztinezko etxearen barruan errezatzen dute, eta gizonek jaimaren barruan. Orduan hasten da eguna kanpalekuetan. Faiti Dagman (57) amak aurreneko tea prestatzen du. Basamortuan bizi zen kanpalekuetara iritsi aurretik, senarra eta bi seme-alabekin, baina okupazioaren berri izan zutenean ihes egin zuten. Smarako Hausa dairan bizi da. Beste zortzi seme-alaba izan ditu bertan. «Hilabete behar izan genuen iristeko, bidean umeak nola hiltzen ziren eta bonbak nola lehertzen ziren ikusi genuen».

**↓ Errefuxiatu guneak**




### Exodoa

Marokok 1975ko azaroan okupatu zuen Mendebaldeko Sahara. Martxa Berdearen lekuko zuzena izan zen Badsula Ali (40). 5 urte baino ez zituen desertua oinez zeharkatu behar izan zuenean. «Aaiunen bizi nintzen, eta bi hilabete behar izan genuen hona iristeko. Ez genuen ez jatekorik eta ez edatekorik, eta bidean bonbardatu gintuzten, Tifaritin. Izeba hil zen». Alik negar asko egin duela aitortu du. «Nire bi senarrak gerran hil dira, eta lau semealabekin egin behar izan dut aurrera nik bakarrik». Jaimako soketan tapakiak astintzen ari da. Goizeko hamaikak dira, eta arratsaldea bitartean mantsotu egiten da bizimodua. Gelditu ere bai. Termometroa 43 gradura iristen da egunotan, eta itzalean babesten dira sahararrak. Exodoaren garaia negu partean izan beharrean uda partean izan balitz denak hilik egongo zirela errepikatzen dute etengabe.

> «Gauez ibiltzen ginen, eta egunez harearen azpian ezkutatzen ginen hegazkinak entzutean»
> **MAMIA SIDIA**
> Hausako emakumeen batzordeko presidentea

### Bizimodu ankerra

«Bi urtaro baino ez daude hemen; uda eta negua». Iluntzen hasi da, eta berriro mugimendua suma daiteke kanpalekuetan. Mamia Sidiak (61) melfa beltza darama soinean. Uda sargorietan 57 graduko tenperaturak daudela eta negu gorrietan zero azpikoak; horixe azaltzen du ikatz koskorrak sutan jartzen ari dela. Sahararrak jatorriz beduinoak direla eta, inuitek izotzaren zuri ezberdinak bereizten dituzten moduan, eurek harea mota ezberdinak bereizten dituztela; «gorrixkagoa edo zurixkagoa, hezeagoa edo idorragoa». Bizimodua, baina, ez da samurra. «Hona iritsi ginenean hemen ez zegoen ezer. Dena eraiki behar izan genuen, eta denetarik ikasi; tapizak eta zirriak josten, jaimak egiten, idazten eta irakurtzen, eskolak ematen, emakumeak trebatzen, bai politikoki eta bai militarki. Okupazioak eta gerrak trebatzera behartu gintuen». Frontean zeuden gizonak, eta emakumeak kanpalekuetan. «Emakumea bizitza alor guztietan egon da presente, iraultzan eta erresistentzian ere». Fronte Polisarioko talde sekretuetan ari zen okupazioaren aurretik Aaiunen. «Inbasioaren unea ankerra izan zen, ahaztezina, kaleetan milaka soldadu zeuden eta dena bonbardatzen zuten». Bost seme-alabak hartu eta asto baten gainean egin zuten ihes. Oraingo kanpalekuetara iristeko tarteko beste batzuk ezarri zituzten bidean. Horiek napalm eta fosforo zuriarekin bonbardatu zituzten. «Gauez ibiltzen ginen, eta egunez hondarraren azpian ezkutatzen ginen hegazkinak entzuten genituenean».

Sidia Hausako emakumeen batzordeko presidentea da egun. Izarrak pizten direnean sahararrek tradizio dituzten solasaldi amaigabeen atarian dago. «Astebetez egongo nintzateke garai haietaz hitz egiten». Saharako esaera zahar batez akordatu da une horretan alboan duen laguna: «Hiltzen den agure bakoitza desagertzen den liburutegi baten modukoa da». Gaua da Tindufen.

**Bihar:** Tinduf (II). Itxaropenaren eta etsipenaren artean



Emakume saharar bat Hausan. Smarako uilajako dairetako bat da Hausa. Emakumeek zutitu zituzten kanpalekuak. KRISTINA BERASAIN

# Apirilaren 15ean



ordenagailu eramangarri hau
zotz egingo dugu BERRIAren
**harpidedunen artean**

Core 2 Duo 2,1GHz prozesadorea
4GB DDR2 SDRAM memoria
320 GB SERIAL ATA diskoa
DVD (DVD-RAM/±R/±RW) grabatzailea
15,6" WXGA monitorea
Ethernet Gigabit - Windows 7 Home Premium

Orain, beste arrazoi bat BERRIAren harpidedun izateko.



**Egin zu ere**
**harpidedun**, eta jaso eramangarriarentzako
**motxila opari***




HARREMANETARAKO:
*943-30 43 45 • harpidetza@berria.info*

* Urte osoko harpidetzarako

AUKERA EZAZU, BIZI EUSKARAZ **berria**

## Laburrak

### Italiako tren istripu batean bederatzi pertsona hil dira

**ERROMA ›** Italiako Bolzano probintzian gutxienez bederatzi pertsona hil ziren atzo, eta beste 30 zauritu, tren istripuan. Zauritutako ia denak, gainera, larri eraman dituzte ospitalera, Luis Durnwalder iparraldeko gobernadoreak azaldu duenez.

### Afganistanen lau zibil hil dituzte NATOko soldaduek

**KABUL ›** NATO Ipar Atlantikoko Itunaren Erakundeko soldaduek lau zibil hil eta hemezortzi zauritu zituzten atzo, Afganistango hegoaldeko Kandahar probintzian. Nazioartetik hara bidalitako tropek tiro egin zioten zibilak zeramatzan autobus bati, eta horregatik hil ziren. Bestalde, herrialdeko iparraldean lau polizia hil ziren, errepide ertz batean zegoen bonba bat lehertu baitzen.

### Epaile bat hil dute Errusian, ustez ultranazionalistek

**MOSKU ›** Eduard Txuvashov Moskuko Hiri Auzitegiko epaileak ultranazionalisten aurkako hainbat zigor epai eman ditu. Atzo, etxetik ateratzen ari zela, tiroz hil zuten. «Sona handiko kasuak zeramatzan, eta kasualitatea izango da, baina Rino eta Skatxovski bandaren aurkako epaia eman berri du», dio Fiskaltzaren Instrukzio Batzordeak, hiltzaileak ultranazionalistak izan daitezkeela adieraziz.

### Somaliako borroketan gutxienez 21 lagun hil dira

**MUQDISHO ›** Somaliako segurtasun indarren eta ekintzaile islamisten arteko borroketan gutxienez 21 lagun hil ziren atzo, Muqdisho hiriburuan. Lekukoek eta mediku iturriek eman dute horren berri. NBE Nazio Batuen Erakundearen babesa duen gobernua aspalditik ari da ekintzaile islamisten aurka; alabaina, azken hogei urteetan Somaliak ez du haiek garaituko dituen gobernu sendorik izan.

### Armadak 200.000 lagunen ihesa eragin du Pakistanen

**ISLAMABAD ›** Pakistango iparmendebaldetik 200.000 lagunek egin dute ihes. Armada ekintzaile islamisten aurka ari da borrokan eremu horretan, eta herritarrek borroken artean harrapatuko dituzten beldur, ihes egitea erabaki dute. Bestalde, azken erasoetan 41 ekintzaile islamista eta bi soldadu hil dira. AEBetako misil batek, berriz, bost lagun hil ditu Ipar Waziristanen.

## Irudia › Polonia



### ISTRIPUA ARGITU NAHIAN

Lech Kaczynski Poloniako presidentea eta beste hainbat agintari zeramatzan hegazkinak izandako istripuaren zergatia argitzeko lanean dihardute adituek. Moskuk ezbeharra hutsegite teknikoek ez zutela eragin jakinarazi eta biharamunean, atzo, pilotua lurreratzeko presionatu zutela pentsatzeko aski zantzurik ez dagoela adierazi zuen Poloniako fiskal nagusiak. Beste hipotesi batzuek diote presidentea bera izan zela pilotua lurreratzera behartu zuena. Irudian, hildakoen omenezko ekitaldia, Varsovian. ARTOMIEJ ZBOROWSKI / EFE

# Iranen aurka zigorrak onar ditzaten ahaleginduko da Obama Washingtonen

Material nuklearraren trafikoa amaitzeko neurriak hartu nahi dituzte 40tik gora agintarik goi bileran

**Ixiar Zubiaurre**

Segurtasun nuklearrerako goi bilerak material atomikoaren trafikoa amaitu eta aberastutako uranioa kontrolpean jartzeko balio dezan nahi du Washingtonek. Atzo hasi eta gaur arte, 47 herrialdetako estatuburu, gobernuburu eta ordezkarik parte hartuko dute bileran, ofizialki munduko armategi nuklear handienak dituztenak barne; hala nola Errusiak, AEBek, Frantziak, Txinak eta Erresuma Batuak. Haatik, huts egin dutenen artean nabarmen ageri da Israel. Nuklearren gainean konpromisorik hartu nahi ez duelako, Benjamin Netanyahuk uko egin zion joan den astean goi bileran parte hartzeari. Halaber, Obamak arriskutsuen dituen haiek, Ipar Koreak eta Iranek, ez dute harakoa egin. Ukrainak, berriz, bi urteren buruan asko aberastutako uranioari uko egingo diola agindu du.

Segurtasun nuklearraren bilera hasteko zela, Barack Obama AEBetako presidenteak eta Hu Jintao Txinakoak bilera egin zuten atzo. Obamak aukera baliatu du Txina Iranen aurkako zigorrak onartzearen ager dadin. Jarrerak malgutu dituzten arren, Txina izan da, Errusiarekin batera, uzkurren agertu dena. Haatik, eta segurtasun nuklearrerako bilera ofizialetik kanpo izanda ere, gaiaz aritzeko bildu izana garrantzitsutzat jo dute adituek.

Joan den astean, baina, Dmitri Medvedev Errusiako presidenteak zigorrak onartzearen alde legokeela adierazi zuen. Eta atzo Obamaren elkarrizketarako gaitasuna goraipatu zuen, beste behin bi herrialdeen arteko harremanak ez direla lehenengoak adieraziz. «Gaiak sakontasunez hartzen ditu; horregatik, badaki zertaz ari den. Ez da egon bilerarik, non Obamak galdera bati zer erantzun jakin ezinda geratu den», adierazi zuen Medvedevek.

**Eraso nuklearren beldur**

AEBen segurtasunarentzat mehatxu handiena «talde terroristak» arma nuklearren jabe egitea dela esan berri du Obamak. Horregatik kontrolatu nahi du material nuklearren trafikoa.

Sobietar Errepublika Sozialisten Batasuna erori zenean, haren parte izandako herrialdeek erreserba nuklearrak gorde zituzten. 1991n, AEBekin sinatutako akordio baten ondorioz, haietako asko suntsitzea lortu zuten. Inork gutxik daki gainontzekoak noren esku eta zein egoeratan dauden, baina.

EIBARKO UDALA

IRAGARKIA

Udal Batzarrak, 2010eko martxoaren 29ean egindako bileran, honako ERABAKIA hartu zuen:

IBARGAIN 119-01 Jarduketa Txertatuaren Xehetasunezko Azterlanari behin betiko ONESPENA EMATEA .

Horren berri ematen delarik Hirigintz Planeakuntzaren Araudiko 140. atalak dioenari jarraituz.

Egintza honek administrazioaren bidea agortu du, eta horren aurka, eta betebeharraren kaltetan gabe, gaia doakienek, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezaketela Euskal Herriko Justizi Auzitegi Gorenaren Administrazioarekiko Auzi Aretoaren aurrean, Bilbon, (Barroeta Aldamar, 10) honako iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean; aldez aurre, gaia doakienek. Hori guztia, Administrazioarekiko auzi-eskumena arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 25. eta 10. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Hala ere, aukerabideko izaeraz, eta aurreko pasartean adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa baino lehen, interesatuek, egintza honen kontra berraztertze-errekurtsoa aurkez dezakete Herri Administrazioen Araubidearen eta Guztientzako Admnistrazio Ihardunbidearen Legeari urtarrilaren 13ko 4/1999 Legez onetsitako testuaren arabera. Errekurtso hori udal honetan sartu ahal izango da, honako iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita, hilabete bateko epean. Bestalde, interesatuek bidezkotzat jo ditzateketen beste egintza edo errekurtsoren bat egiteko aukera dute.

**Eibar, 2010-4-09**
**ALKATEAK, Miguel de los Toyos Nazabal**

# Lehen itzulian eskuinak irabazi ditu Hungariako hauteskundeak

Eskuin muturreko alderdi homofobo eta ultranazionalistak talde parlamentarioa izango du lehen aldiz

**Erredakzioa**

Parlamenturako hauteskundeen lehen itzulian, Hungarian, Viktor Orban lehen ministro izandakoaren alderdiak eskuratu du boto gehien. Behin-behineko emaitzen arabera, hautesleen %52,7k egin du Fideszen alde. Behin betiko emaitzak argitaratuta eskuinak gehiengo osoa eskuratzen badu, ez dute hauteskundeen bigarren itzulia egin beharko. Hilaren 25ean egitea zegoen aurreikusita.

Nabarmen gelditu da atzetik azken zortzi urteetan gobernuan egon den Alderdi Sozialdemokrata. Gastu publikoa murrizteko hartu dituzten neurri gogorrak tarteko, boto-emaileek zigortu egin dituzte sozialdemokratak: botoen %19,3 baino ez dituzte eskuratu. Gertu gelditu da eskuin muturra; izan ere, behin-behineko datuen arabera, %16,7k egin dute Jobbik alderdi homofobo eta ultranazionalistaren alde. Hartara, ordezkaritza parlamentarioa izango du eskuin muturrak, 2003an alderdia sortu zutenetik lehenengo aldiz. Dena dela, ez da hauteskunde horien bidez Legebiltzarrean taldea sortzea izango duen bakarra. LMP ezkerreko ekologistek ere aski boto sostengu eskuratu baititu horretarako.

Inkestak alde zituen eskuinak, eta, horregatik, inor gutxi harritu du emaitzak. Hala, Orbanek jakinarazi du agintera iristean neurri ekonomikoak malgutuko dituela, besteak beste, zergak jaitsiz.

Egunkaria libre!

# Absoluzioa, zazpi urtera

‘Egunkaria’-ko bost auzipetuentzat absoluzioa erabaki du Auzitegi Nazionalak, epaitutako gertaerak ez direlako delitu. Itxiera ere auzitan jarri du epaiak.




Martxelo Otamendi, Xabier Oleaga, Joan Mari Torrealdai, Txema Auzmendi eta Iñaki Uria, atzo arratsaldean, Martin Ugalde kultur parkean. JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS



**2003ko otsailaren 20a.** Guardia Zibilak *Euskaldunon Egunkaria* itxi zuen, Espainiako Auzitegi Nazionaleko Juan del Olmo epailearen aginduz. Horretaz gain, hamar lagun atxilotu zituen. JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS




**2003ko otsailaren 20a.** *Egunkaria*-ren aldeko elkarretaratzea egin zuten herritarrek, artean Guardia Zibila kultur parkean zela. Gerora Euskal Herri osora zabaldu zen elkartasun andanaren atarikoa izan zen. J.C. RUIZ / ARG



**2003ko otsailaren 21a.** *Egunkaria*-ko langile ohiek egindako *Egunero*-ren aurreneko alea kaleratu zen. *Tolosaldean Egunero*-ren egoitzan egin zuten, *Egunkaria*-ren itxierari erantzuteko sortu zuten kazeta. BERRIA

# Itxiera, euskarririk gabea

'Egunkaria auziko' bost epaituak errugabe jotzeaz gain, euskarazko kazeta bakarra ixteko nahiko arrazoi ez zegoela dio epaimahaiak sententzian.

**Oihana Elduaien**

*Euskaldunon Egunkaria* ixteko nahiko oinarririk ez zegoela ebatzi du Espainiako Auzitegi Nazionalak euskarazko egunkari bakarra itxi eta zazpi urtera. Atxilotu, inkomunikatu, torturatu eta epaitu dituzten bost lagunek ETArekin «inolako harremanik» ez dutela idatzi du *Egunkaria auziko* epaian, eta absolbitu egin ditu. Akusazioek lana gaizki egin dutela dio epaimahaiak: «Atzekoz aurrera egin dute indukzio prozesua. Lehenbizi, erabaki da zein den ondorioa (...); gero seinale, zantzu eta aztarna bila hasi dira; eta azkenik arbuiatu egin da ondorioarekin bat ez datorren ezein esplikazio».

Javier Gomez Bermudez, Manuela Fernandez Prado eta Ramon Saez Valcarcel magistratuek osatutako epaimahaiak *Egunkaria auziko* gako garrantzitsuenak puntuz puntu xehetu dituzte 33 orriko epaian.

## Itxiera oinarririk gabea

*Euskaldunon egunkaria* ixteko nahiko oinarririk ez zegoela esaten du epaiak. Epaimahaiaren arabera, Espainiako ordenamendu juridikoan «nekez onar daiteke» komunikabide bat badaezpadako neurri gisa ixtea. «Egiazko informazioa» ematea eta jasotzea «eskubide bikoitza» dela dio, eta hura «iritzi publiko libre baten bermea» dela. Gogora ekarri du, indarrean dauden arauetako «batek ere» ez diola epaileari komunikabideen jarduera eteteko ahalmenik ematen. *Egunkaria*-ren itxierak «dimentsio kolektibo gehigarria» ere baduela dio epaimahaiak, «euskaraz irakurtzen dutenek egunkari hori besterik ez zutelako». Horrek «pluraltasunaren ikuspuntutik haren ekarpena indartsuago» egiten zuela gaineratu du.

«Agian» badaezpadako neurri gisa egunkari bat ixteko salbuespen bat izan liteke, epaiaren arabera, «delitu larriak ekiditeko helburua, beste neurri arinen bat posible ez denean». Baina argudiatzen duenaren arabera, *Egunkaria*-ren auzian ezin daiteke esan halakorik gertatu zenik, «informazio eta iritzi lanetan delitu bakar bat ere ez zaielako inputatzen», eta beraz, «ezin daitekeelako eutsi egunkaria editatzeak eta zabaltzeak delitua egiten jarraitzeko arriskua» zekarrela esaterik. Beraz, badaezpadako neurri gisa erabiltzeko beste aukera batzuk ere bazirela dio.

## Frogarik ez

Frogatutzat eman daitezkeen gertaerak ez dira zigortzeko modukoak, epaimahaiaren arabera. Akusazioei gogor egiten die zati honetan, esanez, zantzuak egoteak ez duela zertan hautsi errugabetasun presuntzioa. Akusazioek aurrena ondorioa atera zutela, eta gero ondorio horri eusteko froga bila saiatu zirela salatu du, gauzak ez direla horrela egin behar ohartaraziz. Zantzuetatik ondorio «arrazionalak» atera behar direla dio, «zientziaren eta esperientziaren logikari erantzunez». «Ez du arbitrarioa, absurdoa eta funts gabea izan behar». Epaimahairen arabera, «ez da zilegi» zantzua zantzuaren gainean jarrita ateratzen den ondorioa frogatzat jotzea, eta «horixe gertatzen da autoan, ikusi dugunez, akusaziozko tesiarekin».

Epaiak jasotzen duenez, «herri akusazioek oinarria hartzen duten gertaera eta datuak ez daude modu zuzenean frogatuta, zantzuek bi zentzu dituzte eta auzipetuen mesedetarako interpretazioak ere onartzen dituzte».

Hala, euskararekin eta euskal kulturarekin lotura duen guztia «ETAk sustatzen eta kontrolatzen duelako ikuspegia» okerra dela dio. «Horrek datuak eta gertaerak oker interpretatzea eta inputazioa funtsik gabea izatea ekarri du». Akusazioen abiapuntuaren «ahultasuna» nabarmena dela dio, izan ere, ETAk bere helburuak betetzeko pertsona fisikoak erabiltzen dituela esateaz gain, frogatu egin behar baita, akusatuak beren erabakiz aritu zirela erakunde armatuari laguntzen.

## Auzipetuen deklarazioak

Epaimahaiak azpimarratzen du epaiketan akusatu guztiek ukatu zutela ETArekin loturarik zutenik. Ontzat ematen ditu *Egunkaria*-ren sorrerari eta zuzendarien aukeraketari buruz akusatuek eta lekukoek epaiketan esandakoak. Gainera, aipamena egiten die tortura testigantzei. Auzipetuek xehetasun handiz egin zuten beren tortura testigantza auzi gelan, eta horrek izan du eraginik. Epaimahaiak, torturei buruzko erabakirik ezin duela hartu ohartarazi ostean, auzipetuen salaketak «nabarmentzekoak» direla dio, eta auzitegiko medikuek egindako txostenekin bat datozela. Hori kontuan hartuta, inkomunikazioan «kontrol judizial nahikorik» ez zela bermatu dio.

## Txostenek izaera perizialik ez

Akusazioek aurkeztutako peritu txostenek izen hori ez dutela merezi ebatzi du epaimahaiak. Perituak jakintza tekniko zientifikoak, artistikoak edo praktikoak izan behar dituztela ekarri du gogora, eta kasu honetan ez dela hala gertatzen: «ETAko kideei atzemandako dokumentuez eta miaketetako diligentzietan atzemandako materialaz Guardia Zibilak egindako azterketen gainean egindakoak dira [txostenak]». Gainera, «inferentziak» eta «dedukzioak» besterik ez dituzte, txostenek, epaiaren esanetan.

## Akusazioen oinarri diren agiriak

*Egunkaria*-ri buruz ustez ETAk norbaitekin egindako iritzi trukean oinarritu dira akusazioak auziarekin aurrera egiteko. Agiri horiekin ezin dela inor zigortu dio, ordea, epaimahaiak, eta haien egilea edo hartzailea auzipetueta-



Joan Mari Torrealdai, atzo, auzipetuen izenean komunikabideei adierazpenak egiten. JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS



**2003ko otsailaren 22a.** Atxilotuak Guardia Zibilaren esku zeuden bitartean, manifestazio erraldoia egin zen Donostian, *Egunkaria aurrera. Bai euskarari* lelopean. Erabat kolapsatu zen hiriburua. IMANOL OTEGI / ARGAZKI PRESS



**2003ko otsailaren 23a.** *Egunkaria*-ko langile ohiek egunero egiten zituzten batzarrak. Talde ugaritan antolatu ziren gertatutakoaren berri emateko, elkartasuna bideratzeko, eta egunkari berria martxan jartzeko. BERRIA



**2003ko otsailaren 26a.** Bost egun inkomunikatuta egon ostean, Goia zena, Otamendi, Gomila eta Lazkano libre atera ziren. Soto del Realetik atera bezain pronto, atarian bertan, tortura gogorrak salatu zituen Otamendik. BERRIA

ko inor denik ezin dela esan. «Froga hau ez da nahikoa inputazioei eusteko».

Txomin Aizpuruari atzemandako agiriez esaten du paper horietan dagoen informazioa ez dela zuzena, eta idatzi duenak informazio zuzena ez duen seinale izan daitekeela hori. Alvarez Santacristinari atzemandakoetan etakideek *Egunkaria*-n zuten interesa besterik ez dela agertzen uste du epaimahaiak. Gainera, interes hori *Egunkaria*-z haratago ekologiaz eta drogaren kontrako borrokaz ere badela dio. Carmen Gisasolari atzemandako agiriak, berriz, «inputaziorako hutsalak» dira epaimahaiaren irudiko. Auzipetuen alde, zein kontra interpreta daitezkeela dio. Eta, *Garikoitzari* eta *Hontza* deituriko dokumentuei dagokionean, haiek irakurrita, epaituetako inork ETAko kideen aginduak jarraitu zituztenik ezin dela esan dio.

## Beste frogak, eskas

Kazetariek *Zutabe* aldizkariak edukitzea ez du frogatzat jotzen epaimahaiak, «kazetari askoren eskuetan» egoten direlako. *Egunkaria* Orain SAren azpiegituretan argitaratzea ere ez dela froga dio, «enpresa irizpideen arabera hartutako erabakia» izan zelako.

Akatsak ere baditu epaiak. Esate baterako, oker jarri dute *Egunkaria*-ren itxiera data. 2003ko otsailaren 20a jarri beharrean 1998ko uztaila jartzen du, hain justu, *Egin* itxi zuten garaia. Gainera, zortzigarren puntua ere falta da epaian; zazpigarrenetik bederatzigarrenera salto egiten du.

AVT eta Dignidad y Justicia herri akusazioak dira konforme geratu epaiarekin, eta, jakinarazi dutenez, Espainiako Auzitegi Gorenean helegitea jartzeko aukera aztertzen ari dira.

@ *Egunkaria auziari* buruz zuzeneko saio berezia egingo du BERRIA TB-k, gaur 11:15ean hasita. Auzipetuen prentsaurrekoa emango dute besteak beste:
**www.berria.info/egunkaria**



## Sententziaren pasarte nagusiak

**'Egunkaria'-ren itxiera**

■ «Ez da frogatu sozietatearen kapitala edo bestelako baliabideak legez kanpo jasoak zirenik. Orobat, ez da frogatu argitalpen sozietateak edo egunkariak dirurik edo inolako aktiborik bidali edo eman zionik ETA talde terroristari».

■ «Gure legediaren arabera, nekez onar daiteke eguneroko komunikabide inprimatu bat aldi baterako ixtea kautelazko neurri gisa».

■ «*Euskaldunon Egunkaria*, garai hartako euskarazko kazeta bakarra, behin-behinean edo kautelaz ixteak ez zuen heldulekurik Konstituzioan, eta ez zegoen bestelako lege berezi edo berariazkorik horretarako biderik ematen zuenik. Bestalde, zigor kodearen 129. artikulua ez da oinarri segurua eta ez da aski horrelakorik egiteko; izan ere, kazetak ez dira, esan dugunez, beste zernahi enpresa bezalakoak».

**Gertaerak**

■ «Frogatutzat jotako gertaerak ez dira arau-hauste penalak».

**Zantzuen azterketa**

■ «Ez da zilegi aztarna bat frogatutzat ematea beste aztarna batzuetan oinarrituta; izan ere, indukzio multipleak espekulazioa dakar, arrazoizko hipotesien kopurua dela eta. Horixe gertatzen da autoan, ikusi dugunez, akusaziozko tesiarekin».

■ «Euskararekin eta euskarazko kulturarekin zerikusia duen oro ETAk sustatzen eta kontrolatzen duelako ikuspegi estu eta okerrak berekin dakar datuak eta gertaerak oker interpretatzea auzibideetan, eta inputazioa funtsik gabea izatea».

■ «Begi bistan dago zein ahula den akusazioaren abiapuntua. Izan ere, zigor zuzenbidearen arloan ez da aski talde kriminal batek —kasu honetan, ETAk— pertsona fisikoak edo juridikoak erabiltzea bere proiektu kriminalean; aitzitik, egiaztatu beharra dago erabilitako pertsona horiek —kasu honetan, akusatuek, egunkariaren kudetzaile eta zuzendari ziren aldetik— jakinaren gainean eta nahita lagundu ziotela talde terroristari, hark bere helburuak lor zitzan».

**Frogen balorazioa**

■ «Gure esku jarritakoek ez dute ezer frogatzen, non eta ez diren aztertzen aurrejuzgu hutsetan oinarriturik.
Modu bakarra dago aztarna gisa aurkezturiko horiek ezertaz akusatzeko balio dezaten: aldez aurretik finkaturiko abiapuntutzat hartzea lotura bazegoela ETAren eta *Euskaldunon Egunkaria*-ren artean. Eta, hala balitz ere, ez litzateke hipotesi bakarra, ez/edo beste hipotesiak baztertzeko modukoa ere».

■ «Akusazioetan, atzekoz aurrera egin dute indukzio prozesua. Lehenbizi, erabaki da zein den ondorioa, eta esan da, oinarririk gabe esan ere, ondorio hori eztabaidaezina dela; gero, seinale, zantzu eta aztarna bila hasi dira; eta, azkenik, arbuiatu egin da ondorioarekin bat ez datorren ezein esplikazio».

**Tortura**

■ «Epaituen deklarazioei dagokienez, nabarmentzekoa da inkomunikazio aldian jasaniko tratu txarren eta torturei buruz epaituek eginiko salaketak bat datozela auzitegiko medikuek atxilotze zentroetan haiek aztertu eta gero eginiko txostenekin —ahozko saioan xehe kontatu zituzten tratu txar horiek, eta, hori baino lehenago, instruktorearen aurrean ere bai, eta epaitegietan salatu zituzten—. Nolanahi ere, Auzitegi honek ezin du ondorio juridikopenalik izango duen konklusiorik egin horretaz, baina egiaztatu du ez zela nahikoa eta behar bezala kontrolatu nolakoa izan zen inkomunikazio aldia».

**Perituen txostenak**

■ «Txosten horiek, hain zuzen, informazioa aztertzeko —edo, esapide oker batez esanda, inteligentziako— peritu-froga izan zitezen proposatu eta onartu ziren. Baina ez dira hori izan. [...] Izan ere, txosten horiek ez dute merezi izen hori, ez baitira osatu Auzitegi honi arrotz zaion inolako ezaguera tekniko-zientifiko, artistiko edo praktikotan oinarriturik».

■ «Leitzarango autobiaren lehen ibilbidearen kontra zeudenak, bistan denez, ez ziren horregatik ETAkoak, eta, orobat, ez dira ETAkoak euskaraz hitz egin eta idazten dutenak, euskal kultura autoktonoa zaindu eta bultzatzen dutenak edo drogen eta torturen kontra daudenak».

■ «Azterturiko dokumentu guztien inguruan egin daiteke, akusazioen aldera ahalik eta gehien lerroturiko ikuspegian oinarrituta ere, bestelako interpretazio bat, zeinaren arabera akusazioen ondorioa nahasgarria baita, eta, beraz, auzipetuen alde egin beharra dago. Eta dokumentuak defentsen ikuspegitik aztertzen baditugu, denak dira bateragarriak akusatuak errugabetzen dituzten interpretazioekin. Beraz, bide batetik zein bestetik, froga horiek ez dira nahikoa akusazioari eusteko, edo baztertu egiten dute akusazioa».

**Ondorioak**

■ «Azken batean, akusazioek ez dute frogatu auzipetuek inolako harremanik dutenik ETArekin, eta horrek berekin dakar absoluzioa, aldeko erabaki guztiekin».

■ «Baina, gainera, ez da egiaztatu, ez zuzenean eta ez zeharka, *Euskaldunon Egunkaria*-k talde terroristaren ideien alde egin izana, terrorismoaren edo terroristen aldeko artikulu bakar bat argitaratu izana, edo haren ildo editoriala alde batera makurtu izana; gainera, azken hori ez litzateke delitu izango. Aitzitik, peritu gisa aurkezturikok guardia zibilek aitortu zuten ez zela ikertu ea egunkariaren ildoa ETAren aldekoa zen ala ez, eta horrek ulertezin egiten du inputatu izana».

@ Epaia osorik irakurtzeko, eta beste hainbat xehetasunetarako, egin klik ondorengo helbideetan:
**www.berria.info/egunkaria**
**www.egunkaria.info**



**2003ko martxoaren 7a.** Eusko Legebiltzarrean *Euskaldunon Egunkaria*-ren itxierari buruzko eztabaida egin zuten, adostasunik lortu gabe. Han izan ziren *Egunkaria*-ko langile ohiak ere, elastiko urdin eta guzti. JUANAN RUIZ / ARGAZKI PRESS



**2003ko martxoaren 12a.** Bartzelonako Pi-ko Andra Maria elizan bizitakoaren testigantza eman zuen Martxelo Otamendik. Leporaino bete zen eliza, eta elkartasun handia jaso zuen *Egunkaria*-k. BERRIA



**2003ko martxoaren 13a.** Zortzi euskal sindikatuk deituta, *Egunkaria*-ren itxiera salatzeko elkartasun eguna eta lan uztea egin ziren. Bilboko Casilla frontoian egin zuten ekitaldi nagusia. LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS

# «Poza eta lasaitasuna»

'Egunkaria auziko' bost auzipetuek pozez hartu dute absoluzioa, eta lasaitua eman die, baina argi dute ez duela gertatutakoa ezabatzen.

**Xan Harriague**

Zaila da auzipetuek absoluzioaren berri izan dutenean izan duten sentsazioa deskribatzea. Horrela diote Joan Mari Torrealdaik, Txema Auzmendik, Iñaki Uriak, Xabier Oleagak eta Martxelo Otamendik. Espainiako Auzitegi Nazionalak haiek absolbitzea erabaki zuela prentsaren bidez jakin dute. Baina epaia ikusi arte ez zuten guztiz sinesten. Azkenean poza izan da nagusi. Poza eta maila pertsonalean erabakiak ematen dien lasaiatsuna. Atzoko eguna senide eta lagunekin gozatzeko nahi zuten, eta gaurtik aurrera emanen diote jarraipena gai horri. Haien intepretazioa egiteko eta hemendik aurrera hartuko dituzten neurriak iragartzeko prentsa deitu dute Martin Ugalde kultur parkera. Hala ere, lehen unetik aukera baliatu nahi izan dute elkartasuna eta babesa agertu dieten guztiei eskerrak emateko, eragileei zein herritar guztiei.

Oleagak argi dauka euskal gizartearen erantzuna eman duena bezalakoa izan ez balitz epaia bestelakoa izanen zela. Auziaren edukiak aztertzean ezinbestekotzat jotzen du testuingurua begiratzea, eta, horrenbestez, erabakakigarria izan da, haren ustez, herritarrek eta eragileek zazpi urte hauetan erakutsi duten jarrera. «Absoluzioak ez du Auzitegi Nazionalak jarri, baizik eta euskal gizarteak».

Oleagak dio absoluzioak «zama bat» kendu diola gainetik, eta Uriak, berriz, «behar zuten berria» azkenik iritsi dela. Auzmendik ere pozez hartu du Auzitegi Nazionalaren erabakia, baina dudak ditu «irabazi» dutela erratean. Agian ez zaio hitz egokiena iruditzen. Otamendik zein Torrealdaik ez zuten sinetsi epaia sinatuta ikusi arte. Are gehiago, berria zabaldu zenetik orduak pasatu baziren ere, Torrealdaik sinesgaitz jarraitzen zuen. «Uste dut datozen orduetan barneratuko dudala zer esan nahi duen horrek».

Oleagak, berriz, uste du kontrakoa gertatuko dela. *Egunkaria*-ko lankide ohien babesa jaso berritan, une gozoa zela zioen. Baina berak ere ez du euforian erori nahi izan. «Auzitegi Nazionalak absolbitu gaitu, baina ez da ahantzi behar berak itxi zuela *Egunkaria* duela zazpi urte, berak inkomunikatu gintuela bost egunez, berak ahalbidetu zuela tortura, eta nire kasuan berak eduki ninduela zortzi hilabetez kartzelan». Horregatik, hitz egitean, Oleagak, poz gisa azpimarratzen du «zazpi urtez injustizia handi baten biktima izanaren sentsazio sakona». Horren harira, argi dauka auzi honetan biktimak badaudela, baita errudunak ere. «Badakigu zeintzuk diren batak eta zeintzuk diren besteak».

### Indarrak hartu

Otamendi ere pozik zegoen atzo, absoluzioa bost auzipetuetatik baino askoz haratago doalako, haren erranetan. «Gaur *Egunkaria*-ren mundua absolbitu dute, langileak, akziodunak, erosleak, torturak salatu ditugunean guregan konfiantza izan duen jendea». Unea aprobetxatu eta indarrak hartzeko baliatu behar dela uste du, batetik, ziur baitago akusazioak helegitea jarriko duela Auzitegi Gorenean, eta, bestetik, auzi ekonomikoak aurrera jarraitzen duelako, iruzur fiskalaren akusazio soilarekin bada ere.



Joan Mari Torrealdai eta Iñaki Uria, Uriaren gurasoekin, atzo, Martin Ugalde kultur parkean. J.C. RUIZ / ARGAZKI PRESS

# Auzi bidegabea



**Analisia**
Pello Urzelai

Ez zuen gertatu behar izan. *Eskaldunon Egunkaria* ez zuten itxi behar izan. *Egunkaria*-ko inor ez zuten atxilotu eta torturatu behar izan. Epaiketa bera ez zuten egin behar izan. Horixe ondorioztatu ahal da Auzitegi Nazionaleko Zigor Salak *Egunkaria auziaz* emandako epaia irakurrita. Auziak berak ez zuen gertatu behar, baina, aitzitik, zazpi urte luze iraun du —eta oraindik ez da amaitu, epaia finkoa ez delako eta auzi ekonomikoa konpondu gabe dagoelako—, eta denbora horretan neurtu ezin den kaltea egin du.

Epaia argia da, koplarik gabekoa. Lehenik eta behin, *Euskaldunon Egunkaria* itxi izana auzitan jarri du. Tribunalaren ustez, Espainiako Konstituzioan ez zuen helduleku zuzenik, eta Zigor Kodearen 129. artikuluaz baliatzeak ez zuen behar besteko oinarririk. Epaiak argi utzi du *Egunkaria*-ren argitalpenarekin deliturik egiten ez zenez —eta horrela frogatu da ahozko epaiketan—, ez zela eten behar haren argitalpena.

Akusazioak, azken batean, espekulazioak baino ez ziren. Kritika gogorra egin die epaimahaiak akusatzaileei. Zuzenean Dignidad y Justicia eta AVT elkarteei, eta, zeharka, benetako akusatzaileari, Guardia Zibilari. Adibidez: «Akusazioetan, atzekoz aurrera egin dute indukzio prozesua. Lehenbizi, erabaki da zein den ondorioa, eta esan da, oinarririk gabe esan ere, ondorio hori eztabaidaezina dela; gero, seinale, zantzu eta aztarna bila hasi dira; eta, azkenik, arbuiatu egin da ondorioarekin bat ez datorren ezein esplikazio». Kritika horrek berebiziko garrantzia du *Egunkaria auziaz* haratago, Barne Ministerioko akusatzaileen jarduteko modua bera auzitan jartzen duelako. *Egunkaria auzia* kate luze bateko kasu bat gehiago baino ez baita.

Torturen kasuan ere, salaketa utzi du epaiak. Del Olmo epaile instruktoreak izandako jarrerak nabarmen utzi du: «Ez zen egon inkomunikazioaren baldintzen kontrol judizial nahikorik, ezta eraginkorrik ere».

Horrez gain, Guardia Zibilaren perituen aldetik dokumentuak era maltzurrean interpretatzeko joera ere auzitan jarri du epaiak, kasu askotan akusazioen dokumentu horiek akusatuak errugabetzeko balio zutelako.

Epaiak absoluzioa ekarri du, eta auzi hau erabat bidegabea zelako uste sendoa berretsi du. Baina, berez, ez du bermatzen bidegabekeria amaitzea, ezta horrelako auzirik ez errepikatzea ere.



**2003ko urriaren 16a.** Martin Ugalde Kultur Parkearen eta *Egunkaria*-ren enpresa taldearen kontrako operazioa egin zuen Guardia Zibilak, eta zortzi lagun atxilotu zituen, Del Olmok aginduta. JON URBE / ARGAZKI PRESS




**2003ko urriaren 18a.** *Gora Euskal Herri euskalduna. Bai euskarari* lelopean manifestazioa egin zuten Donostian milaka lagunek, bigarren polizia operazioa salatzeko. Euskalgintzak antolatu zuen. GORKA ESTRADA / EFE



**2003ko urriaren 21a.** Guardia Zibilaren esku inkomunikatuta bost egun pasatu ostean, epaileak libre utzi zituen atxilotuak. Gauza bera egin zuen bezperan atxilotu zuten Eneko Etxeberria abokatuarekin ere. ANDONI CANELLADA /ARG



Harreraren ostean bokadua jateko aukera izan zen. J.C. RUIZ / ARP

# Behingoagatik, berri on bat

Ohi baino jende eta mugimendu gehiago dela ailegatu da absoluzioaren albistea BERRIAren Andoaingo erredakziora. Txaloak eta besarkadak. Zazpi urteko ezinegona eta tentsioa, poz bihurtu dira, azkenean. Gertatua ahaztu gabe.

**Lierni Alkorta** Andoain

Azkenean iritsi da, hainbeste urtez itxaron eta amestutako absoluzioa. Letra lariz, absoluzioa. Bost auzipetuentzat, guztientzat. Eguerdirako espero da epaiaren berri izatea, eta ordurako ohi baino mugimendu eta jende gehiago dabil, hara eta hona, BERRIAren Andoaingo erredakzioan. Urduritasuna, tentsioa... Guztiak izan daitekeen berririk onenaren zain.

*El Mundo* egunkariaren edizio digitala izan da absoluzioaren berri ematen lehenetarikoa. Orduantxe hasi da erredakzioan zurrumurrua ugaritzen: «*El Mundok* dio absolbitu egin dituztela!». Jendea, apurka, Martxelo Otamendiren bulegora hurbiltzen ari da. Hark baieztatu du berria. Absolbitu egin dituzte. «Bai, bai, absolbitu egin dituzte!».

Besarkadak, zorionteak, malkoak, telefono deiak eta mezuak. Egiteko guztiak utzi, eta Otamendiren bulegoko atearen inguruan bildu da jendea. Ia ordubete luzez solas eta barre hotsa izan da nagusi erredakzioan. Apurka bazkaltzera doa jendea, albiste onak albiste, astelehena baita: lan eguna.

## Bigarren ospakizuna

Arratsaldean izan dute jarraipena ospakizunek, besarkadek eta zorion agurrek. Hala, ezohiko argazkia sortu da, Andoaingo Martin Ugalde Kultur Parkean. *Egunkaria*-ko langile ohiak, auzipetuen senideak, BERRIAko langileak... Guztiak batu dira bost auzipetuei lehen harrera egin eta albistea ospatzeko. Hedabide ugaritako kamera, mikrofono eta grabagailuak ere etorri dira harrerara. Handia da ikusmina.

Argazkiak badu 2003ko otsailean, *Egunkaria* itxi orduko egindako argazkiekin ezberdintasunik. Aurpegi serioak ez, baina, irribarrea eta poza guztien begietan. Orduko injustizia eta amorrua —oraindik erabat amaitu ez dena— presente dira, ordea. Berriro, besarkadak eta txaloak.

Aspaldi elkar ikusi gabekoen elkargune ere bihurtu da arratsaldeko ospakizun txikia. Eta argazki horrek ere badu duela zazpi urtekoarekin alderik. Orduan langile zirenek bisitarako ere baliatu dute eguna. Zazpi urte gazteago ziren, eta Guardia Zibilak *Egunkaria* itxi zuenean jaio ere egin gabe zeuden seme-alabak hartuta etorri dira hainbat Andoainera. Zazpi urte, zazpi baitira. Zazpi urte joan baitira auzipetuentzat ere.

Orduko ezinegon eta amorruari, beste sentipen batzuk garaitu zaizkio oraingoan. Zazpi urte luzez, esna nahiz lotan itxaron, desio eta amestutako sentipenak.

# Auzi ekonomikoan gertatuko denari so

**O. Elduaien**

*Egunkaria*-ko sumario nagusiko epaiketa egin den arren, auziarekin lotutako beste epaiketa bat egiteko dago oraindik: auzi ekonomikoa. Joan Mari Torrealdai, Txema Auzmendi, Iñaki Uria, Joxe Mari Sors, Mikel Sorozabal, Begoña Zubelzu, Fernando Furundarena eta Ainhoa Albisu daude auzipetuta. Irregulartasun ekonomikoak egitea egozten die haiei Eloy Velasco Espainiako Auzitegi Nazionaleko epaileak. Zehazki, diru kontuak faltsutzea, zerga iruzurra egitea eta diru laguntzen iruzurra egitea leporatzen die. Guztira, 184 urteko espetxe zigorra eta 235 milioi euroko isuna eskatzen dute akusazioek zortzi auzipetuentzat.

Guztiak delitu ekonomikoak diren arren, epaiketa Espainiako Auzitegi Nazionalean egitea erabaki zuten, eta hasiera data jartzea besterik ez da falta hura hasteko. Nolanahi ere, epaiketa hori Tolosako Auzitegian egitearen alde lanean aritu da defentsa, «terrorismo delituekin» zerikusirik ez duenez, Auzitegi Nazionalak epaiketa egiteko eskuduntzarik ez duela argudiatuta. Fiskaltzak ere bat egiten du defentsaren eskaerarekin, eta halaxe agertu zuen akusazio idatzia aurkeztu zuenean ere. Aurretiazko gai gisa, epaiketa Tolosan egitearen gaia jarri zuen Fiskaltzak, eta defentsak ere gauza bera egin zuenez, epaiketako aurreneko egunean horri buruzko erabakia hartu beharko du epaimahaiak beste ezeren aurretik.

Auzi honetan ere bada herri akusaziorik. Sumario Nagusian Dignidad y Justicia eta AVT elkarteek osatzen zuten akusazio hori, eta auzi ekonomikoan, Dignidad y Justicia elkarteak.

Guardia Zibilak Martin Ugalde Kultur Parkearen kontra 2003ko urriaren 16an egindako polizia operaziotik dator *Egunkariako auzi ekonomikoa* deiturikoa. Bederatzi lagun atxilotu zituzten operazio hartan, eta *Egunkaria*-rekin zerikusia zuten hainbat enpresa miatu zituzten.



**2003ko abenduaren 1a.** *Egunkaria*-ren egoitzak berriz arakatu zituzten, Egunkaria SAren fakturak eta agiriak banan-banan aztertzeko. Argazkian ageri den Juan del Olmo epailea ere bertan izan zen. LUIS MICHELENA / EL DIARIO VASCO



**2004ko abuztuaren 4a.** Iñaki Uria *Egunkaria*-ko kontseilari ordezkariari ongietorria egin zioten Andoainen. Uria izan zen *Egunkaria auziagatik* preso denbora gehien eduki zuten pertsona. JON URBE / ARGAZKI PRESS



**2004ko abenduaren 3a.** Auzipetuak Espainiako Auzitegi Nazionalean izan ziren, auzipetze autoa jasotzeko. Euskal Herritik babes talde handia joan zen Madrilera, haiei lagundu eta elkartasuna agertzeko. ALVARO GARCIA

## «Estatuak bidegabekeria honen ondorioak konpondu behar ditu»

### Iñigo Urkullu

EAJko EBBko presidentea

***Egunkaria auziko* bost auzipetuak zoriondu ditu Iñigo Urkullu EAJko buruak. «Hiritar guztiekin, eta ez soilik euskal herritarrekin, partekatzen dugun poza erakutsi nahi dugu». Hala ere, Urkulluk auziaren ondorioen inguruko kezka azaldu eta erantzukizunak eskatu ditu: «Ezinbestekoa da Estatuak bidegabekeria honek esparru pertsonal, sozial eta ekonomikoan eragin dituen ondorioak konpontzea. Ez dute gutxiago merezi epaituek eta *Egunkaria*-ko langileek». Urkulluren ustez, «onartezina» da estatu demokratiko bateko Justiziak tamaina horretako ondorioak eragitea eta instrukzioa baino lehenago ebazpena ematea ahalbidetzea. «Komunikabide bat itxi dute, tortura salaketak izan dira, adierazpen askatasunari zentsura ezarri zaio, zazpi urteko prozesua izan da... Eta hau guztia estatu demokratiko batean gertatu da», salatu du.**

## «Auziari buruz pentsatzen genuena berretsi du epaiak»

### Jose Antonio Pastor

PSE-EEko eleduna

Auzitegi Nazionalaren epaiagatik pozik agertu da PSE-EEko bozeramaile Jose Antonio Pastor. «Sozialistok auziari buruz pentsatzen genuena berretsi du ebazpenak, eta erakusten du Espainian Justiziak funtzionatzen duela eta bermeak dituela». Epai horrekin sekula ireki behar izan ez zen auzia itxi egin dela erantsi du, gainera. Halaber, ebazpenaren edukiari aipamen egin dio Pastorrek, eta azpimarratu du frogatutzat eman dela bost auzipetuek ez zutela harremanik izan ETArekin eta *Egunkaria*-ren itxiera ez zegoela oinarrituta. Horrez gain, PSE-EEko ordezkariak uste du *Egunkaria*-ko akziodunek eta epaitutako bost lagunek kalte-ordainak eskubidea dutela, batez ere kazetaren itxiera Espainiako Konstituzioaren aurkakoa izan zela diolako epaiak. PSE-EEk gogorarazi du auzitegien erabakiak errespetatzen dituela, baita epaia bestelakoa izan balitz ere.

## «Epaian adierazitako printzipioekin guztiz ados gaude»

### Eusko Jaurlaritza

**Pozarren jaso du epaia Jaurlaritzak, *Egunkaria*-ko auzipetuak errugabetzat jo dituztelako. Ohar batean adierazi du epaian adierazitako printzipioekin guztiz ados dagoela, besteak beste, informazio eta adierazpen askatasunak «estatu demokratiko» baten oinarriak direlako. Hala, eskubide horien edozein urraketek ezin dutela komunikabide baten behin betiko itxiera ekarri ohartarazi du. Horrez gain, Jaurlaritzak adierazi du esperantza duela absoluzio epaiarekin «denboran nahi baino gehiago luzatu» den prozesua amaitutzat ematea. Gisa berean, azaldu du *Egunkaria*-ren itxierak kezka handia eragin duela gizartean, areago ETArekin zerikusirik ez duela frogatutzat jo denean. Bestalde, EAEko gobernuak bat egin du azken urteotan hainbat esparru politiko, sozial eta kulturalek auzipetuei «modu demokratikoan» elkartasuna adierazi dieten poztasunarekin.**




Epaiketa hasterako elkarretaratzean hainbat politikariren babesa jaso

## «Egindako minagatik erantzukizunak eskatuko ditugu»

### Eusko Alkartasuna

EArentzat «berandu» iritsi da *Euskaldunon Egunkaria*-ri buruzko epaia, eta, gainera, ebazpenak ez du egindako kaltea konpontzen. Hori dela eta, «erantzukizunak» eskatuko ditu, «egindako minagatik, orduan euskaraz argitaratzen zen egunkari bakarra ixteagatik eta absolbitu dituzten bost pertsona horiei eragin dizkieten kalteengatik; larriena, tortura salaketak». Euskal kazetaren aurkako prozesu osoa kritikatu du EAk, haren ustez, «ulergaitza» baita prozesuak aurrera egitea Auzitegi Nazionaleko Fiskaltzaren irizpidearen kontra eta inolako frogarik gabe *Egunkaria*-ko zuzendaritzako bost kide atxilotzea eta epaitzea.

## «Absoluzioaren ondoren, justizia egiteko unea heldu da»

### Aralar

**Pozik agertu da Aralar epaiarekin, eta bost auzipetuak zoriondu ditu. Hala ere, nabarmendu du absoluzioaren ondoren «justizia egiteko unea» heldu dela. Besteak beste, akusatuek egin zituzten tortura salaketak argitzeko galdegin du. «*Egunkaria*-ren itxierak ehunka kaltetu eragin zituen, eta, beraz, estatuak lehenbailehen kalte-ordainak finkatu eta ordaindu beharko ditu». Horrez gainera, Aralarrentzat «pozgarria da» Auzitegi Nazionalak esatea «gehiegizko neurria» izan zela atxilotu zituztenean aplikatu zitzaien inkomunikazioa eta, gainera, adierazpen askatasunaren alde egitea.**

## «Ebazpenarekin ez da inolaz ere justiziarik egiten»

### Ezker abertzalea

Ezker abertzaleak pozez jaso du *Egunkaria auziko* sententzia, baina ohartarazi du ebazpen horrekin ez dela «inolaz ere justiziarik egiten», ez *Egunkaria* eta bere langileekin, ez eta euskal herritarrekin ere. Era berean, euskal herritarrei «iseka» egitea da Espainian justiziak funtzionatzen duela esatea, ezker abertzalearen ustez. Izan ere, gogorarazi du 2003ko otsailean Espainiako Estatuak herri proiektu bat itxi zuela, aurretik *Egin*, Egin Irratia eta *Ardi Beltza*-rekin egin bezala. Berriro horrelakorik gertatu ez dadin, eskubide zibil eta politiko guztiak bermatuak izango diren «jokalegu demokratiko» bat eskatu du ezker abertzaleak.

## «Auzitegi Nazionalak salbuespenez jokatzen du Euskal Herrian»

### Maiorga Ramirez

Nafarroa Bai-ko eleduna

**Ebazpenak erakusten du *Egunkaria*-ren aurkako auzia «zentzugabekeria» izan dela eta auzitegi horrek «salbuespenez» jokatzen duela Euskal Herrian, Maiorga Ramirez NaBaiko eledunaren iritzian. Prozesu bera «zuzenbide estatuaren oinarrien aurka» doala jakinarazi du. Gainera, egindako kaltea «konponezina» dela salatu du Ramirezek: «Errugabeak diren pertsonak gaizkiletzat jo dituzte, errugabetasun ustea ez da errespetatu, eta atxilotuen eskubideak urratu dira». Auziaren xede bakarra euskal kultura eta euskara «kikiltzea» izan direla salatu du.**

## «Fiskaltzaren jarrera nahasia izan dela argi geratu da»

### Leopoldo Barreda

PPko legebiltzarkidea

«Erabateko errespetua» dio PPk Espainiako Auzitegi Nazionalak hartu duen erabakiari. Gainera, ebazpenak «zuzenbide estatuan gaudela» eta «berme guztiak» dituela erakusten duela esan du PPko legebiltzarkide Leopoldo Barredak. Justiziaren erabaki guztiak errespetatu beharrekoak direla iritzi dio Barredak. Hala ere, instrukzio fasea eta epaiketaren bilakaera ikusita, Fiskaltzak auzi horretan izan duen jarrera «nahasia» izan dela salatu du PPko parlamentariak. Horrez gain, Auzitegi Nazionalaren epaiaren inguruan interpretazio «okerrik» ez egiteko galdegin du Barredak.




**2005eko martxoaren 18a.** Egunkariaren alde babes taldea aurkeztu zuten, Bilbon. Garaikoetxea, Arzalluz, Gorostiaga, Diez, Elorrieta... hainbat alorretako pertsona ezagun ugari agertu ziren. LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS



**2005eko urriaren 19a.** *Egunkaria auzia* artxibatzeko galdegin zuten Espainiako Diputatuen Kongresuan egindako agerraldian. ERCk, NaBaik, EAJk, IUk,EAk, BNGk eta CiUk egin zuten bat eskaerarekin. A. GARCIA




**2006ko abenduaren 15a.** *Egunkaria auzia* artxibatzeko eskatu zuen Espainiako Auzitegi Naizonaleko Miguel Angel Carballo fiskalak. Auzipetuek ere bide hori jarraitzeko eskatu zioten Auzitegiari, prentsaurrekoan. J.C. RUIZ / ARGAZKI PRESS




zuten auzipetuek Gasteizen. RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS

## «Neurriak hartu beharko lirateke kaltea eragin dutenen aurka»

**Oskar Matute**
Alternatiba-ko eleduna

**Alternatibarentzat *Egunkaria*-ren itxierak eragin dituen kalteak ez dira absoluzioaren erabakiarekin konpontzen, eta, horregatik, kaltea egin dutenen aurka ekintza legalak abiatzeko eskaera egin dio Eusko Jaurlaritzari; «euskal gizarteari egindako kalteagatik, atxilotze prozesuagatik eta tortura salaketengatik» eskatu dio neurriak hartzeko. «*Egunkaria*-k zigorra bete du zigortu ez duten arren», Oskar Matute bozeramailearen ustez. Hala, «erantzukizunak» eskatu dizkie «egunkari bat itxi zutenei eta hango langile errugabeak kriminalizatu zituztenei».**

## «Amaitu da bidegabekeria absoluzioarekin»

**Eneko Oregi**
Hamaikabat-eko presidenteordea

*Egunkaria*-ren aurkako epaia ezagututa, Hamaikabatek (H1) azpimarratu du absoluzioarekin ez dela justiziarik egin eta soilik «inoiz hasi behar ez zuen ibilbide tragikoa eta bidegabekeria itsua amaitu» dela. Hala ere, H1eko presidenteorde Eneko Oregik azaldu du justizia egingo litzatekeela salaketa faltsuak egin eta sostengatu dutenen aurkako neurriak hartuko balira. «Justizia litzateke *Egunkaria* irekitzea, edo gutxienez, Estatuak dagokion kalte-ordaina ordaintzea; auzipetuek jarritako tortura salaketak ikertu, argitu eta zigortzea; eta zazpi urtean izan diren arduradunek barkamena eskatzea».

## «Estatuak barkamena eskatu eta kalte-ordainak eman behar ditu»

**Mikel Arana**
Ezker Batuko koordinatzaile nagusia

**Mikel Arana Ezker Batuko koordinatzaile nagusiak uste du «azkenean justizia egin dela», baina Espainiako Estatuari exijitu dio «publikoki barkamena eskatzeko eta kaltetuei kalte-ordain ekonomikoak lehenbailehen emateko». Ezker Batua erabakiarekin «pozik» dagoen arren, Aranak gogorarazi du inoiz ezingo dela egindako kaltea osorik ordaindu. Lanpostua galdu zuten langileak izan ditu gogoan Aranak hori esaterakoan, eta baita akusatuak ere: «ETArekin zerikusiaren akusazio faltsuen ondorioz sekulako kalbarioa jasan dute *Egunkaria*-ren buruzagiek».**

**Iritzia**



Laura Mintegi
Idazlea

# 'Egunkaria'-ren irakaspenak

Espero bezala, errugabetasuna adierazi du epaitegiak eta aske utzi ditu *Egunkaria*-ko kazetariak. Albistea poztekoa da, dudarik gabe, baina zergatik ez dugu erabateko bozkariorik sentitzen? Zerk mingosten du berria eta gustu gazi-gozoa uzten ahosabaian?

Egunkariaren kontuak nagusi egin gaitu, ispilua jarri digu begi aurrean eta egiatan nor garen ikusiarazi digu. Ez gara uste genuen jende mota hori, izaki buruaskiak, beregainak. Aliziaren herrialdean bizi eta, hesirik ikusten ez genuenez, hesirik ez zegoelako ustean jarduten genuen, aske antzera.

Espainiako Poliziaren auto urdinak Hernanin 1998an eta Guardia zibilen auto berdeak Andoainen 2003an ikusi arte. Orduan ohartu ginen zein hauskorra den 'ezer txarrik ez egiteak' eman ziezagukeen balizko babesa. Euskararen 'mundukoa' izateak eta kulturgintzan baino ez aritzeak ezin gintuen babestu bidegabekeriatik. Zeren, begi bistan geratu denez, arazoa ez baita zer egiten duzun, baizik eta nor zaren.

Ohikoak ziren, eta dira, poliziaren razziak politikari zehatz batzuen kontra edo gazte kontzientziatuen aurka. Baina pentsatzen genuen politikariak ez izateak edo lan guztia agerian eta jendaurrean egiteak geruza ematen zigula, abaroa, balen aurkako jaka bailitzan nonbait.

Eta hara non egun batean esnatu ginen ikusten ezer ez dela segurua, inor ez dagoela salbu; ez dela zigortzen zerbait egin izana, baizik eta proiektu bat edukitzea, herri gisa bizirauteko imajinario bat eraikitzea. Eta orduan ohartu ginen edozer eginda ere, areago, ezertxo ere egin gabe ere, nahikoa dela unibertso berezkoa amestea babesgabe geratzeko. Bidegabekeria? Bai, noski, eta 18/98ak eman zizkigun lehen zantzuak. Kazetariak, egunkariko zuzendaritza eta euskalgintzako langileak auziperatu zituzten froga barik. Haatik. Izate hutsak susmopean jarri zituen eta kartzelan daude egun, delituriк burutu gabe. *Egunkaria* ixtea, estrategia beraren beste pausu bat zen. Zein izan liteke hurrengoa?

Zer ikasi franko eman digu prozesu honek guztiak. Lehena, ez gaudela gure etxean, maizter bizi garela nagusiaren etxean, gure logelan aski aske sentitu arren.

Bigarrena da antzematea nor dagoen eta nor ez dagoen nazio proiektuan. Eta nor etorri den azken unean, solidario agertzea dagoeneko arriskutsua ez denean.

Hirugarrenik ikusi dugu zerk batzen gaituen eta zerk ez. Zerk metatzen duen ezberdintasunen gainetik. Euskaraz gain, badugu beste lokarririk, zantzu identitariorik, Athleticek erakutsi zigun moduan.

Hainbat gauza irakatsi digu epaiketa honek: estatuaren nahia asezina dela, hiru botereen bereizketa ez dela existitzen eta demokraziaren oinarria, beraz, usteldurik dagoela, justizia injustua dela eta taldexka batzuez baliatzen dela bere helburua betetzeko. Ikasi dugu, finean, amaren suari eusteko aitaren etxea eraiki beharko dugula, berandu baino lehen eraiki ere.

Irakasgai asko eta soluziobide gutxi. Pozik gaude, bai, baina ez gaude lasai soluzioak topatu arte eta, bereziki, 18/98koekin burutu den bidegabekeria bertan behera geratu arte.


Egunkaria
eta
sarri,
ez
bai
esker




Pintura: **Iñaki Epelde** / Testua: **Jesus Peñagarikano**



**2007ko otsailaren 2a.** Iñaki Uriaren tortura salaketei jarraituz epaiketarako bidea hartu zuen Donostiako Auzitegiak. Hala ere, auzia Madrilera eraman zuten geroago, eta iritsi bezain pronto artxibatu zuten. G. GARAIALDE / ARGAZKI PRESS



**2007ko martxoaren 29a.** Begoña Zubelzuk, Fernando Furundarenak eta Ainhoa Albisuk inputatu gisa deklaratu zuten Espainiako Auzitegi Nazionalean, auzi ekonomikoarekin lotuta. BERRIA



**2008ko otsailaren 16a.** *Egunkaria*-ren aldeko kantu jira egin zuten Donostian. Arrakasta izan zuen deialdiak, eta jendetza batu zen. Kantu jira gehiago ere egin izan dituzte, eta guztietan batu da jende asko. JON URBE / ARGAZKI PRESS

## Iritzia



Joanmari Larrarte
EKTko kontseilari ordezkaria

# Aurrera!

Emozioak negarretan jarri gaitu BERRIAko kide asko Espainiako Auzitegi Nazionalak *Egunkaria*-ko kideen absoluzioa erabaki duela jakin dugunean. Negarra emozioa, poza eta amorrua bat eginda ditugulako. Emozioa eta poza zazpi urte latzen ondoren, behingoz berri ona, oso ona jaso dugulako; eta amorrua atxiloketak, torturak, *Egunkaria* itxita, berriro zerotik abiatu beharra eta beste hainbat zorigaitz pasa behar izan ditugulako. Bai badakit, orain pozik egoteko garaia da, baina ba al dakizue zenbat sufritzea tokatu zaigun? Eta, zorionez, zazpi urteren ondoren, oraingoan, egunkariak ezin direla itxi, frogarik ez dagoela eta akusatuak zigortzeko ezer ez dagoela dio epaiak. Ez da gutxi, ikusita antzeko gainerakoetan epaia kontrakoa izan dela. Ezin ahaztu ditugu une honetan antzeko aitzakiekin itxi zituzten *Egin* eta Egin Irratia eta kartzelan dituzten bertako buruak, kalean eta lanean beharko luketenak.

Euskararen eta euskal kulturaren kontra jo nahi zuten, jo behar zuten, Euskal Herria ardazten duen oinarri nagusia delako gure hizkuntza, eta aurretik saiatutako AEKren kontrako erasoa *Egunkaria* itxi eta bertako buruak atxilotu eta torturatuz jarraitu nahi izan zuten. Eta min handia egin zuten, izugarria: atxiloketak, torturak, espetxeratzeak eta jarri beharreko berme ikaragarriak; bizitza normala egiteko ezintasun ugariak —enbargoak, pasaportea kentzea eta abar—; bidean hil ziren Martin Ugalde eta Luis Goia, absoluzioaren berri izan ez zutenak; 150 langile kalean, lanik gabe, egun batetik bestera; bizi-bizi zen proiektu sendoa oztopatuta; berriro zerotik hasi beharra euskaldunok ez bagenio uko egingo euskaraz bizitzeko eskubideari, euskarazko hedabideak izateko nahiari.

Baina, zorionez, min eta amorru hori guztia indar bihurtzen asmatu genuen beste behin, eta, horri esker, proiektu berria abiatu genuen, esku artean duzun hauxe da horren adierazgarri nagusia.

Eta hori bezain garrantzitsua dena, euskaldunok —eta gurekin batera kataluniar asko eta espainiar batzuk— zazpi urteotan izan dugun ekimena ezinbestekoa izan da epaia aldekoa izan dadin. Zazpi urteotan guztion artean sortu dugun giroa ezinbestekoa izan da *Euskaldunon Egunkaria*-ren kontrako lehen epaia absoluzioarekin bukatzeko. Alegia, absoluzio hau guztion artean lortu dugula.

Ospa dezagun, poztu gaitezen lortutakoarekin, eta indar berritu gaitezen bigarren epaiketari aurre egiteko, bidegabekeriak amaierarik ez duenez, auzi ekonomikoa oraindik zabalik baita eta epaiketaren zain. Denon indarrez lortu behar dugu zentzurik ez duen bigarren auzia ere ezerezean gera dadin, ezin delako bestela izan.

Eta, behin hasita, euts diezaiogun gure ekimenari gainerako auzi politiko guztiek ere amaiera bera izan dezaten. Erabil dezagun indar bera, Udalbiltzaren kontrako epaia ere absoluzioa izan dadin, edo ilegalizazioak ezerezean gera daitezen. 2003ko otsailaren 22an Donostian esan genuena gogoratuz, «batera ditzagun indarrak, eta egin dezagun aurrera».




Sindikatuetako ordezkariak, Bilboko Arriaga plazan, *Egunkaria auziko* auzipetuen alde egindako

## «Kulturan prestigio handia duen jendea kriminalizatu nahi zen»

**Adolfo Muñoz**
ELAko idazkari nagusia

**«Absoluzioa zen erabaki posible bakarra. Krimena egozteko inolako probarik gabeko prozedura judizial baten aurrean egon gara. Helburu bakarra euskal kulturaren alorrean prestigio handia duen jendea kriminalizatzea zen, eta, haiekin batera, gizartean babes zabala duen proiektu bat bere osotasunean kriminalizatzea. Bestalde, salatzekoa da zazpi urte hauetan zenbait erakunde politikoren eta talde mediatikoren arteko elkar-hartzea. Isilarazi, alboratu eta ezkutatu egin dituzte akusatuen aldeko ekintzak eta adierazpenak; tortura salaketak, esaterako».**

## «Nork eta nola ordainduko du eragindako kaltea?»

**Ainhoa Etxaide**
LABeko idazkari nagusia

«Euskal herritarrok argi eta garbi izan duguna baieztatzera dator sententzia, *Egunkaria*-ren itxierak Euskal Herriaren aurka aspaldidanik martxan den jazarpen estrategia bati erantzuten ziola, alegia. Gure kulturaren eta hizkuntzaren aurkako erasoa izan da, atzera bueltarik ez duena. Auzia argitu da, baina ez galdera: zer gertatuko da orain zazpi urte eta gero itxita jarraitzen duen egunkariarekin? Nork eta nola ordainduko du egindako kaltea? Non dira erantzuleak? Afera ez da hemen bukatzen. Gaur ezagutu dugun ebazpen bera izan behar du auzi ekonomikoak ere».

## «Aurrera egin eta kalte-ordainak eskatu behar dira orain»

**Jesus Uzkudun**
CCOOko lan osasunerako arduraduna

**«Bost auzipetuak absolbitu egin dituztela jakindakoan, lehenik eta behin, poza sentitu dut; zorionak ere eman dizkiet auzipetuei. Horrenbesteko sufrimendua eta kaltea eragin ondoren, gutxien-gutxienez pozgarria da horrelako sententzia bat egotea. Horretaz aparte, iruditzen zait sententziak argi eta garbi lagatzen duela zenbateraino ko kaltea egin den *Euskaldunon Egunkaria*-ren inguru hori guztia ETArena dela adierazita, oso kaltegarria izan da. Aurrera jarraitzea tokatzen da orain, eta kalte-ordainak eskatu behar dira».**



**2009ko otsailaren 25a.** *Egunkaria auzia* ixteko eskatzeko manifestu bat aurkeztuz, prentsaurrekoa eman zuten hainbat lagunek, Madrilen. Pedro Miguel Etxenike, Daniel Innerarity, Juan Ignacio Perez Iglesias... L.P. GARCIA



**2009ko maiatzaren 12a.** Joan Mari Torrealdairi, Txema Auzmendiri eta Iñaki Uriari deklarazioa hartu zien Eloy Velasco epaileak. Auzi ekonomikoarekin lotuta deklaratu zuten, han ere auzipetuta baitaude. JAVIER LIZON / EFE



**2009ko uztailaren 31.** Fiskalaren eta defentsen iritzien kontra, herri akusazioen eskari hutsez, sumario nagusiko epaiketa egitea erabaki zuen Auzitegi Nazionalak. Babesa eskatu zioten auzipetuek gizarteari. MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS



elkarretaratzean, joan den otsailaren 12an. MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS

## «Arrazoia eman arren, 'Euskaldunon Egunkaria'-k itxita jarraitzen du»

**Mikel Astarloza**
Txirrindularia

**«Ez dago pozik egoteko arrazoirik, gertatu behar ez zuen zerbait gertatu zelako. Orain beste kolpe bat izango zen berri txarra jasotzea, baina gertatu behar zuena gertatu da azkenean. Alde horretatik, epaitegiak zuzen jokatu du, baina, berriz diot, ez dago pozik egoteko arrazoirik. Arrazoia ematea zen egin zezaketen gutxienekoa, eta horixe egin dute. Baina ezin da ahaztu auzipetuek jasan duten tratu eta esperientzia txar hori. Eta ezin da ahaztu, era berean, orain arrazoia eman arren, *Euskaldunon Egunkariak* itxita jarraitzen duela. Hausnarketa hori ere egin behar da.**

**Horrelako kolpeak oso pertsonalak izaten dira, eta osooso gertutik bizi izan dutenek sufrituko zuten gehien. Baina argi dago gizarteak babes handia eman diela auzipetuei, eta poztekoa da hori, nahiz eta hori zen Euskal Herriak egin zezakeen gutxienekoa».**

## «Operazio hartan gure aurka ere egin zuten; mingarria izan zen»

**Koldo Tellitu**
Ikastolen Elkarteko lehendakaria

«Epaia ez dut bere hartan ezagutzen, ez dut irakurtzeko aukerarik izan, baina poz handia sentitu dugu ebazpenaren berri izatean. Poza bikoitza da: auzipetu guztiak absolbitu egin dituztelako eta zehazki Xabier Oleaga absolbitu egin dutelako. Gure etxekoa da Oleaga, eta zama astuna kendu du gainetik. Esan bezala, ez dakit epaileak zer argudio eman duen, baina euskalgintza eta ETAren arteko ustezko lotura hori ezin frogatuzkotzat jo badu, poza are handiagoa izango da. Prozesua bidegabea izan da hasieratik beretik. Herrigintzari loturiko euskalgintza ETAren mendekotzat hartu dute, Administrazioaren babesik ez duen euskalgintza jomugan jarriz. Hori astakeria da hasi eta buka. 2003ko operazio hark *Euskaldunon Egunkaria* kolpatu zuen nagusiki, baina gau beltz hartan geure egoitza nagusira ere sartu ziren, gure aurka ere egin zuten. Oso mingarria izan zen».

## «Haserre nago. Nork ordainduko du egindako kalte guztia?»

**Pablo Muñoz**
'Diario de Noticias'-eko zuzendaria

**«Izugarrizko gehiegikeria izan da hau guztia hasieratik, prozesu erabat lotsagarria. Jakina, poz-pozik nago denak absolbitu dituztelako, baina beste behin ere ikusi dugu zer-nola jokatzen duen Espainiako Justiziak. Lotsagarria da tankera horretako ezer gertatu ahal izatea gaur egun. Euskal herritarrak Justizia mota horren pean loturik egotea onartezina da. Egia esan, haserre nago. Zeinek ordainduko du egindako kalte guztia? Kaltea ez diote *Euskaldunon Egunkaria*-ri bakarrik egin, euskal gizarte osoari baino. Nork hartuko du bere gain erantzukizuna? Duela lau urte Garzonek atxilotu ninduen, eta bi urtera absolbitu. Baina inork ez dit barkamena eskatu... Hemen ere berdin gertatu da. Alde horretatik, erruduntasunaren ezpatak seinalaturik hil diren auzipetu biak gogora ekarri nahi nituzke: Martin Ugalde eta Luis Goia».**

## «Munduko beste tokietan halakorik ez da gertatzen»

**Lore Erriondo**
UEUko zuzendaria

«Absolbitu egin dituzte bost auzipetuak, eta ezin zen bestela izan. Orain artekoa kondena izan da, kondena bidegabea eta gainera zazpi urte iraun duena. Orain haiek ere frogatu dute *Egunkaria* ixtea bera bidegabekeria hutsa izan zela. Eskerrak herri honetan erreflexuak dauden oraindik, eta jendeak atera ahal izan duen BERRIA. Munduko beste tokietan halakorik ez da gertatzen; ez, behintzat, mundu zibilizatu demokratikoetan. Sekulakoa da egunkari bat horrela ixtea, eta hainbeste pertsona epaiketarik gabe kondenatuta edukitzea.
Bazen garaia absoluzioa etortzeko».

## «Herri honetan, beren lana egiteagatik oraindik kazetariak preso daude»

**Josu Juaristi**
'Gara'-ko zuzendaria

**«Oso-oso erabaki positiboa da absoluzioa, nahiz eta jakin oraindik ez dela dena bukatu eta auzi ekonomikoa ere hor dagoela. Oso positiboa da, orain arte ez bezala, hasierako aurreiritziak eta ia-ia aurre erabakiak desmuntatu egin dituelako epaileak. Baina poz handiko momentuak badira ere, justu horrexegatik, komeni da gogoraraztea bai *Egin*-en kasuan eta bai *Euskaldunon Egunkaria*-renean egindako bidegabekeriak konponezinak direla. Era berean, gogoratu behar da, herri honetan, beren lana egiteagatik oraindik kazetariak preso daudela».**

## «Ezin da egun batetik bestera zazpi urteko min guztia konpondu»

**Unai Larreategi**
EHE

«Auziaren ebazpena albiste ona da, baina era berean, ezin gara poztu. Kaltea eginda dago. Ezin da egun batetik bestera zazpi urte luzez egindako min guztia konpondu. Ezin da batbatean *Egunkaria*-ren inguruan sortu eta hedatu den irudi kriminalizatua iritzi publikotik ezabatu. Ezin dira torturak gertatu ez balira bezala onartu, eta, batez ere, ezin da zazpi urte hauetan *Egunkaria* falta izan zaigun egun bakar bat ere berreskuratu. *Egunkaria*-k itxita segitzen du. Absoluzioak kaltea handitzea ekidin du, baina halako erasoak ez errepikatzeko lehen lerroan egotea dagokigu euskaltzaleoi».

## «Argi dago beste ezer baino lehen auzi ideologikoa izan dela»

**Alberto Surio**
EITBko zuzendaria

«Poz handia sentitu dut *Egunkaria auziko* epaiaren berri izan dudanean. Komunikabide baten aurkako prozesu hau oso luzea izan da, eta hasiera-hasieratik adierazi nuen batean eta bestean auzi honen aurka nengoela. Argi dago beste ezer baino lehen auzi ideologikoa izan dela, frogarik ez zeukatela. Epaiketan ere garbi geratu da hori, eta absoluzioa zen aukera bakarra. Martxelori [Martxelo Otamendi] berari mezu bat bidali diot zorionak eta babesa emanez. Tarte honetan gaizki pasatuko zuten, baina asko pozten naiz dena ondo amaitu dela ikusita».

## «Zuzenbide Estatuak ez du behar bezala jardun auzi honetan»

**Iñaki Goirizelaia**
EHUko errektorea

«*Euskaldunon Egunkaria* ixtea ulertezina iruditu zitzaidan. Euskarazko egunkari bakarra zen, egunero irakurtzen genuen, eta indarrez itxi zuten. Orain epaiak dio ez zegoela hartarako arrazoirik. Poza sentitzen dut, zazpi urteren ondoren prozesu bidegabe horri amaiera eman zaiolako. Baina auzi honetan ez du ondo jardun Zuzenbide Estatuak, eta eragindako kaltea guztiz konpondu bitartean ezin go da esan ondo jardun duenik. Auzipetuek bakarrik dakite zer sufritu duten —kartzelan ere egon dira— baina haiengandik aparte ere irakurle asko utzi zituzten egunkari gabe, eta langile asko lanpostu rik gabe».



**2009ko azaroaren 6a.** Musikari eta diskoetxeek *Egunkaria libre!* elkarretaratzea egin zuten Donostiako Bulebarrean. Epaiketa amaitu aurreko sei hilabetetan astero egin zen elkarretaratzea hainbat esparrutako jendearekin. J.C.R. / ARG



**2009ko azaroaren 28a.** *Egunkaria libre!* lelopean, kantaldia egin zuten Kursaalean. Hainbat musikarik hartu zuten parte, eta leporaino bete zen kubo handia. Elkartasuna jaso zuten auzipetuek. ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS



**2009ko abenduaren 6a.** *Egunkaria* sortu zeneko 19. urteurrenean, *Egunkaria libre* elkarretaratzea egin zuten Durangoko Azokan. Hainbat erakusmahai itxi egin zituzten elkarretaratzearen garaian. LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS

## Iritzia

Joxe Azurmendi
Filosofoa eta idazlea



# Pozaren eta amorruaren eguna

Zer ikusi eta ikasi dugun aipatzen hasita, hainbat puntu datorkit orain burura bat-batean. Positibotik hasita:

Bat: akusatuen buruargitasuna situazioa baloratzeko. Kemena, gero, desastreari buru egiteko. Injustiziaren eta brutalitatearen aurrean ez dira kikildu. Baina protestatu eta biktima gelditu ere ez dute egin. Hasieratik bertatik organizatu egin dira. Denbora luze guztian ez dira nekatu. *Egunkaria*-ren defentsa ausarta, eta batez ere planifikatua eta inteligentea egin dute. Euskal herri osoak egin du erresistentzia, baina buruan beraiek egon dira beti, euren presentziarekin eta mezuekin. Beraiek lagundu digute laguntzen.

Bigarrena horixe izan da: elkartasuna. *Egunkaria* itxi zuten momentutik bertatik nola erantzun duen herriak, jende guztiak, sektore guztiek. Egon dira protagonista batzuk apartak: inoiz ezingo dugu ahaztu Anamari Martinez Urreiztieta, Martin Ugalderen emaztearen duintasun indignatua eta dotorezia bere protesta energikoan. Herri oso bat duindu zuen bere gestuarekin. Baina ohargarriena kasu honetan da erresistentzia ez dela zuzenean kaltetuen edo kultura idatziaren inguruko mundura mugatu: euskara osoarena izan da protesta. Gezurra ari du begiratu, itxieraren reporta, eta hor hainbat aurpegi ikusten duzu: Olaizola anaiak, pilotariak, Izeta xakelaria, Benito Lertxundi kantaria, eta Fermin Muguruza, Kepa Junkera, Mikel Urdangarin, etab., ez aipatzeko antzerkilariak, idazleak, irakasleak. Ez aipatzeko milaka eta milaka anonimoak manifestazio erraldoietan eta herriz herri antolatu diren ekitaldi kontaezinetan.

Hiru: adostasuna, erakunde politiko eta sozialena. *Egunkaria*-ren eta akusatuon alde, h. d., akusazioaren aurka, elkarrekin eskuz-esku etortzen ikusi ditugu Garaikoetxea eta Arzalluz, EAJ eta EA, EB eta Ezker Abertzalea eta Aralar, ELA eta CCOO eta LAB. Euskadiko PSOE ere azkenean adostasun horretara biltzea niretzat zentzuaren eta taktoaren arrakasta izan da, pozgarria. Baina antza kasu honetan beste ezertan lortu ezin den adostasuna lortu bada, hein handi batean akusatu taldearen beraren ekimenari esker-tu behar zaio hori ere, oker ez banago.

Alderdi negatiboetan honezkero ez du merezi luzatzea, baina ahaztu ere ezin dira egin. Simetria itxura bat egiteko hemen ere hiru puntu soilik gogoratuko dut:

Bat, Estatuaren basakeria. Eta basakeria horren eszenifikazio teatrala, apropos, boterearen handiputzaren alarde baten eran. Hori besterik ez da atxiloketaren modu aparatosoa bera, gauaren erdian ateak joka eta puskatuz eta orruka, holako neurrien inolako premiarik egon gabe, etxekoak eta etxekoanak terrorizatuz, aurretik telebista eta komunikabideak lekuko deituta. Gogoan dugu denok Joan Mari Torrealdairen irudia telebistan, Guardia Zibilak nola zeraman. Estatu barbaro batean bizi gara eta Estatu horren espresio zikin garbiena bere Guardia Zibilaren inzibiltasunean ageri da.

Bi: Justiziaren arbitrarietatea. Eta ez diot hori akusazioaren beraren ustelagatik eta gezurragatik, etab. Agerikoak horiek ere, agertu denez, baizik eta are gehiago inkomunikazioan zer jazotzen den ondo jakin, eta akusatuak torturatuak eta abailduak begien aurrean ikusi, eta ez ikusi egiten duten epaile eta Justiziako zerbitzariengatik.

Hiru: politikaren eta politikoen inmoralitatea, mendekoei beti morala exijitu arren. Espainian torturarik ez dago, baina torturatuak asko. Otamendi, Torrealdai, Uria, Oleaga, Alegria, Auzmendi… Torturak baldin badaude, horien azken erantzuleak politikariak dira, ez Guardia Zibila eta ez Justizia. Hauek tresnak baino ez dira politikarienak. Tortura politikariek horixe nahi dutelako bakarrik dago. Horregatik, atxiloketa absurduak eta tortura egoteak berak baino gehiago etsipena eta amorrua eragiten duena politikarien zinismoa da, torturaren aurrean berak egonleku neutral zerutarren batean baleude bezala itxurak eginez. Torturaren egiazko eragileak eta erantzuleak politikariak dira. Politikari denak. Hirugarren Reichean eta hemen.

Ordua da esateko, baita ere, kokoteraino gaudela politikariei beti entzuten euskaltzaleok ez omen dugula euskara politizatu behar, modurik perbertsoenean euskara politizatzen, kriminalizatzen, judizializatzen, etengabe ari direnean beraiek. Euskaltzaletasuna, masa sozial piska bat biltzen duen orduko, automatikoki susmopean jartzen da (ikastolak, AEK, Elkar…). *Egunkaria* aferaren esplikazioa ez da beste inon bilatu behar hortxe baino.

Gaur pozaren eguna da, eta amorruaren eguna ere bai. Zein erraza den Espainian gutxi batzuek Euskal Herritar askoren lan zaila birrintzea! Lumazo bat, eta *Egunkaria* fundi-tua, sortzaileen eta laguntzaileen ahalegin guztia eta pozkarioa alferrikaldua, kazetari gazte andana lanik gabe kalean, epaile inbezil batek ezabatua euskarazko egunkari normal baten lehenengo saioa historian, euskal jendeak euskal jendearentzat egina. Egun haiek ez dira orain absoluzio bategatik ahaztekoak. Akusatuen atxiloketa umiliagarriak, tratu txarrak, traumak. Justiziaren lardaskeria denbora guztian. Politikari demokraten ezaxola burlatia beti konnibentzia gozoenean polizia demokratikoaren kirtenkeria ebidenteekin. Euskararen herri lainoaren frustrazioa. Tertulianoen pozgaiztoa, iraina, iritzi publiko espainolista guztiaren eskarnioa eta difamazioa. (Zer nahi duzu: espainolak dira!). «Zazpi urte denbora asko da», esan du Blanka Urgellek. Zazpi urte itxaron dugu PSOEtik hori entzuteko. Zazpi urte lapurtu zaie, egunik egun, akusatuei, desesperatuki euren buruak defenditzea baino ia beste ezertarako burua libre ezin ukan zutela. Euren familiak. Zazpi urte angustia, infernu. Ez, ez da ahaztekoa zazpi urte hauek.

Baina bihar, berriro, biharamunean pentsatu beharko dugu denok, gaur hala ere bihotz-bihotzez zoriondu gura zaituztegun injustuki akusatu absolbituok berriz ere aurretik zaituztegula. Luma eta lumazo horien petik behin eta betiko libre egon arte.

> Gaur pozaren eguna da, eta amorruaren eguna ere bai. Zein erreza den Espainian gutxi batzuek Euskal Herritar askoren lan zaila birrintzea!

«Epaiak erakutsi du 'dena da ETA' ikuspegiak ondorio larriak dituela»

**Lokarri**

**«Babesa eta zoriona adierazi nahi ditugu absoluzioa dela eta. Zazpi urte baino gehiagoko sumario luzeegi horretan pertsona horiek jada zigor luzea jasan dute: atxiloketak, tortura salaketak, kartzela, berme ekonomikoak, *Egunkaria*-ren itxiera eta likidazioa, ohore-kalteak…**

**Epaiak juridikoki frogatu du denok genekiena: *Egunkaria* ez zegoen ETAren agindupean. Epaitik bi ondorio atera daitezke. Batetik, 'dena da ETA' ikuspegiak ondorio larriak ekarri dituela, oinarrizko eskubide eta askatasunak murriztuz. Bestetik, epaiak Gobernuari hausnarketa egitera bultzatu behar lioke, ilegalizazio eta debeku berriak gauzatzeko ekinean dihardüelako oraindik».**

**«Amesgaiztoa amaitu da, baina orain justizia egiteko garaia da»**

**Markel Olano**
Gipuzkoako ahaldun nagusia

«Terroristak deitu zieten, komunikazio enpresa bat itxi zuten, eta langile asko kalean utzi zituzten. Baina zazpi urteko amesgaiztoaren ondoren, Auzitegi Nazionalak errugabetzat jo ditu, ezin baitzuen besterik egin. Adierazpen askatasunaren, euskararen eta Euskal Herriaren aurkako ekintza izan zen *Euskaldunon Egunkaria* ixtea eta zuzendaritzako kideak prozesatzea.

Enpresa eta kultura proiektu baten aurkako bulkada politikoa egon da. Amesgaiztoa amaitu da, baina orain justizia egiteko garaia da. Zuzendaritzako kideen eta langileen ohoragarritasuna lehengoratu behar dute, eta kalte ekonomiko guztiak ordaindu. Orain ikusiko da Espainiako Estatuaren kalitate demokratikoa zein den».



**2009ko abenduaren 15a.** Joan Mari Torrealdairen, Txema Auzmendiren, Iñaki Uriaren, Xabier Oleagaren eta Martxelo Otamendiren kontrako epaiketa hasi zen Madrilen, Espainiako Auzitegi Nazionalean. EFE



**2009ko abenduaren 18a.** Egunkaria Epaiketa taldeak ekimen berria aurkeztu zuen dirua biltzeko. Basterretxea, Jauregi, Egaña, Zumeta, Lazkano eta Morras artistek egin artelanak eman zituzten diru laguntzen truke. JON URBE / ARP




**2009ko abenduaren 19a.** Epaiketa hasi eta egun gutxira, milaka lagun batu ziren Bilbon, *Egunkaria libre* lelopean egindako manifestazioan. Auziaren kontra agertu ziren, eta absoluzioa eskatu zuten. ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

# Euskararen langile sutsuak

Euskarak batzuekin zorrak baldin baditu, Martin Ugalde, Joxemi Zumalabe, Joseba Jaka eta Luis Goia horien artean izanen dira, euskara eta 'Egunkaria'-en alde egin lanagatik.

**Xan Harriague**

Bat idazlea, bestea diseinatzailea, bestea liburu saltzailea eta azkena zinegilea, ez zuten ez gauza handirik elkar ezagutzeko Martin Ugaldek, Joxemi Zumalabek, Joseba Jakak eta Luis Goiak. Baina euskararekiko zuten maitasunak elkartu zituen, baita euskarazko lehen egunkari nazionala sortzeko zuten grinak ere. Laurak *Euskaldunon Egunkaria*-ko Administrazio Kontseiluko kideak izan ziren, eta bakoitzak bere esparrutik eta bere eskarmentutik *Egunkaria*ren norabidea eta egitura finkatzen lagundu zuten.

Alta, ez zuten denek luzaz egunero euskal prentsaz gozatzeko aukerarik izan. *Egunkaria* martxan jartzerako Zumalabe dagoeneko gaixo zegoen, eta minbiziarekin hiru urtez borrokatu eta gero zendu zen. Jakak zorte bera izan zuen hortik hiru urtera istripu batean.

Ugaldek eta Goiak *Egunkaria*ren bizitza osoaz gozatu ahal izan zuten, baina ixten ere ikusi behar izan zuten, baita ETAko kide izatea egotzita auzipetze bidean izendatua izatea edo auzipetua izatea zer den ezagutu ere. 2003ko otsailaren 20ko gau hartan, Goiak atxilotua eta inkomunikatua izatea zer den ere jakin zuen. Hortik ateratzean «infernua» ikusi zuela adierazi zuen.

Alta, bi horiek ere ez dute jakiterik izan auzia nola bukatu den, Ugalde 2004an hil baitzen eta Goia 2006an. Baina heriotzean ere berriro bat egin zuten. Laurak euskarari dena emanda hil ziren.

**Bidean hildakoak**



## Martin Ugalde
### Idazle nekaezina

Ez zuen haurtzaro erraza izan ez Martin Ugaldek. 1921ean jaio zen Andoainen, eta 1936ko gerrak etxetik joatera behartu zuen. Iparraldean barna, Gurseko kontzentrazio eremuan, berriro Andoainen, baina frankismoaren pean; azkenean, Venezuelara erbesteratzeko erabakia hartu zuen hemeretzi urte baizik ez zituela. Bigarren aberria bilakatu zen; hala esaten zuen. Han, kazetari ezagun egin zen, eta ipuinak, saioak, antzezlanak eta eleberriak idazteari ekin zion; gaixotu arte ez zion utzi lan horri.

1969an, berriz, herri minak jota Euskal Herrira itzultzea erabaki zuen, eta EAJn hasi zen lanean. *Zeruko Argia* eta *Deia* egunkariak sortzeko lanetan aritu zen, eta, 1982an, Eusko Jaurlaritzako Euskarazko Arazoetarako zuzendari nagusi izendatu zuten. 1990ean, 70 urte hurbil bazituen ere, gogoz ekin zion *Euskaldunon Egunkaria* sortzeko lanari, eta Administrazio Kontseiluak presidente izendatu zuen. 2004ko urrian hil zen, Hondarribian.



## Joxemi Zumalabe
### Erronka gizona

Hamasei urte besterik ez zituela hasi zen Joxemi Zumalabe (Donostia, 1950-1993) *Zeruko Argia* aldizkarian idazten, baina laster utzi behar izan zuen, Bartzelonara (Katalunia) joan baitzen arkitektura ikasketak jarraitzera. 1969ko garai horiek ez ziren garai erosoak izan, eta Txabi Etxebarrieta hil berri zuten; hura ezagutzen zuen, eta Euskal Herrira itzultzea erabaki zuen. Inprimategi batean lanean ari zela berriro *Zeruko Argian* aritzeko proposamena egin zioten, baita onartu ere. Aldizkaria, ordea, ez zegoen garairik hoberenean, eta langileek beren gain hartu, eta egoera hobetu zuten. Zumalabe, alta, ez zen horrekin konformatu, eta *Euskaldunon Egunkaria* sortzea izan zen bere hurrengo erronka. 1987tik aurrera, horretan aritu zen buru-belarri. 1990ean, Egunkaria Sortzen dirua eta akziodunak bilatzeko ekimena abian jarri zen, eta, hortik hamabi hilabetera, *Euskaldunon Egunkaria* sortu zen. Administrazio Kontseiluko kontseilari ordezkari izendatu zuten. Baina, ordurako, sabeleko minbizia zuen.



## Joseba Jaka
### Kultur zabaltzailea

Adierazgarria izan da benetan Joseba Jakak (Zegama, 1948-Cadiz, 1996) izan duen garrantzia euskal kulturaren garapenean. Gazte-gaztetatik hasi zen liburuak banatzen etxez etxe, eta, 1973an, lagun batzuekin elkartu, eta Zabal liburudenda sortu zuen Baionan, Elkar agitaletxearekin bateratuta. Hortik hiru urtera, Gipuzkoara itzuli zenean, bertze salto bat eman zuen euskal kulturaren sustapenean. Anaiarekin eta kide batzuekin elkartu, eta Bilintx liburudenda ireki zuen Donostian, baita Zabaltzen ere, liburuak eta diskoak banatzeko enpresa. Haren filosofiari jarraikiz, euskal kulturgintzan lortutako irabaziak bertan inbertitu zituen.

Elkar argitaletxeko kontseiluko kide eta eragile nagusietariko bat izateaz gain, Euskal Kulturgintzaren gerente izan zen. Egunkaria Sortzen herri ekimenean parte hartu zuen, eta lehen administraziozio kontseiluko kide izan zen 1996 istripuz hil zen arte. Bere kudeatzaile gaitasunak euskal kulturaren alde eman zituen Joseba Jakak.



## Luis Goia
### Euskarazko zinegilea

Lezon jaio zen Luis Goia 1951. urtean (Gipuzkoa). 30 urte baizik ez zituela *Fernando Amezketarra* lehen marrazki biziduna ekoitzi zuen Jaizkibel ekoiztetxearekin. Ordura arte, tornulari aritu zen. Baina, egun batez, Juanba Berasategi eta Koldo Izagirre ezagutu, eta elkarrekin lanean hasi ziren. Hortik aurrera, bizi osoa zinemagintzara dedikatu zen gehienetan ekoizle gisa; zuzendari gisa ere aritu zen, behin bakarrik izan bazen ere. 1988an, *Lau astakiloen abenturak eta kalenturak* zuzendu zuen. Euskarazko zinemari ekarpen garrantzitsua egin zion, baita hainbat ate ireki ere. *Fernando Amezketarra* Donostiako Zinemaldian erakutsi den euskara hutseko lehen filma izan zen, eta 1985ean ekoitzi zuen *Kalabaza Tripontzia* euskarazko lehen film luzea.

Euskalzale sutsua, Egunkaria Sortzen herri ekimenean parte hartu zuen, eta *Euskaldunon Egunkaria*-ko lehendabiziko administrazio kontseiluko kidea izan zen. 55 urte baizik ez zituela, 2006ko irailaren 27an zendu zen.




**2009ko abenduaren 19a.** Bilbon nazio manifestazioa egin zuten egun berean elkarretaratzea egin zuten Madrilen. Espainiako hiriburuan ere manifestazioa egiteko asmoa zuten hasieran, baina debekatu egin zuten. BERRIA



**2010eko urtarrilaren 23a.** Hainbat alorretan ezagunak diren ehundik gora lagun batu ziren Arantzazun (Oñati, Gipuzkoa), *Egunkaria*-ko auzipetuei babesa emateko eta auziko absoluzioa eskatzeko. MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS



**2010eko urtarrilaren 30a.** *Egunkaria auziari* buruzko hitzaldia eman zuen Ainara Mendiolak Derryn. Interes handia sortu zuen hitzaldiak, beste hainbat tokitan emandakoek bezalatsu. BERRIA

# Herri oso baten elkartasuna

Euskarazko kazeta bakarra ixteko polizia operazioa abiatzearekin batera hasi ziren elkartasun ekimenak. Epaiketa garaian ere etengabea izan da herritarren emana. Atxikimenduaren seinale izan da hori guztia.

**Oihana Elduaien**

Artean Guardia Zibila *Euskaldunon Egunkaria* miatzen ari zela, *Egunkariako langileekin elkartasuna* jartzen zuen kartelak eskuan zituztela atera ziren Lantz enpresako langileak. Ogitartekoaren ordua elkartasuna agertzeko baliatu zuten Martin Ugalde Kultur Parkearen alboan lantegia duen enpresako langileek. Hura izan zen aurreneko elkartasun adierazpena, eta amaigabea izan zen atzetik etorri zen soka luzea. Herri oso bat agertu zen operazioaren kontra, eta herri oso bat ohartu zen euskarazko egunkari baten beharraz. Auzolanean egin zen BERRIA ere, herri oso batek egindako diru ekarpenari esker.

2003ko otsailaren 20aren ondorengo egunetan elkartasuna zer den erakutsi zuten euskal herritarrek. Aurreneko pankarta inprobisatua Guardia Zibila Martin Ugalde Kultur Parkean zegoela agertu zen. ELAkoek egin zuten. Operazioa hasita zegoen, eta jakina zen hamar lagun atxilotu zituztela. Kultur parkea okupatuta zeukaten guardia zibilek, baina haiek baino gehiago ziren denborak aurrera egin ahala haserreak, amorruak eta ezinak hartuta han pilatzen joan zirenak. *Egunkaria adierazpen askatasunaren alde* leloa zeraman pankartaren atzean batu ziren guztiak: langileak, politikariak, herri mugimenduetako lagunak eta herritarrak.

Haien bideari jarraituz, handik aurrera, etengabeak izan ziren Euskal Herriko zein kanpoko txokoetatik etorritako elkartasun azalpenak. Era guztietakoak izan ziren, bitxiak batzuk, jai girokoak, serioak, jendetsuak...

Langile ohiek elkartasun oharrak jasotzeko sortutako posta elektronikoari lan asko eginarazi zieten egun haietan. Sortu eta lehen unetik bertatik, mezua mezuaren atzetik. Laguntza eta animoak eskaintzen zituen jendeak. Taldeak, norbanakoak, eragileak... guztiek izan zuten zabalik bide hori eta guztiek erabili zuten.

Marka guztiak hautsi zituen elkartasun adierazpena bi egun geroago etorri zen. Inoizko handiena izan zen Kontseiluak antolatuta Donostian egin zen manifestazioa, eta garbi gelditu zen Euskal

> 2003ko otsailaren 20an, goizeko lehen orduetatik lehertu zen elkartasun uholdea

> Auziak iraun duen zazpi urtean gehiago edo gutxiago, etengabea izan da elkartasuna

Herria ez zegoela prest halako astakeriaren aurrean ezer egin gabe geratzeko. Antiguan hasi eta Bulebarreraino, denak elkarren gainean. *Egunkaria aurrera. Bai euskarari!* leloarekin. *Egunkaria aurrera* horiz jartzen zuten elastiko urdin haiek nahi zituen jendeak. Soinean eraman nahi zuten aldarrikapena. Egun hartan langileentzako bakarrik zeuden elastikoak. Ez zegoen saltzeko lain. Baina berehala egin zituzten, eta jendea harrapaka ibili zen.

Elkartasun emari ikaragarri hura ikusita, herrietan *Egunkariaren aldeko batzordeak* sortu ziren, *Egunkaria* itxi eta oso gutxira. Mobilizazioak antolatzeko egitekoa zuten batetik, eta herritarrek eman nahi zuten elkartasun guztia bideratzekoa, bestetik. Lan handia egin zuten, BERRIA sortzeko dirua biltzen ere. Akziodunak eta harpidedunak topatu zituzten harri azpietan ere, eta euskal prentsaren proiektuari eusteko behar zen dirua batu zuten guztien artean.

Elkartasun Eguna bultzatzea izan zuten lan garrantzitsuetako bat batzorde horiek. Erantzun indartsuago bat emateko helburuz, Kontseiluak eta *Egunkaria*-ko langileek Elkartasun Eguna deitu zuten martxoaren 13rako. Dei horrekin bat eginda, ordubeteko lanuztea antolatu zuten ELA, LAB, ESK, EILAS, EHNE, ELB, Hiru eta EGAS sindikatuek. Jarraipen zabala izan zuen deialdiak, eta Euskal Herrian txoko gutxi geldituko ziren *Egunkaria aurrera* leloa beren egin gabe.

Elkartasuna biltze horretan, alderdi eta eragileekin bilerak egin zituzten langileek eta haien babesa lortu zuten. Eusko Legebiltzarrean gaia eztabaidatu eta *Egunkaria* «berehala zabaltzeko» eskatu zuten PP eta PSE ez beste alderdi guztiek, eta Europako Legebiltzarreraino iritsi zen salaketa. Eneko Bidegain eta Jose Mari Pastor langileak Bruselan izan ziren, eta bilerak egin zituzten hainbat




Jende uholdea bildu zen 'Egunkaria' itxi eta handik bi egunera Donostian.

## Herrialde Katalanetan ia-ia Euskal Herriaren pareko elkartasun uholdea

**Beroa izan zen Herrialde Katalanek *Euskaldunon Egunkaria*-ren itxieraren aurka erakutsi zuten jarrera, eta gauza bera gertatu da epaiketaren garaian ere. Elkartasun ekimen ugari egin ziren orduan eta orain, Plataforma per Egunkaria batzordeak antolatuta. Inkomunikazioko bost egunak pasatu eta hamar egunetara Bartzelonako Pi-ko Andre Mari elizan hitzaldia eman zuen Martxelo Otamendik. Lepo bete zuen eliza kolore, adin eta pentsamendu askotako jendeak. Kanpoan ere geratu ziren batzuk. Txaloka hartu zuten Otamendi, zutik. Handik aurrera etorri zen elkartasun uholdearen adibide bat besterik ez zen izan hori. Hainbat hitzaldi eman zituzten, elkarrizketak komunikabideetan... Hasierako garaietan, azken hilabeteetan bezala.**



**2010eko otsailaren 2a.** *Egunkaria auziko* epaiketa amaituta, bost epaituak Andoainera iritsi ziren. Madrilgo elkartasun batzordeko kideek emandako lore sorta ekarri zuten beraiekin. BERRIA



**2010eko otsailaren 10a.** *Egunkaria auzia* salatu zuten hainbat eurodiputatuk Estrasburgon, Europako legebiltzarrean. Prentsaurrekoan, beraiekin batera agertu zuen Martxelo Otamendi ere. BERRIA



**2010eko otsailaren 25a.** Espainiako Auzitegi Nazionaleko Fiskaltzaren tesiekin bat egin, eta absoluzioaren alde agertu zen Eusko Legebiltzarra. PSE-EEren, EAJren, Aralarren eta EBren babesa lortu zuen testuak. JUANAN RUIZ / ARGAZKI PRESS



ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

legebiltzarkiderekin. Berdeak-ALE (Europako Aliantza Librea) taldeak prentsaurrekoa ere eman zuen gertatua salatzeko. Osoko bilkuran *Egunkaria* erakutsi zuten legebiltzarkide batzuek protesta gisara, eta Koldo Gorostiaga EHko Eurodiputatuak hitzezko salaketa ere egin zuen.

**'Egunkaria'-ren beharra**

Sumarioak ekarri zuen guztiaren kontrako adierazpen publiko ugari egin ziren egun haietan. Kultur munduan aritzen diren musikari, aktore, idazle, bertsolari eta abarrek *Egunkaria*-ren beharra zutela aldarrikatu zuten; eta gauza bera egin zuten kirolariek ere. Beste hedabide batzuetatik —Euskal Herrikoak zein kanpokoak— etorritako elkartasuna ere azpimarragarria izan zen. Mugarik Gabeko Kazetariak erakundeak salatu egin zuen itxiera, eta gauza bera egin zuen MIDAS Europako Hizkuntza Minorizatuetako Egunkarien Elkarteak ere.

Adierazpen publikoez haratago, *Egunkaria aurrera* aldarria agertzen zen ekitaldi publikoetan ere: pilota partidak hasi aurretik pankartak atera zituzten pilotariek, baita eskubaloi jokalariek, errugbikoek, herri kiroletan aritzen direnek eta beste hainbatek ere. Madrilen banatzen diren Max sarietan *Egunkaria aurrera!* elastiko urdinarekin joan ziren Josu Kamara eta Mikel Martinez; eta Fermin Muguruzak ere hala jaso zuen, Madrilen, euskarazko abestirik onenari ematen zioten saria. Kontaezinak dira, modu xume horretan egin ziren elkartasun adierazpenak.

**Epaiketaren kari, berriz ere**

Herriz herri sortu ziren batzordeak desagertu egin ziren BERRIA sortzearekin bat. *Egunkaria auziko* epaiketa egin egingo zutela iragarri zutenean, ordea, berriz sortu ziren batzorde horietako asko.

Ezinbestekoa zen lana egin dute epaiketarako beharrezkoa zen dirua batzen. Elastikoak eta bono laguntzak saldu dituzte, eta bazterrik bazter zabaldu dituzte *Egunkaria libre!* kartelak. Gaia berriz gizarteratu eta auzipetuei babesa emateko lan handia egin dute. Haiek antolatu zituzten abenduaren 19an Bilbon egin zen manifestazio handirako autobusak ere, Bizkaiko hiriburuko kaleak gainezka jarriz.

Herritar xumeek ez ezik, hainbat alorretako jende ezagunek ere hartu dute ekimena. Sei hilabetez, astero-astero elkarretaratzeak egin dituzte, *Egunkaria libre!* lelopean, hainbat sektorek deituta: Zinema ingurukoek, kirolariek, musikarek, idazleek, bertsolariek, sindikatuetakoek, alderdiek, sukaldariek, justizian aritzen direnek, kazetariek...

# Babes Taldea, 'Egunkaria auzia' ixteko indarra egiteko makina

**O. Elduaien**

Sortze beretik hasi zen *Egunkaria auzia* ixteko indarra egiten Egunkariaren Alde elkartearen Babes Taldea. Lehen agerraldian auzia bertan behera utzi eta auzipetuei «eskubide guztiak itzultzeko» eskatu zuten taldeko kideek. Hamasei lagun ezagunek osatu zuten taldea: Carlos Garaikoetxea Eusko Jaurlaritzako lehendakari ohia, Xabier Arzallus EAJren EBBko buru ohia, Koldo Gorostiaga EHko europarlamentari ohia, Jose Elorrieta ELAsindikatuko idazkari nagusi ohia, Rafa Diez LAB sindikatuko idazkari nagusi ohia —gaur egun espetxean dago—, Jesus Uzkudun CCOOko Euskadiko exejutiba nazionaleko kidea, Bernardo Atxaga idazlea, Jean Haritxelhar Euskaltzaindiko lehendakari ohia, Laura Mintegi idazlea zein Pen Clubeko lehendakari ohia, Antxon Lafont enpresaburua, Baltasar Errazti Confebaskeko lehendakari ohia, Garbiñe Biurrun EAEko Auzitegi Nagusiko Magistratua, Jonan Fernandez Elkarriko koordinatzaile nagusi ohia, Juan Miguel Arregi Jesusen Lagundiko probintziala eta Fermin Muguruza musikaria.

Auzipetuek beraiek Egunkariaren Alde elkartea sortu eta denbora gutxira, 2005eko martxoaren 19an sortu zen Babes Taldea. Auzipetuen errugabetasuna aldarrikatu eta auzia ixteko helburuz sortu zen Egunkariaren Alde elkartea, eta izenak berak esaten duen bezala, hari babesa zein laguntza emateko, Babes Taldea.

Hainbat ekimen egin zituzten Babes Taldekoek, bai beren kasa eta baita Egunkariaren Alde elkartearekin elkarlanean ere. Babes taldea sortu aurretik ere hainbat ekimen egin zituzten lagun horiek. Esate baterako, 2004ko abenduan auzipetze autoa jasotzera auzipetuekin batera Espainiako Auzitegi Nazionalera joan ziren, gehienak. Babes Taldekoak izango ez ziren beste batzuk ere izan ziren Madrilen. Esate baterako, Vilawebeko zuzendari Vicent Partal, Mertxe Colina ABko eleduna, Begoña Lasagabaster orduan EAko ordezkaria Espainiako Diputatuen Kongresuan eta Koldo Tellitu Partaideko lehendakaria.

2006ko urrian ere egin zuten auzipetuei babesa eskaintzeko ekitaldia. Bilbon batu ziren hainbat aurpegi ezagun, eta auzi horretan «justizia egiteko modu bakarra» auzia bera ixtea dela aldarrikatu zuten. Garai hartan auziarekin aurrera jarraitu edo artxibatu erabaki behar zuen Auzitegiak.

Epaiketa egitea erabaki zuten ordea, eta ekitaldi gehiago antolatu behar izan zituen Babes Taldeak. 2008ko otsailaren 13an egin zuten horietako bat, Bilbon. Urtebete beranduago Madrilen egin zuten ekitaldia, eta aurtengo urtarrilean, berriz, kultura, kirol, sindikalgintza, politikagintza eta gizarte gaietako 200 eragiletatik gora batu zituzten Arantzazun, epaitzen ari ziren bost auzipetuentzat absoluzioa eskatuz.

## Hainbat ekimen, epaiketako gastuei aurre egiteko dirua biltzeko

***Egunkaria auziko*** **epaiketako gastuei aurre egiteko dirua biltzeko xedez sortu zen Egunkaria Epaiketa taldea, eta lan horretan ari da oraindik ere. Kontu korronteak ireki zituzten herritarrek eman nahi zuten diru biltzeko, eta hainbat artisten laguntza ere jaso zuten. Nestor Basterretxeak, Koldobika Jauregik, Xabier Egañak, Jose Luis Zumetak, Jesus Mari Lazkanok eta Xavier Morrasek eman zituzten artelanak banatu zituzten, diruaren truke. Diru bilketako taldea, Ramon Labaienek, Pedro Miguel Etxenikek, Lontxo Oihartzabalek, Txaro Arteagak, Iñaki Zubillagak, Juan Jose Pujanak, Anjeles Iztuetak, Juan Ramon Gebarak, Jesus Mari Mujikak, Ramuntxo Camblongek, Juan Maria Ollorak, Xabier Retegik eta Jose Mari Arratek osatu zuten.**

# Euskaratik eta euskaraz

Sortze beretik, euskaraz eta euskararentzat lan egin zuen 'Euskaldunon Egunkaria'-k. Euskaratik sortu zen, eta elkartasunetik. «Pluraltasuna» izan zuen xede nagusi.

**Oihana Elduaien**

Herri hau sortzen segi dezagun / euskaratik ta euskaraz», esaldiarekin amaitu zuen Maialen Lujanbiok BECen Euskal Herriko bertsolari txapela buruan zuela bota zuen agurra. Horixe da *Euskaldunon Egunkaria*-k sortze beretik egin nahi izan zuena. Euskaratik sortua zen, euskaraz eta euskararentzat egina. Euskararen herria zuen eremu, eta herri anitza dela jakitun, «pluraltasuna eta proiektuaren independentzia» zaintzeko eginahalak egin zituzten arduradunek. Bai baitzekiten euskararen herria anitza dela, eta euskarazko egunkari bakarra haientzat guztientzat erakargarri egiteko helburua baitzuten.

Zuri beltzean ikusi zuen argia *Egunkaria*-k 1990eko abenduaren 6an. 32 orri besterik ez zuen Lasarten egiten zuten egunkari hark. Hobekuntza txiki bat izan zuen 1992ko martxoaren 10ean: azalean kolore gorria sartu, eta 40 orri egiten hasi ziren. Lan taldearentzat leku falta arazo bihurtzen hasi zen, eta erredakzioa Andoainera aldatu zuten 1994ko abenduan. Gero, Martin Ugalde kultur parkea eraiki zutenean, hor egin zuen *Egunkaria*-k erredakzio berria, eta hantxe aritu zen lan taldea, harik eta 2003ko otsailaren 20an Guardia Zibilak betiko itxi zuen arte.

Ordurako Andoainen zirela, 1995eko urriaren 21ean jauzi handi bat eman zuen *Egunkaria*-k, kolorea sartuz. Egunerokoa erabat berritu zuten, eta 50 orritik gorako eskaintza egiten hasi ziren. 1999an, gehigarrien bidez informazio berezitua ematen hasi ziren, beste urrats bat eginez: *Unibertsitatea*, *Barkatu Ama* gazteentzako gehigarria, mendiari loturiko *Mundu Mira*, kultura gaiak jasotzen zituen *Begia*, haurrentzat eta haurrekin osatutako *Xingola*, igandetan argitaratzen zen *Kazeta*... 64 orritako egunkaria egiten zuten ordurako.

**Babes zabala, sortzetik**

Euskararen herriaren aniztasunaren erakusle zen euskarazko egunerok bakarra bultzatu eta garatzeko eratu zuten Egunkaria Sortzen elkartea. 1990eko urtarrilaren 21ean Donostiako Udalaren Euskal Txokoan egin zuten bileran sortu zen, ofizialki. Euskal kulturaren eremuan lanean aritzen ziren 75 lagunek osatu zuten talde eragilea, eta guztiek ere maila pertsonalean hartu zuten parte ekimenean.

Baina erditze hori baino lehenago ere ernaltzen ari zen proiektua. Bi bilera egin zituzten aurretik. 1989ko azaroaren aurrenean egin zuten aurreneko bilera, Donostiako Joxemiel Barandiaran lizeoan. Euskarazko egunkariaren gaia pil-pilean egon zen 80ko hamarkada osoan, eta eztabaida horri forma emateko asmoz, Euskal Kulturaren Batzarrak (EKB) deituta egin zuten bilera hura. Euskarazko egunkariaren aldeko firma bilketa bat abian jartzea erabaki zuten batetik, eta egitasmoa euskalgintzako sektore zabalagoetara hedatzeari ekitea, bestetik.

Bidea egiten hasita zirela, Durangoko Azokan egin zuten beste bilera bat, bigarrena, hilabete geroago, eta han finkatu zituzten sortzekotan ziren egunkariaren ezaugarri nagusiak; hain justu, gero, *Euskaldunon Egunkaria*-ren 11 printzipioak bihurtu zirenak. Hirugarren bileran sortu zen *Euskaldunon Egunkaria*, eta Egunkaria Sortzenek egindako lanari esker, babes handia jaso zuen proiektuak. Euskalgintzako erakundeak, alderdi politikoak, sindikatuak, gizarte erakundeak... guztiak zeuden sokatik tiratzeko prest. 185 herri batzorde sortu ziren 143 herritan, eta 3.000 lagun inguru aritu ziren lanean.

Egunerokoaren proiektua finantzatzeko akzio salmenta jarri zuten abian, herriz herri, eta garaiko 50 milioi pezeta inguru (300.000 euro) bildu zituzten. Hala, behar adina diru bildu, eta proiektua abian jarri zuten. Euskararen herritik *Egunkaria* sortzeko adina diru lortu zutela ospatzeko, jaialdi erraldoi bat egin zuten uztailean Donostiako belodromoan.

**11 printzipioak**

- Euskaltzalea.
- Nazionala.
- Baterakoia.
- Zabala.
- Alderdiekiko independentea.
- Erderazko medioekiko independentea.
- Ez instituzionala.
- Diruz lagundua.
- Militantea.
- Profesionala.
- Berria.




Egunkaria Sortzen taldearen bilera. Mahai buruan, Txema Auzmendi, Joan Mari Torrealdai eta Joxemi Zumalabe. BERRIA



'Argia'-ren erredakzioan 'Egunkaria'-ren 0. zenbakia egiten, 1990eko uztailaren 14an. Besteak beste, Pablo Sastre, Nerea Azurmendi, Jexux Mari Zalakain, Iñaki Uria eta Garbiñe Ubeda. BERRIA




Iñaki Uria, Martin Ugalde eta Joan Mari Torrealdai, 2000. urteko abenduaren 6an, 'Egunkaria'-ren 10. urtemuga ospatzeko ekitaldian. BERRIA




'Euskaldunon Egunkaria'-ren erredakzio nagusia Andoainen, 2002. urtean, itxi baino urtebete lehenago. BERRIA

# Kirola


David Zurutuza Realeko erdilaria Castelloko bi jokalari gainean dituela, joan den abenduan jokatutako partidan. BERRIA

# Kasualitatea litzateke

## Realak bizitasunik gabe jokatu du, ez da aukera garbi bakar bat ere sortzeko gauza izan, eta merezita galdu du Huelvan

## Txuri-urdinek hiru hilabete daramatzate jada etxetik kanpo partidarik irabazi gabe

**Igor Susaeta**

Normala zen puztuta, pozik eta lasai antzean egotea. Liga amaitzeko 11 jardunaldiren faltan bigarren sailkatuari sei puntu eta laugarrenari bederatzi ateratzea gauza handia da. Realak atzo Recreativoren zelaian jokatu beharreko partidaren atarian horixe zen egoera. Ezin hobea Lehen Mailara igo ahal izateko. Orain bi aste ere, Kordoban aritu zenean, berdintsu. Orduan ere puztuta, pozik eta lasai zeuden Realekoak, baina partida haserre eta triste bukatu zuten. Kasualitatez ere ez zuen Realak Kordoban irabaziko. Ba atzo Huelvan kasualitate handia izango litzateke irabaztea. Hortaz, kasualitateak gutxitan gertatzen direnez, merezita galtzaile. Bizitasunik gabe, tentsiorik gabe aritu zen Reala, eta horrela ezin aukera garbi bakar bat ere sortu.

Jada hiru hilabete daramatza etxetik kanpo irabazi gabe. Sei partida guztira, joan den urtarrilaren 16an Vigon irabazi zuenetik. Dena den, Realak sei puntu ateratzen dizkio oraindik ere laugarren sailkatuari, liga amaitzeko hamar partida falta direnean. Horri helduko diote Realeko jokalariek datozen egunetan. Autokritika ere egingo dute, ordea. Eskas aritu baitziren Huelvan. Taldeak ez zuen liderraren itxura eman. Dena dela, etxetik kanpo irabazten zuenean ere, ez zuen itxura askoz ere hobea ematen. Irabazi egiten zuen, ordea...

Argi dago, baina, Reala gauza bat dela Anoetan, eta beste bat handik urrun jokatzen duenean. Erritmoan eta intentsitatean nabaritzen zaio; baita arriskatzeko edukitzen duen gogoan ere. Tokia gordetzea, defentsan zein erasoan ordena taktikoa ez haustea, eta geldikako jokaldiei ahalik eta etekin handiena ateratzea izaten da Martin Lasarte entrenatzailearen intentzioa etxetik kanpo aritzean. Normala da, dena den. Reala liderra delako. Alde polita ateratzen dielako kontrarioei. Ez daukalako behar baino gehiago arriskatzeko beharrik.

Baina bizitasunik gabe jokatzean tokia erraz galtzen da, eta ordena ere espero baino errazago hausten da. Hori pasatu zitzaion Realari atzo Huelvan. Hasiera-hasieratik ikusi zen, gainera, Realak ez zuela irabaziko. Recreativok ere ez zuen beste munduko ezer egin, baina ikusten zitzaion beste intentzio bat zuela. Hartara, lehen zatiko aukera bakarrak Raul Agnek entrenatutako taldeak sortu zituen. Hiru izan ziren, ordu laurdenaren bueltan hirurak, baina Zubikaraik geldiketa onak egin zituen. Defentsan ohi baino ahulago ari zen Reala: lerroen arteko espazioa handiegia zen, eta aldaratze ia guztiak Recreativokoentzat ziren. Erasoan, aldiz, kamuts. Zurutuza mugitu zen alde batetik bestera, saiatu zen jokaldiak lotzen, baina ezin. Prietok, aldiz, ez zuen ia luzitzeko aukerarik eduki. Hortaz, bi jokalari horiek itzalita egonda, txuri-urdinek ez zuten atera jaurti.

### Zubikarai kalera

Aipatutako bi jokalari horiek, ordea, jokoan sartu ziren bigarren zatiaren hasieran, eta orduan izan zituen Realak bi aukera. Bata Jonathan Estradarena —25 jardunaldi baino gehiagi ziren kolonbiarrak ez zuela hasieratik jokatzen— eta bestea Zurutuzarena berarena, Guaitaren gainetik loratutako baloi batean. Geroxeago, baina Recreativok sartu zuen aurrenekoa, Brauliok ondo baliatutako aldaratze batean. Jokaldi horretan Realekoak ez ziren gai izan baloia areatik urruntzeko. Bigarrena, berriz, penaltiz, lehiaren bukaeran. Aranburuk baloia modu inozoan galdu eta Zubikarai penaltia egin zioen Brauliori. Kalera, hortaz. Realak atzo irabaztea kasualitatea litzateke.

| | |
|---|---|
| **Recreativo** | **2** |
| **Reala** | **0** |

**Recreativo.** Guaita; Raul Camara, Troest, Iago Bouzon, Peña; Barber, Javi Fuego (Jesus Vazquez, 72. min.); Carmona (Aitor, 81.min.), Pablo Sanchez (Oscar Diaz, 60. min.), Alvaro Anton; eta Braulio.
**Reala.** Zubikarai; Carlos Martinez, Ansotegi, Mikel Gonzalez, De la Bella; Rivas (Griezmann, 80. min.), Aranburu; Xabi Prieto, Zurutuza (Sergio, 86. min.) Jonathan Estrada; eta Bueno (Agirretxe, 64. min.).
**Golak. 1-0.** Brauliok (64. min.); **2-0.** Jesus Vazquezek (90. min.).
**Epailea.** Iglesias Villanueva. Txartel horia Recreativoko Raul Camarari, Peñari eta Guaitari. Txartel gorria Realeko Zubikarairi (90. min.).
**Bestelakoak.** 6.500 bat ikusle Colombino Berrian.

## Sailkapena

**LEHEN MAILA**
**31. jardunaldia**

| Jokatutakoak | Emaitza |
|---|---|
| **Osasuna**-Zaragoza | 2-0 |
| Mallorca-Valentzia | 3-2 |
| **Athletic**-Almeria | 4-1 |
| Real Madril-Bartzelona | 0-2 |
| Deportivo-Racing | 1-1 |
| Espanyol-At. Madril | 3-0 |
| Xerez-Getafe | 0-1 |
| Vila-real-Sporting | 1-0 |
| Tenerife-Valladolid | 0-0 |
| Malaga-Sevilla | 1-2 |

| | Puntuak | J | I | B | G |
|---|---|---|---|---|---|
| ■ 1. Bartzelona | 80 | 31 | 25 | 5 | 1 |
| ■ 2. Real Madril | 77 | 31 | 25 | 2 | 4 |
| ■ 3. Valentzia | 56 | 31 | 16 | 8 | 7 |
| ■ 4. Sevilla | 51 | 31 | 15 | 6 | 10 |
| ■ 5. Mallorca | 51 | 31 | 15 | 6 | 10 |
| ■ 6. **Athletic** | 48 | 31 | 14 | 6 | 11 |
| 7. Vila-real | 46 | 31 | 13 | 7 | 11 |
| 8. Getafe | 44 | 31 | 13 | 5 | 13 |
| 9. Deportivo | 43 | 31 | 12 | 7 | 12 |
| 10. At. Madril | 40 | 31 | 11 | 7 | 13 |
| 11. Sporting | 37 | 31 | 9 | 10 | 12 |
| 12. **Osasuna** | 37 | 31 | 10 | 7 | 14 |
| 13. Almeria | 37 | 31 | 9 | 10 | 12 |
| 14. Espanyol | 37 | 31 | 9 | 10 | 12 |
| 15. Racing | 32 | 31 | 7 | 11 | 13 |
| 16. Zaragoza | 32 | 31 | 8 | 8 | 15 |
| 17. Malaga | 31 | 31 | 7 | 10 | 14 |
| ■ 18. Tenerife | 26 | 31 | 6 | 8 | 17 |
| ■ 19. Valladolid | 25 | 31 | 4 | 13 | 14 |
| ■ 20. Xerez | 23 | 31 | 5 | 8 | 18 |

■ Txapeldunen Ligara ■ Europako Ligara ■ Bigarren Mailara

**32. jardunaldia (Gaur, bihar eta etzi)**

| Gaur | Ordua | TB |
|---|---|---|
| Valladolid-Sevilla | 20:00 | Gol TV /C+ |
| Sporting-Tenerife | 20:00 | O.I. |
| Getafe-Vila-real | 22:00 | O.I. |
| **Bihar** | **Ordua** | **TB** |
| At. Madril-Xerez | 20:00 | Gol TV /C+ |
| Racing-Espanyol | 20:00 | O.I. |
| Zaragoza-Mallorca | 20:00 | O.I. |
| **Osasuna**-Malaga | 20:00 | O.I. |
| Bartzelona-Deportivo | 22:00 | C+E. |
| **Etzi** | **Ordua** | **TB** |
| Almeria-Real Madril | 20:00 | Gol TV /C+ |
| Valentzia-**Athletic** | 22:00 | La Sexta |

**BIGARREN MAILA**
**32. jardunaldia**

| Jokatutakoak | Emaitza |
|---|---|
| Vila-real B-Girona | 2-0 |
| Betis-Cadiz | 4-0 |
| Castello-Celta | 2-1 |
| **Real Union**-Elx | 0-3 |
| Rayo-Las Palmas | 3-2 |
| Cartagena-Murtzia | 3-2 |
| Albacete-Gimnastic | 1-1 |
| Recreativo-**Reala** | 2-0 |
| Hercules-Huesca | 0-2 |
| Kordoba-Numantzia | 2-1 |
| Levante-Salamanca | 2-0 |

| | Puntuak | J | I | B | G |
|---|---|---|---|---|---|
| ■ 1. **Reala** | 58 | 32 | 16 | 10 | 6 |
| ■ 2. Cartagena | 54 | 32 | 15 | 9 | 8 |
| ■ 3. Betis | 52 | 32 | 14 | 10 | 8 |
| 4. Levante | 52 | 32 | 13 | 13 | 6 |
| 5. Hercules | 52 | 32 | 14 | 10 | 8 |
| 6. Vila-real B | 49 | 32 | 13 | 10 | 9 |
| 7. Elx | 48 | 32 | 13 | 9 | 10 |
| 8. Numantzia | 47 | 32 | 13 | 8 | 11 |
| 9. Kordoba | 45 | 32 | 11 | 12 | 9 |
| 10. Girona | 43 | 32 | 11 | 10 | 11 |
| 11. Recreativo | 42 | 32 | 10 | 12 | 10 |
| 12. Huesca | 41 | 32 | 9 | 14 | 9 |
| 13. Gimnastic | 41 | 32 | 11 | 8 | 13 |
| 14. Rayo | 39 | 32 | 9 | 12 | 11 |
| 15. Celta | 39 | 32 | 9 | 12 | 11 |
| 16. Murtzia | 37 | 32 | 8 | 13 | 11 |
| 17. Las Palmas | 37 | 32 | 8 | 13 | 11 |
| 18. Albacete | 36 | 32 | 8 | 12 | 12 |
| ■ 19. Salamanca | 35 | 32 | 8 | 11 | 13 |
| ■ 20. Cadiz | 33 | 32 | 7 | 12 | 13 |
| ■ 21. **Real Union** | 30 | 32 | 7 | 9 | 16 |
| ■ 22. Castello | 27 | 32 | 6 | 9 | 17 |

■ Lehen Mailara ■ Bigarren B Mailara

**33. jardunaldia (apirilak 16, 17, 18 eta 19)**

| Larunbata | Ordua | TB |
|---|---|---|
| **Reala**-Albacete | 18:00 | ETB1 |
| **Igandea** | **Ordua** | |
| Las Palmas-**Real Union** | 17:00 | |

## Javi Martinez ▸ Athleticeko jokalaria

San Mames zutik jarri zuen Aiegikoak, igandean, Almeriaren kontra egin zuen jokoari eta golei esker. 21 urte bakarrik dituen arren, txapelketako euskarririk onenen artean dago nafarra.

# «Athleticek eman diezadake nire onena emateko aukera»



JON HERNAEZ / ARGAZKI PRESS

**Haritz Gallastegi** Bilbo

Ikusgarria izan zen herenegun Javi Martinezek Almeriaren aurka jokatu zuen norgehiagoka. Zelai erdian jaun eta jabe izan zen. Horretaz gain, gol bi egin zituen. Duela lau denboraldi debuta egin zuenetik etengabe hazi da. Ligako protagonista nagusietako bat da egun. Eta onena da bide luzea duela aurretik. Athleticen egingo ote du?

**Camp Nouko partida ostean gol sena falta zitzaizula adierazi zenuen. Astetebete beranduago, berriz, gol bi sartzeko gai izan zara.**

Denbora asko neraman golik egin barik. Itzuli bat, hain zuzen ere. Azken gola Almeriari sartu nion Mediterraneoko Jokoak futbol zelaian. Almeriaren, Atletico Madrilen eta Vila-realen kontra asmatu nuen lehen itzulian.

**Arantza atera duzu, beraz.**

Hala da. Bolada txarra neraman.

**Denboraldion bost gol egin dituzu Ligan. Euskarri batentzat oso gol kopuru ona da.**

Sasoi honetan aurrekoan baino finago ari naiz. Ligako bost golez gain, Europako Ligan sartutako biak, Rayo Vallecanori Espainiako Kopan egindakoa, eta 21 urtez azpiko Espainiako selekzioarekin sartutakoak ere kontuan hartu behar dira. Gol gehienak geldikako jokaldietan egin ditut, baina ezin naiz kexatu.

**Almeriaren aurka lehen gola eta hirugarrena egin zenituen. Lehena ez zen ederra izan, baina lehena izaten da garrantzitsuena.**

Aukera asko ari ginen sortzen, eta ezinbestekoa zen bat edo beste asmatzea. Aukera dagoenean asmatzen ez bada, guztiok dakigu zer gerta daitekeen gero. Markagailuan aurrea hartzen duen taldeak askoz lasaiago jokatzen du.

**Bigarren golekoa, berriz, erdilari gutxi batzuek egin dezakete Espainiako Ligan.**

Egiari zor ez dakit nola gainditu nituen atzelari bi area barruan.

**Jokaldiak denetarik dauka: presio ona, baloia berreskuratu, area barruan aurkari bi gainditu, eta, atezainaren aurrean, lasai-lasai zuk gura duzun lekura jaurti. Zapiak merezi izan zituen gola da.**

Gol polita da. Jokalari guztiok dugu gustuko horrelako golak egitea. Gainera, hirugarrena izan zen, eta min handia egin zion Almeriari.

**Zure kirol ibilbide guztian egin duzun golik onena da?**

Politena da. Garrantzitsuena, berriz, Espainiako Kopako finalerdietan Sevillari egin niona da.

**Gol bi egin zenituen, baina beste arlo askotan ere nabarmendu zinen. Neurketa bikaina jokatu zenuen.**

Talde guztiak egin zuen lan aparta. Oso indartsu zelairatu ginen, beste askotan moduan. Baina, gainerako neurketa askotan ez bezala, Almeriaren kontra ondo jokatu genuen norgehiagoka guztia.

**Bistan da lehen mailan debuta egin zenuenetik pauso asko eta handiak eman dituzula. Baina, era berean, izango duzu zer hobetu, ez?**

Arlo askotan hobetu behar dut: Kokapena, abiadura… Gogor ari gara lanean. Jokalari batek dena dakiela uste duenean behera egiten du.

**Aspaldi hasi ziren hitz egiten zure etorkizunaren inguruan. Talde asko ari omen dira gertutik jarraitzen zure beharra. Kosta egiten al da horrenbeste zurrumurrurekin kirol arloan buru-belarri aritzea?**

Ez. Nik alde batera uzten ditut horrelako kontuak. Kaso eginez gero, arreta galtzeko arriskua dago. Gainera, ez da hedabideetan agertzen den guztia sinetsi behar. Askotan nire ordezkariak ere ez dakiena argitaratzen dute. Beraz, atera kontuak.

**Zuk behin eta berriz esan duzu Athleticen oso gustura zaudela. Egia izan daiteke, baina arazorik ez izateko ere ez dago erantzun aproposagorik. Hala ere, ziur aukera duzuen guztiok hartuko duzuela aintzat goi mailako talde batek arlo ekonomikoan eta kirol arloan egin dezakeen eskaintza. Normala da, gainera.**

Nik beste ikuspuntu batetik aztertzen dut egoera. Athleticek oso talde gaztea dauka, eta oso ondo ari da lanean. Horrenbestez, zergatik ez dugu epe laburrean Txapeldunen Liga jokatzeko aukera edo eta txapelketa bat irabazteko aukera izango? Jokalari guztiok dugu gustuko onenekin aritzea. Nik ere gura dut onenen aurka lehiatzeko aukera izatea, baina Athleticen egin gura dut.

**Beraz, Athleticek barruan daukazun dena erakusteko aukera eskaintzen dizula uste duzu?**

Athletic garatzen ari den proiektuak fruituak ematen baditu, taldekide guztiok haziko gara. Guztiok izango dugu gure onena emateko aukera. Norberak daukan guztia emateko ezinbestekoa da talde on bat izatea, eta Athletic bide onetik doa.

**Arlo pertsonalean oso lan ona egiten ari zara. Baina, taldea ere ez da atzean geratu. Sasoi hasieran ez bezala, egun emaitzak bezain ona da egindako jokoa.**

Sasoi hasieran joko gutxiagorekin eraginkorragoak ginen. Bigarren itzulian, berriz, oso ondo ari gara. Etxetik kanpo zorte apur bat falta zaigu. Gehiago merezi izan dugu.

**Europan sartzea ez da erraza izango. Gutxienez 60 puntu beharko direla uste duzu?**

Talde on asko daude borrokan sartuta. Egun gure esku daukagu, eta gure helburuak izan behar du liga amaitu arte hor jarraitzea.

**Zaleek lau hilabete daramatzate Ligan etxetik kanpo 300. garaipenaren zain. Denbora asko da.**

Ea ostegun honetan irabazten dugun.

**Valentzian beti dago arazoren bat, baina, hala ere, goi mailako taldea da. Partida gaitza daukazue.**

Oso talde indartsua da. Ligako hirugarrena. Etxean, gainera, ikusgarri ari da.

Elkarrizketa digitalak **BERRIA.INFO**n

Bihar, apirilak 14, asteazkena, 17:00etan

**Bakartxo Ruiz**

*Hamaika Bil Gaitezen mugimenduko bozeramailea*

zuzenean zure galderei erantzuteko prest.

*Aldez aurretik egin ditzakezu galderak:*
berria.info*n bertan*

AUKERA EZAZU, BIZI EUSKARAZ **berria**

**Publizitate enpresa batek KOMERTZIALAK behar ditu DONOSTIAN LAN POLTSA OSATZEKO**

Eskaintzen da:
- Etorkizuneko proiektu batean parte hartzeko aukera.
- Lan baldintza interesgarriak

Eskatzen da:
- Euskaraz jakitea ezinbestekoa da.
- Izaera dinamikoa izatea eta harremanetarako gaitasuna edukitzea.
- Autoa izatea
- Komertzial gisa eskarmentua izatea

Kontuan hartuko da:
- Publizitate komertzial lanetan eskarmentua izatea.
- Donostiako txokoak ongi ezagutzea

Bidali curriculum zehatza **gizabaliabideak@jarduna.net** helbide elektronikora, **KOM-LP2010 erreferentzia** zehaztuz, apirilaren 21a baino lehen.

# Atsedenaren gozoa



## Zonakako defentsa
Andoni Urbistondo

Zazpi urte, hilabete bat eta ia hiru aste pasatu dira 2003ko otsailak 20 egun zituenetik. Ehunka egun, eta batbatean atsedena, lasaitasuna. Amaigabeko zama astun-astunaren ostean. *Egunkaria auziko* akusatuek bizkar gainetik kendu dutena. Zama arinagoa dute Lagun Aroko kirol arduradun eta jokalariek, baina astuna, neurri batean. Urrira arte atsedena hartzeko aukera paregabea izan zuten Estudiantesen aurka, baina hegan egin zuen aukerak. Eskura dute, halere. Askoz zama arinagoa dute Baskoniako zaleek. Arduratuta zeuden, Lauko Finaletik at geratu ostean, baina taldea bere pausoa berreskuratzen ari dela dirudi. Atseden beharrik ez dute Bizkaia aldean. Zortzi garaipeneko bolada eten da, bai, baina aste hau festa astea da, ez damutzeko astea. Europako txapeldun izan litezke. Ondo esan dugu: Europako txapeldun.

### Eskuan izan dute

Ez al dira damutuko... Hala ez izatea espero dugu. Lagun Arok esku-eskura izan zuen mailari eusteko lorpena, 32 segundora, baina ihes egin zion garaipeak azken unean. Agian partida parekatuetan eskarmenturik ez dutelako. Agian azken uneko jokaldiak jokatzen ez dakitelako. Kontua da jakin beharko luketela suposatzen dela, bestela akabo. Lagun Arok bi jokaldi izan zituen Madrildik garaile irteteko, eta bietan egin zuen kale. Kale baino gehiago, ez baitzuen jaurtitzeko zirrikiturik bilatu bi jokaldietan. Are gehiago, defentsan nahiko partida txukuna egin ondoren, Estudiantesen azken jokaldian trakets aritu ziren, eta Albert Oliver joko antolatzaileak ez zuen oztoporik bilatu saskiraino. 74-73, eta sufrimendua. Taldearen patua ote? Bost jardunaldi geratzen dira. Murtziak maila galdu du, eta Xacobeok ere etorkizun beltza dauka. Lagun Arok baino beltzagoa, eta ez da gutxi. Bi taldeen arteko aldea bi garaipenekoa da, baina berdinketa ematen bada, galiziarrek dute abantaila. Cajasol eta Valentzia dira haien hurrengo bi partidak. Bartzelona eta Valladolid Lagun Arorenak. Begi bat Donostian, eta bestea Compostelan. Gaixo baten komeriak. Sendatuko al da garaiz?

### Ugazaba bueltatu da

Alegia, Tiago Splitter. Partidak taldeak irabazten ditu, bai, baina brasildarraren eragina erabatekoa da. Erreferentzia da eraso guztietan, indartsuena blokeoetan, eraginkorrena errebote tean, barnekaldi gehien saihesten dituen beso luzeko jokalaria... Hankamotz ibiltzen da taldea bera gabe, eta bere jarduna erabakigarria izango da liga bukaeran. Datuak ez dute gezurrik esaten. Splitterrek parean izan zituen aurkari guztiak ibili zituen hankapean, eta taldeak kontrolpean eduki zuen garaipena. Hirugarren falta egin zuen 24. minututuan, eta aulkian eseri zuen Ivanovicek. 42-57 zen aurretik Baskonia. Bost minutu geroago bueltatu zen, Cajasol 57-59 hurbildu ostean. Oleson ere txukun aritu zen, Herrmann bezala, baina berriak ez dira hain onak Pau Ribas eta Carl Englishentzat. Ribasek galduta jarraitzen du, bere lekua bilatu ezinik. Okerragoa da Englishen kasua, hura ere galduta dabilelako, baina saiatzeko batere borondaterik gabe. Ivanovicek loreak bota zizkien jokalariei, eta hori ez da normala. Hiruzpalau aldiz gertatzen da denboraldi osoan. Baskoniak bigarren postuan bukatu nahi du liga erregularra. Hiru aste barru Vistalegren jokatuko du Real Madrilen aurka. Han erabakiko da bigarren talde onenaren jabea.




Golubovic Baskoniakoa, Cajasoleko bi jokalarirekin lehia, herenegun. J.M. / EFE

### Pazientzia

Bizkaia Bilbo Basketeko entrenatzaileek Valentzian galdu ostean erakutsi dutena, liga bukatu bitarteko bost jardunaldietan eduki behar dutena. Bederatzigarren postura jaitsi dira sailkapenean, eta bolada ona bukatu da, baina hiru partida etxean jokatuko dituzte, bi aurkari zuzenen aurka, eta liga erregularrean zortzi onenen artean sailkatzeko aukera handia dute. Aste hau, ordea, berezia da. *Guztiok gaude, zu falta zara* kanpaina aurkeztu zuen atzo taldeak, eta Lauko Finalak bereganatu du arreta guztia. Europako txapeldun izateko aukera oso gutxitan izaten delako. Batek daki hurrengoa noiz izango den.

## Asteko onena

▪ **Tiago Splitter.** 20 puntu eta 10 errebote, gero eta hobeto dagoela baieztatzeko. Baskoniako arima da, makulua, bizkarrezurra. Splitterrek ondo jokatzen badu, garaipena gertuago dauka taldeak. Ekainaren 30a ere gero eta gertuago dago. Egun hori izan liteke Splitterren azkena Baskonian. Hain ondo jokatzen jarraitzen badu, bai.

## Asteko txarrena

▪ **Carl English.** Lauko Finaletik at geratu izana gehien ordaindu duen jokalaria izan da. Hasierako bostekoan zeukan lekua kendu dio Olesonek, eta apenas jokatzen ari da 12 minutu partidako. Jokatzen duenean ere ezinean dabil, jaurtiketan asmatu ezinik, eta baloi asko emanez. Defentsa lanerako daukan jarrera txarra, da, dena den, okerrena.

## Talde onena

▪ **Unicaja.** Ligako zortzi onenen artean lekua egin nahi du nola edo hala, eta gorantz egin du azken asteetan. Seigarren postuan daude orain, baina eskura dute bosgarrena. Valentzia aldean beldurtzen hasi dira, haien aurka jokatuko luketelako lehen kanporaketa. 25 milioi euro balio dituen taldeak beti ematen du neurria. Berandu, baina garaiz.

## Talde txarrena

▪ **Murtzia.** Kontu jakina zen, baina maila galdu du, Kanaria Handian galdu ondoren. Gaizki hasi ziren, soldatak jasotzeko komeria handiekin, eta gaizki bukatu dute, kirol egoera txarrari buelta eman ezinik. CAI Zaragozak hartuko du bere lekua hurrengo denboraldian ia ziur, sos faltak Urrezko LEB ligara eraman duen talde historikoa.

## Sailkapena

**ACB LIGA**
**29. jardunaldia**

| Jokatutakoak | Emaitza |
|---|---|
| Estudiantes-**Lagun Aro GBC** | 74-73 |
| Cajasol-**Caja L. Baskonia** | 65-78 |
| Xacobeo-Alacant | 65-91 |
| Joventut-Unicaja | 67-90 |
| Granada-Fuenlabrada | 86-75 |
| Bartzelona-Real Madril | 78-73 |
| Valentzia-**Bilbo Bizkaia Basket** | 83-75 |
| Valladolid-Manresa | 68-74 |
| Kanaria Handia-Murtzia | 95-91 |

| | J | I | G | PA | PK |
|---|---|---|---|---|---|
| ■ 1. Bartzelona | 29 | 27 | 2 | 2348 | 1880 |
| ■ 2. Real Madril | 29 | 23 | 6 | 2359 | 2074 |
| ■ 3. **Baskonia** | 29 | 23 | 6 | 2332 | 2130 |
| ■ 4. Valentzia | 29 | 20 | 9 | 2256 | 2186 |
| ■ 5. Cajasol | 29 | 16 | 13 | 2051 | 1997 |
| ■ 6. Unicaja | 29 | 15 | 14 | 2307 | 2169 |
| ■ 7. Estudiantes | 29 | 15 | 14 | 2255 | 2233 |
| ■ 8. Kanaria Handia | 29 | 14 | 15 | 2194 | 2199 |
| 9. **Bizkaia Bilbo B.** | 29 | 13 | 16 | 2177 | 2177 |
| 10. Granada | 29 | 13 | 16 | 2248 | 2311 |
| 11. DKV Joventut | 29 | 13 | 16 | 2215 | 2291 |
| 12. Manresa | 29 | 12 | 17 | 2076 | 2205 |
| 13. Fuenlabrada | 29 | 12 | 17 | 2197 | 2327 |
| 14. Valladolid | 29 | 11 | 18 | 2134 | 2245 |
| 15. Alacant | 29 | 11 | 18 | 2164 | 2286 |
| 16. **Lagun Aro GBC** | 29 | 10 | 19 | 2161 | 2291 |
| ▪ 17. Xacobeo | 29 | 8 | 21 | 2171 | 2391 |
| ▪ 18. Murtzia | 29 | 5 | 24 | 2143 | 2396 |

■ Kanporaketetara ▪ Urrezko LEB Ligara

**30. jardunaldia (apirilak 17 eta 18)**

| Larunbata | Ordua | TB |
|---|---|---|
| **Lagun Aro**-Bartzelona | 18:00 | La 2 |
| Fuenlabrada-**Caja Laboral** | 19:30 | |
| **Igandea** | **Ordua** | **TB** |
| Xacobeo-Cajasol | 12:30 | |
| Unicaja-Estudiantes | 12:30 | |
| Real Madril-Valladolid | 12:30 | |
| Murtzia-Joventut | 12:30 | |
| Manresa-Granada | 19:00 | |
| Alacant-Valentzia (mart. 27) | 21:00 | |
| **Bizkaia B. B.**-Kan. H. (maiat. 4) | 20:15 | ETB1 |

**ESTATISTIKAK**

| Puntuak partidako | |
|---|---|
| 1. Jaycee Carroll (KNH) | 19,4 |
| 2. Gerald Fitch (FUE) | 18,5 |
| 3. Milos Vujanic (MUR) | 17,4 |
| 4. Clay Tucker (DKV) | 16,7 |
| 5. Kostas Vasileiadis (XCB) | 16 |
| 6. Tiago Splitter (CLB) | 15,8 |
| 7. Juan Carlos Navarro (BAR) | 15,4 |
| 8. Esteban Batista (FUE) | 14,3 |
| 9. Mirza Teletovic (CLB) | 13,9 |
| 10. Marko Banic (BBB) | 13,9 |

| Erreboteak partidako | |
|---|---|
| 1. Esteban Batista (FUE) | 8,85 |
| 2. Paulao Prestes (MUR) | 7,29 |
| 3. Chris Moss (MUR) | 7,19 |
| 5. Richard Hendrix (GRA) | 7,14 |
| 5. Tariq Kirksay (CAJ) | 7,04 |
| 6. Andy Panko (LGA) | 6,86 |
| 7. Tiago Splitter (CLB) | 6,8 |
| 8. James Augustine (KNH) | 6,76 |
| 9. Nik Caner-Medley (EST) | 6,57 |
| 10. Lamont Barnes (VAL) | 6,17 |

| Asistentziak partidako | |
|---|---|
| 1. Omar Cook (UNI) | 6,07 |
| 2. Marcelinho Huertas (CLB) | 5,14 |
| 3. Maxi Stanic (XCB) | 4,96 |
| 4. Ricky Rubio (BAR) | 4,45 |
| 5. Kristaps Valters (DKV) | 4,43 |
| 6. Marcus Norris (KNH) | 4,1 |
| 7. Earl Calloway (CAJ) | 3,97 |
| 8. Albert Oliver (EST) | 3,66 |
| 9. Clay Tucker (JOV) | 3,54 |
| 10. Pablo Prigioni (RMA) | 3,38 |

| ACBko balorazioak | |
|---|---|
| 1. Tiago Splitter (CLB) | 21,2 |
| 2. Gerald Fitch (FUE) | 18,5 |
| 3. Carlos Suarez (EST) | 18 |
| 4. Richard Hendrix (GRA) | 17,4 |
| 5. Andy Panko (LGA) | 17 |
| 6. Esteban Batista (FUE) | 16,6 |

Soslaia

# Efren Vazquez
## Heldu da garaia

Itxaron behar izatea are deserosoagoa da zaharrena zu zarenean. 24 urte bete gabe izanda ere zure garaia pasatu dela entzun behar duzunean, eta zure alboan lehiatzen diren pilotu gehienak nerabeak direnean. Itxaronaldian oztopoak badituzu gainera: lesio larriak, babesleak aurkitzeko arazoak... eta zure lanabesa, motorra alegia, motelagoa dela nabaritzen baduzu, pazientzia bertute ia jainkotiar bihurtzen da. Efren Vazquezek hiru urtez itxaron du, unearen, motorraren, eta zortearen zain, eta azkenean badirudi loria dastatu ahal izango duela. Herenegun bigarren izan zen Qatarko Sari Nagusiko 125 cc.ko proban, eta ez da izango sasoiko podium bakarra, heldu baitzaio garaia.

Errekaldeko gidariak Herri Torrontegi besarkatu zuen lehenbizi garaipena ospatzean. Bere irakasle, lagun, mentore... Biek eskutik egin dute bidea, Euskal Herriko motoziklismoaren bi kate begiren arteko lotunea. Plentziako pilotuak duela 16 urte zapaldu zuen azkenekoz podiuma munduko txapelketako lasterketa batean, eta hartaz geroztik euskal motoziklismoa itzalean izan da. Vazquezekin, baina, ikusmina piztu da berriz, hor ere heldu da garaia.

Vazquezek gandorra erakusteko aukera du, sasoi aurreko emaitza onak errealitate bilakatu baitira. Arazo fisiko gabe lasai entrenatu du, eta urteen eskutik patxada, eskarmentua eta ezagutza lortu ditu; eta lehiatzeko moduko motorra. Makinak ez du pilotuak baino garrantzia gehiago, baina zilindro lehiakorrik ezean ezer gutxirako balio du bihurguneetan belaun buruak zuritzeak. Eta hori ere sasoi honetan lortu du Vazquezek, Losailen ikusi zen, erritmoa berak jarri zuen, eta azken zuzengunean motorraren indarrari esker maila bat igo zuen podiumean.

«Munduko txapeldun izatea ez da helburua. Duela sei urte egun lehiatzen jarraituko nuela esan balidate ez nuen sinetsiko. Helburua goian egotea da, eta hiru sari nagusiren faltan hor bagaude...». Zuzen dabil Vazquez, baina lehen lasterketa sasoi guztian egin dezakeenaren lagina da. Bilbotarraren aurretik Nico Terol (Aprilia) sartu zen, txapelketa irabazteko faborito nagusia. Moto GPn, berriz, Valentino Rossi (Yamaha) izan zen bizkorrena, eta Moto 2n Shoia Tomizawak (Suter) lau segundotik gorako aldea atera zion bigarrenari. ▪ **IMANOL MAGRO**



LOSAIL DE DOHA / EFE

### ↓ Nortasun agiria

- **Jaioterria.** Bilbo.
- **Jaioteguna.** 1986ko irailak 2.
- **Garaiera.** 1,55 metro.
- **Pisua.** 60 kilo.
- **Taldea.** Derbi.
- **Debuta.** 2007ko irailean (250 cc.), Britainia Handiko Sari Nagusian.
- **Lorpen garrantzitsuenak.** 2. postua Qatarko S. N. (2010, 125 cc). 5. postua Espainiako S. N. (2009, 125 cc.). Espainiako txapeldun (2008).

### ↓ Soslaia

# Fabian Cancellara
## Non emango du hurrengoa?

Gutxi dira horretarako gaitasuna daukaten txirrindulariak. Gauza bat da lasterketak irabaztea, edo etapa garaipenak bata bestearen atzetik pilatzea. Ezin merituri ukatu hori lortzen duten ziklistei, ez, baina beste kontu bat da aldiro-aldiro erakustaldiak ematea, eta, gaur bai eta bihar ere bai besoak altxatzea. Hori ia ezinezkoa da. Horregatik, Fabian Cancellarak (Saxo Bank) ikusmina pizten du lasterketa batean lehiatu behar den bakoitzean. Beti. Ikuskizuna ziurtatuta dagoelako. Cancellara bizikletaren gainean eta egurrean ikustea gozamena delako. Paris-Roubaixen, *Iparraldeko Infernuan,* herenegun egin zuena, adibidez, sekulakoa izan zen. Sinestezina. Ziklismoan aspaldian ikusi den gauzarik harrigarriena. Beraz, txirrindularitza zaleek eta txirrindulariek beraiek galdera bara egiten diote elkarri: non emango du Cancellara *Espartacok* hurrengo erakustaldia?

Izan ere, argi dago, eman, emango duela. Lieja-Bastogne-Lieja irabazi nahi du; txirrindularitzako monumentuetako bat, alegia, Milan-San Remo, Flandriako Tourra, Paris-Roubaix eta Lombardiako Giroarekin batera. Suitzarrak jada, monumentuetako hiru irabazi ditu. Paris-Roubaixen 2006an nagusitu zen aurrenekoz, eta *Classicissiman*, aldiz, 2008an. Flandriako Tourrean, berriz, orain zortzi egun pasatxo. Orduan egin zuenak ere aho bete hortz utzi zuen mundu guztia. Tom Boonen (Quick Step) beste faborito nagusiarekin batera heoldu zen azken muino gogorrera, Kapelmuur mitikora, eta hango harbidean xehetu egin zuen belgikarra. Bizikletaren aulkitik altxatu gabe atzeratu zuen Cancellarak Boonen.

Aurten Flandriako hitzordua zeukan begiz jota. Baina herenegun irabazita, handia egin du bide batez. Hamar txirrindularik soilik irabazi dituzte apirileko aurreneko bi klasiko handiak urte berean. Eta hamar horietatik bi baino ez dira Belgikatik kanpo jaiotakoak. Kasualitatea da, baina suitzarrak biak: Henri Suter (1923) eta Cancellara bera. Hamarraldi honetan, aldiz, Peter Van Petegemek (2003) eta Boonenek (2005) egin dute balentria hori. Boonenek berak aurten hori errepikatzeko moduan zegoela uste zuen, baina Cancellarak haren sua apaldu du lasterketak jokatu ahala.


DIRK WAEM / EFE

### ↓ Nortasun agiria

- **Jaioterria.** Berna (Suitza).
- **Jaioteguna.** 1981eko martxoak 18.
- **Garaiera.** 1,83 metro.
- **Pisua.** 80 kilo.
- **Taldea.** Saxo Bank.
- **Garaipenak sasoi honetan.** Omango Tourreko sailkapen nagusia, E3 Pijs Vlaanderen, Flandriako Tourra, eta Paris-Roubaix

Joan den martxoaren 27an, E3 Prijs Vlaanderen proban, Cancellarak lehen kolpea eman zion, ihes eginda irabazita. Apirilaren 5ean, Flandriako Tourrean, bigarrena. Eta herenegun, hirugarrena.

Dena den, harrotu egin zitzaion Boonen *Espartaco*-ri; Cancellarari, alegia. Arenbergeko harbidean faboritoen multzotik tiraka hasi zen. Garailea, baina, han zeukan atezuan. Eta Mons en Pevelen, harbide zati gogorrenetako batean, sartu baino lehenago erasoa jo zuen. Urruti, helmugatik 50 kilometrora. Aurretik zihoazenak harrapatu, eta di-da batean utzi zituen atzean. Bjorn Leukemansek (Vacansoleil) keinu adierazgarria egin zuen Cancellarak aurreratu zuenean, «nora hoa!» esanez bezala .

35 kilometrotan hiru minutu atera zizkien beste faboritoei. Gero, Roubaixeko belodromora helmugaratu ahala, erlaxatu ere egin zen. Hartara, maillotean gordetako urrezko aingerutxoa atera zuen berriro, astebete lehenago egin bezala. Orain ondokoa da egin beharreko galdera: non aterako du berriro? ▪ **IGOR SUSAETA**

## → Laburrak

### Athleticek irabazi egin zuen, eta Realak galdu

**FUTBOLA ›** Athleticek 2-3 irabazi zion herenegun Prainsari. Hala ere, zuri-gorriek oso zail dute titulurako kanporaketa jokatzea, ligaxka amaitzeko bi partida falta direla, Rayok bost puntu ateratzen baitizkie. Realak, bestalde, 1-3 galdu zuen Bartzelonaren aurka.

### Eurokopako onena aukeratu dute Banic

**SASKIBALOIA ›** Marko Banic Bilbo Basketeko pibot kroaziarra aukeratu dute denboraldi honetako Eurokopako jokalari onena. Banicek 13,2 puntu eta 4,1 errebote lortu ditu batez beste partidako Eurokopako partidetan.

### Irabazi arren, jaitsieran jarraitzen du Bera Berak

**ERRUGBIA ›** Pegamo Bera Berak 37-19 irabazi zion herenegun Quesos Entrepinaresi, baina, hala ere, donostiarrek jaitsiera postuetan jarraitzen dute, Santboianak ezustekoa eman baitzuen El Salvador liderraren zelaian irabazita (14-23). Bizkaia Gernikak, berriz, 38-10 irabazi zion Les Abellesi, eta AMPO Ordiziak 27-23 galdu zuen Madrilen aurka.

### Beste sei aizkolari aurrera Urrezko Aizkolarien lehian

**AIZKORA ›** Urrezko Aizkolarien Banakako Txapelketako hiru kanporaketa jokatu ziren asteburuan, eta sei aizkolari pasatu ziren hurrengo kanporaketara: Ruben Saralegi, Jose Ugartebururu, Felix Etxeberria, Juanjoxe Erdozia, Arkaitz Olano eta Aritz Irazabal.

# Maiatzaren 2an jokatuko du Miarritzek Heineken kopan

Lapurtarrek aurkari izango dute Munster Irlandako talde indartsua finalerdietan

**Erredakzioa** Baiona

Miarritzek maiatzaren 2an jokatuko du Munsterren aurkako Heineken kopako finalerdia (16:15). Finalerdietako beste partida, berriz, egun bat lehenago jokatuko dute Tolosak eta Leinsterrek Frantziako hirian (16:45). Bi partidetako irabazleek maiatzaren 22an jokatuko dute finala, Parisen.

Lapurtarrek ez dute oroitzapen onik Irlandako taldearen aurka jokatu zuten azken aldiaz. 2006ko maiatzaren 20an izan zen, Cardiffeko Millenium estadioan, Heineken kopako finalean. Munsterrek irabazi zuen finala eta titulua: 19-23.

**Bat irabazi eta bi galdu**

Miarritzeko zaleek, hala ere, badute zeri heldu itxaropenari eusteko. Eta Anoeta da hori. Izan ere, bi taldeek Donostiako estadioan elkarren aurka jokatu duten aldi bakarrean Lapurdiko taldea nagusitu zen. 2005eko apirilaren 3an izan zen, Heineken kopako final-laurdenetan. Egun horretan 19-10 hartu zuten mendean miarriztarrek Munster. Garaipen horrekin, gainera, lau urte lehenago txapelketa eta kanporaketa berean jasotako porrotaren mendekua hartu zuten. 2001eko urtarrilaren 28an, Munsterrek 38-29 irabazi zion Miarritzeri.

Lapurtarrek bezala, irlandarrek ere partida bakarra galdu dute sasoi honetan Heineken kopan. Ligaxkako lehen partidan izan zen, Northamptonen aurka (27-31). Ordutik, jokatutako sei partidak irabazi egin dituzte. Azkena, joan zen larunbatean, final-laurdenetan, Northamptonen aurka. Irlandarrek nagusitasun osoz irabazi zieten ingelesei (33-19).

## Irudia ▸ Augusta (AEB)



## HIRUGARREN JAKA MICKELSONENTZAT

Phil Mickelson estatubatuarrak hirugarrenez irabazi zuen Augustako Mastersa atzo, sasoiko lehen Grand Slama. Mickelsonek hiru kolpeko aldea atera zion Lee Westwood ingelesari, eta laukoa Anthony Kim herrikideari. Tiger Woods, berriz, laugarren izan zen, bost kolpera. Argazkian, Angel Cabrera argentinarra, iazko irabazlea, Phil Mickelsoni jaka berdea jartzen, atzo. MATT CAMPBEL / EFE

# Arretxe II.ak eta Zubietak eskuak oso justu dituzte buruz burukoari ekiteko

Asteburu honetan 2. Mailako partidak dituzte, eta probak egingo dituzte jokatu edo ez erabakitzeko

**Erredakzioa** Donostia

Iker Arretxek eta Aitor Zubietak asteburu honetan jokatu behar dituzte 2. Mailako buruz buruko txapelketako lehen partidak, eta biek, eskuko minez, zalantzak dituzte. Zubietak ostiralean du partida, Urretxun, Aritz Lasaren aurka; eta Arretxek astelehenean, Tolosan, Mikel Urrutikoetxearen kontra. Etxarriko atzelariak eskuetatik oso justu bukatu zuen txapelketa, eta Jokin Etxanizekin entrenamendu bat egin nahi du jokatzeko moduan dagoen ikusteko. Arretxe II.ak, berriz, eskuin eskua oso minduta zuela bukatu zuen Iker Zabalaren aurkako atarikoa. Minak asko hobera egin ezean oso zail izango du jokatzea.

## ↓ Jaialdiak

### IGANDEKO EMAITZAK

▪ **Eibar.** Xala-Merino 22; Olazabal-Pascual 21. Retegi Bi 22; Beroiz 13. Apezetxea-Ladis Galarza 18; Ibai Perez-Galarza VI.a 14.
▪ **Donapaleu.** Ibarrola-Ducassou 27; Sorhuet-Ozafrain 40.

### BIHARKO PARTIDAK

▪ **Deportivo (17:00).** Iriondo-Larrinaga / Garcia-Aierbe. Fusto-Garma / Urkijo-Lujan.




www.berria.info · Azken albisteak · Sailkapenak · Ibilbidea · Parte-hartzaileak · Palmaresa

SARIDUNAK

ORBEA etxeak emandako bizikleta bat

▪ Ingartzi Ormazabal (Errenteria)



ORBEA

ETXE-ONDOK emandako ekipamendua

▪ Paco Kerexeta Zurutuza (Beasain)
▪ Jose Javier Uriguen Aranaz (Gernika)
▪ Nestor Xabin Leunda Apalategi (Irun)
▪ Ainhoa Agesta Aguirre (Sunbilla)
▪ Milagros Balerdi (Usurbil)

ETXEONDO SPECIAL CYCLING

Saridunek etxean jasoko dute ekipamendua.

# Agenda ›



Rien taldeak bi disko kaleratu ditu. BERRIA

## Frantziako post rocka, Bilbon

Rien eta Scum to the Leader taldeek kontzertua emango dute gaur, 20:00etan, Bilboko L'monon.

**Ane Olaizola** Donostia

Rien eta Scum to the Leader musika taldeen kontzertua ikusteko aukera izango da gaur, 20:00etan, L'mono aretoan, Bilbon.

Rien 1999. urtean sortu zuten, Frantzian. Post rock eta indie-folk doinuak lantzen ditu, erritmo esperimentalei bidea emanez. Bost lagunek osatzen dute taldea, eta gaur egunera arte bi disko kaleratu dituzte: *Requiem pour des baroqueux* eta *There can't be any prediction without future*. Euren doinuetan, berriz, hainbat talderen eragina antzeman daitezke; Mahjongg, Animal Collective, Dirty Projectors, Deerhoof, Sonic Youth, The Beatles, Radiohead eta Nirvana taldeenak.

Frantziako eta Belgikako jaialdietan hartu izan dute parte, eta orain arteko diskoek harrera ona jaso dute, oro har. Ez da Euskal Herrira etortzen diren lehenengo aldia, izan ere, 2007. urtean, Bilbon eman zuten kontzertua. Halaber, kontzertu bira honetan, hurrengo hilabetetan kaleratuko duen laneko hainbat abesti entzuteko aukera ere izango da, eta Euskal Herrian emango duen kontzertu bakarra izango da gaurkoa.

Scum to the Leader taldea, berriz, Bilboko hiru gaztek osatzen dute, eta rock gogorra eta hardcore doinuak gogoko dituzte.

**RIEN ETA SCUM TO THE LEADER**

- **Noiz.** Gaur, 20:30ean.
- **Non.** L'mono aretoan, Bilbon.
- **Sarrera.** 6 euro.

## Lan prestakuntza hizpide

Felix Generabarrenak ekingo die gaur 'Lanbide Heziketaren astea' jardunaldiei Arrasaten

**A.O.** Donostia

1. Soroslea, laguntza emailea. 2. Oldarra. Zail. 3. Nola halakoa, hala-holakoa. 4. Moztu. (Zah.) Zakur. Garai. 5. Naizen hau. Unai bihurtu. Baldintza partikula. 6. Erromatarren garaiko bainuak. Zuhaitz mota. 7. Kontu handiz. Partaide. 8. Atzizki femeninoa. Ipar Euskal Herrian, arbaso. Erbioaren ikurra. 9. Uranioaren ikurra. Bat. Itsasoko mugarria. Abederako azken hizkia. Röntgen. 10. Zein tokitako. Barazki mota. 11. Hondatu. Pirinioetako lurraldea, hizkuntzaz okzitaniarra. 12. Portu. Emakume izena.

**Goitik behera**

1. Lehen mailako xedeak. 2. Arabiarren hizkuntza. Ez txarra. 3. Ospakizun dotorea. R bikoitza. Amerikar jatorria adierazten duen aurrizkia. 4. Usoaren txitoa. Germanioa. 5. Deklinabideko kasua, ergatiboan. 6. Aparkalekuak arautzen dituen ordenantza. (Her.) Akabatu. (Her.) Eta. 7. Kontsonantea. Ozta. Zauzkat. 8. Agur egin. Putre. Lehen bokala. 9. Joan den urtean. Gizon izena. Telebista sistema. 10. Gai itsaskor. Atzizkia. Kolore argi. 11. Hiribide. Behar. 12. Gari-sorta. Esana.

### Sudokua

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 9 | | | | | 7 | | | |
| | | | | | | | | 5 |
| | 7 | 3 | 4 | | 8 | | | |
| | | 6 | 9 | | | 7 | 4 | |
| 1 | | | | 6 | | | | 3 |
| | 4 | 9 | | | 2 | 1 | | |
| | | | 7 | | 9 | 2 | 6 | |
| 3 | | | | | | | | |
| | | | 8 | | | | | 1 |

9x9-ko laukian hutsik dauden gelaxkak bete behar dituzu, 1etik 9ra bitarteko zenbakiak idatziz, eta kontuan izanik zenbaki bakar bat ere ez dela bi aldiz azaltzen errenkada eta zutabe berean, ezta dagokion 3x3-ko laukian ere.

### Esaldi ezkutua

«_r_ b_z_l_k__ d_
m__t_s_n_, _n_rk
h_rr_tz_n _z b_d_
g_ld_ _g_t_n d_».

Falta diren bokalak idatzita, Arturo Graf idazle italiarraren gogoeta bat azalduko zaizu.

### Atzoko erantzunak

| | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| U | R | D | A | I | A | Z | P | I | K | O | A |
| G | A | R | A | T | U | ■ | A | R | A | T | Z |
| A | B | A | ■ | U | Z | K | U | R | ■ | E | A |
| Z | A | M | A | R | I | A | ■ | I | A | ■ | L |
| A | T | A | R | R | A | M | E | N | D | U | A |
| B | ■ | T | R | I | K | U | ■ | T | E | R | ■ |
| A | B | I | O | A | ■ | S | U | Z | I | R | I |
| ■ | E | Z | A | ■ | E | T | S | I | T | U | A |
| A | R | A | K | A | T | U | A | ■ | A | T | ■ |
| N | A | Z | ■ | S | E | ■ | D | O | S | I | A |
| O | T | I | A | K | ■ | D | I | T | U | ■ | L |
| A | Z | O | K | A | K | ■ | O | I | N | K | A |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 5 | 9 | 4 | 7 | 8 | 2 | 1 | 3 | 6 |
| 7 | 8 | 6 | 5 | 1 | 3 | 4 | 2 | 9 |
| 2 | 3 | 1 | 9 | 4 | 6 | 7 | 8 | 5 |
| 6 | 4 | 7 | 8 | 3 | 1 | 5 | 9 | 2 |
| 3 | 5 | 9 | 2 | 7 | 4 | 6 | 1 | 8 |
| 8 | 1 | 2 | 6 | 5 | 9 | 3 | 4 | 7 |
| 1 | 6 | 5 | 4 | 9 | 8 | 2 | 7 | 3 |
| 9 | 2 | 3 | 1 | 6 | 7 | 8 | 5 | 4 |
| 4 | 7 | 8 | 3 | 2 | 5 | 9 | 6 | 1 |

**Esaldi ezkutua:** Etsairik ez duenak ez du benetako lagunik izaten.

Komunikazioa →

# Kaczynski bat baino gehiago



**Ekografiak**
Eñaut Gantxegi

Halaxe da bai, eta Polonian dauden guztiak kontuan hartuz gero, argi dago Kaczynski abizena oso zabaldua dagoela. Berriki portadetara igaro da abizen hori, batez ere Lech Kaczynski lehendakariak izan duen hegazkin istripua dela eta; istripua zerk edo nork eragin duen oso argi ez dagoen arren, emaitza berbera izan da: hegazkinean zihoazen bidaiariak hilda. Presidente ohi horren kasuak, gainera, beste berezitasun bat duela esatea ez da ezer berria; anaia bikiaz eta gobernuan izateaz ari natzaizue. Walesa ultrakatolikoak famatu egin zuen Solidarnosc delakoan karrera politikoa hasi bazuen ere, azken urteotan Bakearen eta Justiziaren alderdiko buruetako bat zen —ez didazue ukatuko komikietako superheroien talde baten antza duenik alderdiaren izenak—, haren anaiarekin batera gobernuaren gorenera iritsiaz. Orain bai, halako gobernu sistemetan izaten dudan kezka izan dut berriro ere: nork du botere gehiago, lehendakariak (Lech) edo lehen ministroak (Jaroslaw anaia bikia)? Nor izango zen benetan burua? Eta Abelen eta Kainen parabola gaurregunekotu baten aurrean bagina? Auskalo. Europa ekialdeko herrialde honetan ez ezik, mundu osoan oihartzuna izan du, eta *Katingo masakrea* esan zioten II. Mundu Gerrako pasarte ilunari buruz errusiar mandatarien eskutik barkamenak jasotzera zihoanean, bera eta beste 96 bidaiariren akabera izan zen. Barkamenen harira, eskertzekoa litzateke —beharrezkoa litzatekeela ez esatearren— espainiar gobernuak zintzoki euskaldunen aurka zer edo zer egingo balu; topikoa izan daiteke, baina Gernikan oraindik zain daude.

Hala ere, Kaczynski bikien abizena ez da beren monopolioa, eta mundu osoan barreiaturik hainbat dabiltza. Horietako bat Theodore Kaczynski zientzilaria. Izen horrekin baliteke ez ezagutzea, baina *Unabomber* esanda agian? Tira, hori esanda ere oraindik ezagutzen ez duzuenentzat, esan industrializazio basatiaren aurkako aktibista bat izan zela, heriotza batzuk eragin bazituen ere, berak ekindako bidea arriskutsutzat jo zuen gobernu yankiak eta historian sorrarazi dion ikerketarik garestienetako bat izan zela hura aurkitzeko operazioak. Ia bi hamarkaden ostean, ordea, haren etsairik okerrena, haren anaia izan zela argi geratu zen, poliziari hainbat pista argigarri emanaz. Hori ba, mundua Kaczynskiz betea dagoela.

# Telebistaren eta Interneten arteko nahasketa probatu dute Katalunian

Europan aitzindaria da egitasmoa, eta hainbat aukera ematen dizkio ikusleari ikusi nahi duena kontrolatzeko

**Edu Lartzanguren**

Telebista eta Internet elkarri lotzeko proba saioa egin du martxoan Kataluniako ikusentzuneko hedabideen korporazioak (CCMA). Europan aitzindaria da egitasmoa, eta hainbat aukera ematen dizkio ikusleari programazioa aukeratzeko, eduki osagarriak ikusteko eta ikusten ari denaz zuzenean iritzia emateko.

Proba Bartzelonako 20 familiarekin egin dute. Gailu bat jarri diete etxean, Interneterako lotura duena eta lurreko telebista digitala jasotzen duena. Gailuaren bidez, probarako propio eraturiko zerbitzu elkarreragilea erabili ahal izan dute. Horri esker, Televisio de Catalunyako lau kanalak, eduki gehigarriak eta Interneten bidez zabaltzen diren kanalak eta saio zaharragoak ikusteko aukera izan dute.

Telebistako saio zaharrak berreskuratzeko ordenagailua behar dute orain ikusleek. Proban parte hartu dutenek eduki horiek telebistan ikusi ahal izan dituzte, telekomandoari klik gutxi batzuk eginez. Zuzeneko emanaldiak ere ikusi ahala grabatu egiten ditu sistemak, eta ikusleek nahi dutenean gera dezakete eta atzera egin.

**Lehen saioa Europan**

Antzeko egitasmo bat abiatu zuten Erresuma Batuan 2008ko abenduan, BBCren gidaritzapean. *Canvas Project* horretan, ordea, ez dute oraindik probarik egin ikusleekin. Kataluniako egitasmoa, beraz, aitzindaria da.

«Prestatzen ari gara honek eztanda egingo duenerako», dio Silvia Costa egitasmoaren koordinatzaileak. Egitasmoaren bitartez, ikasi nahi izan dute nola moldatu ekoizpena eta edukiak zabaltzeko prozesua Interneten aroroko. «Zer motako kontsumoa datorren ikusteko eta horretan trebatzeko asmoa da».

Dekodetzeko gailu merkea erabili dute, inongo ordainpeko plataformari lotu gabekoa. Sistema estandar bat garatu dute zerbitzua oinarri ahalik eta irekiena eta unibertsalena izan dezan.

Egunotan jasotzen eta baloratzen ari dira probak eman dituen datuak. Atzo hasi ziren biltzen parte hartu duten familiekin. Proba horren inguruko estatistiketatik ateratako ondorioak maiatzaren erdialde aldera argitaratuko dituzte.



Proba saioaren irudi bat: zuzeneko saio baten gainean, eduki osagarriak eta zaharragoak. BERRIA

**↓ Telebista elkarreragilea**

**AUKERAK IKUSLEENTZAT**

■ **Edukien karta.** Katalunian eginiko proban, zer ikusi nahi duen erabakitzeko aukera izan du ikusleak une oro. Televisio de Catalunyako 100.000 bideo izan ditu eskura. Horrez gain, Kataluniako ikusentzunezkoen korporazioko (CCMA) hedabideetan azken astean agerturiko saio guztiak kalitate handian ikusteko aukera izan dute.

■ **Kanal gehiago.** Lurreko Telebista Digitalaren bidez jasotzen ez diren kanalak ikusi ahal izan dituzte; esaterako, Televisio de Catalunyak Interneten propio sorturikoak. Urteko Kataluniarra Saria emateko ekitaldia ikusi ahal izan dute proba horretan.

■ **Eduki osagarriak.** Zuzeneko emanaldietan ikusleari informazio gehiago ematen dioten edukiak ikusi ahal izan dituzte.

■ **Gizarte sareak.** Facebook Connect aplikazio dakar sistemak. Horren bidez, ikusleek zuzenean eman ahal izan dute iritzia ikusten ari direnaz. Eztabaida saioetan, esaterako, iritzia eman dute telekomandoarekin.

# ETB1en gaztelania sartzea eztabaidatuko dute bihar

Haurrentzako programazioan, gaztelaniazko saioak emateko eskatu du PPk Legebiltzarrean

**Erredakzioa**

ETB1eko haurrentzako programazioan gaztelania sartzeko PPk eginiko eskaera eztabaidatuko dute bihar Gasteizko Legebiltzarrean. Ez du ematen, ordea, proposamena onartuko dutela, PSE-EEk ere osoko zuzenketa aurkeztu duelako.

Ez legezko proposamena aurkeztu du PPk, Legebiltzarrak eska diezaion EITBko zuzendaritzari programazio berria diseinatzeko orduan «kontuan har dezan haurrentzako programazioa gure erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan emateko aukera».

**Osoko zuzenketak**

PSE-EEk eta Ezker Batuak osoko zuzenketak aurkeztu dituzte. Patxi Lopezen alderdiaren testuak Legebiltzarrari eskatzen dio nabarmentzeko «kate publikoa bakarra dela une honetan haurrentzako euskarazko programazioa eskaintzen». Halere, euskaldunen eta erdaldunen «beharrei eta interesei era orekatuan erantzuteko» eskatu dio EITBko zuzendaritzari.

EBk haurrentzako saioetan euskara «mantentzeko eta indartzeko» eskatuko dio EITBri. Horrez gain, taldeko beste kateetara zabaltzeko aukera aztertzeko galdegingo dio.

## Gaurko filmak

# Trailerra hegazkina baino airosoago dabilenean

Ikuspegi klasikoa du Wes Cravenen *Red Eye* filmak, gaur *Vuelo nocturno* izenburuarekin emango digutena *La noche de* saioan. Klasikoa, bi pertsonaiaren arteko dueloa plazaratzen duelako leku txiki eta itxi batean, pertsonaiei irtenbiderik ematen ez diena.

Joseph L. Mankiewiczek zuzenduriko *Sleuth* filma da sagu eta katuaren arteko pizti lehiaren gailurra. Cravenek planteamenduari zuku ateratzen saiatu zen, arrakasta handiko Freddy Kruger pertsonaia sortu ondoren ( *The Hill Have Eyes, Nightmare on Elm Street* eta *Scream*).

Hegazkin berean jarri zituen bidaiari mehatxatua (Rachel McAdams) eta bidaiari mehatxatzailea (Cillian Murphy). Baina, kasu honetan, filmaren trailerrak filmak baino askoz gehiago balio du. Izan ere, aurrez aurrekoetan, lehenik eta behin bi pertsonaiek eta elkarrekin bizi duten egoerak sinesgarri samarrak izan behar dute, eta ez da hori Cillian Murphyk eta Rachel McAdamsek antzeztutako pertsonaien kasua, ezta bizi dituzten estutasunena ere. Atera kontuak: hegazkina lurreratu ondorengo azken txanpan dator pasarte balekoena, etxean gertatzen dena. Hor erakusten du Craven jaunak oraindik ez dela zeharo kamustu kaiola barruko ehiza saioetan. Aurreko bidaia alferrikakoa da.



**Vuelo nocturno** oo
▪ **ETB, 22:40.** Zuz: Wes Craven. Aktoreak: Rachel McAdams, Cillian Murphy, Brian Cox. Brittany Oaks. Iraupena: 85 min. AEB, 2005.

▪ **Maitane Mitxelena**

**Cabalgar en solitario** ooo
▪ **ETB2, 18:35.** Zuz.: Budd Boetticher. Akt.: Randolph Scott, Karen Steele, Pernell Roberts. AEB. 1959.

**Maroa** oo
▪ **La2, 22:00.** Zuz.: Solveig Hoogesteijn. Akt.: Tristan Ulloa, Yorlis Dominguez, Elba Escobar. Venezuela. 2005.

**Hora punta** oo
▪ **LaSexta, 22:15.** Zuz.: Brett Ratner. Akt.: Jackie Chan, Chris Tucker, Tom Wilkinson. AEB. 1998.

**La sombra del diablo** oo
▪ **Antena3, 00:00.** Zuz.: Alan J. Pakula. Akt.: Harrison Ford, Brad Pitt, Margaret Colin. AEB. 1997.

**El honor del capitán Lex** ooo
▪ **La2, 00:25.** Zuz.: Andre De Toth. Akt.: Gary Cooper, Rhyllis Thaxter, David Brian. 93 minutu. AEB. 1952.

**Nous ne vieillirons pas...** ooo
▪ **France2, 00:50.** Zuz.: Maurice Pialat. Akt.: Jean Yanne, Marlene Jobert, Macha Meril. Frantzia-Italia. 1972.

# Telebista

## ETB 1

**07:10: Betizu.** Marrazki bizidun bilduma.
**09:15: Kerman mintzalagun bila.**
**09:20: Bidaide.**
**11:05: Travel notes.**
**11:30: Burp.**
**11:55: Kerman mintzalagun bila.**
**12:00: EITB kultura.**
**12:30: Kultura gaua.** 'Kukai'.
**13:25: Mihiluze.**
**14:00: Gaur egun.** Albistegia.
**14:45: Eguraldia.**
**14:50: Kerman mintzalagun bila.**
**14:55: Dr Who.** Telesaila.
**15:45: Bidaide.** 'Krokodilo ehiztariaren egunerokoak'.
**17:15: Gag gag.**
**17:30: Sautrela.**



'Ipupomamua'. 19:10

**18:00: Iparraldearen orena.**
**18:05: Kerman mintzalagun bila.**
**18:10: Haratago.** Hasier Etxeberriak aurkezten duen dokumental saioa. Diseinuzko bidaiak. 'Londres'. 'Nueva York'.
**19:10: Ipupomamua.** Aitziber Garmendiak aurkeztutako saioa. 'Michael Ende'.
**19:35: Azpimarra.**
**20:00: Gaur egun.** Albistegia.
**20:45: Eguraldia.**
**20:50: Supernanny.**
**21:35: Mihiluze.**
**22:05: Goenkale.**
**23:05: Kresala.**
**23:55: Gauberri.**
**00:25: Eguraldia.**
**00:30: Sautrela.**

## ETB 2

**08:00: Forum.** David Barberorek aurkezten duen saioa. Gonbidatua: Eduardo Iriarte.
**08:30: Egun on Euskadi.** Vanesa Sanchezek eta Aitzol Zubizarretak aurkezten duten saioa. Gonbidatua: Gorka Maneiro (UPyD)
**10:05: Kerman mintzalagun bila.**
**10:35: Walker Texas Ranger.** Telesaila.
**11:30: Rex.** Telesaila.
**13:25: Kerman mintzalagun bila.**
**13:25: Navarra directo.** Albistegia (Nafarroan).
**13:30: Euskadi directo.**
**14:30: Robin food.**
**14:58: Teleberri.** Albistegia.
**16:05: Aspaldiko.**



'Cabalgar en solitario'. 18:55

**18:55: Zinema.** 'Cabalgar en solitario'. Zuz.: Budd Boetticher. Akt.: Randolph Scott, Karen Steele, Pernell Robets. 1959.
**20:15: Mister Monk.** Telesaila.
**20:58: Teleberri.** Asier Odriozola eta Andrea Arrizabalagaren eskutik.
**22:05: La noche de...** Felix Linaresen eskutik. (22:40) **Zinema.** 'Vuelo nocturno'. Zuz.: Wes Craven. Akt.: Rachel McAdams, Cilliam Murphy, Brian Cox. 2005.
**00:15: EITB kultura.**
**00:45: Kerman mintzalagun bila.**
**00:45: El guardian.** Telesaila.
**02:20: Robin food.**

## Hamaika

**08:00: Marrazki bizidunak.**
**08:50: Bilbo esnatzen.**
**12:10: Uraren etorria.**
**12:55: Eltzebero.**
**13:15: Onein.** 'Bakailo betea'.
**13:45: Lekeitioko zine programa.**
**14:00: Bat eta bat.**
**15:00: Kulturzulo.**
**15:15: Harrobia.**
**16:35: Itsasoari begira.**
**17:10: Marrazki bizidunak.**
**17:45: Ikusten.**
**18:20: Haurrekin jolasean.**
**19:10: Eskuokin.**
**19:25: Ikusmira.**
**19:00: 8garren kalea.**
**20:30: Gipuzkoa kultura.**
**21:00: Zugarramurdiko kobazuloa.**
**21:00: Bat eta bat.** Albistegia. (21:20) Hona hemen: Edorta Jimenez.(21:30) Elkarrizketa: Ixi Garcia, Futuramak ekimeneko sortzailea.
**21:50: Fronton.** Patxi Ruiz - Begino.

## ETB 3

**17:15: Huckleberry hound.**
**18:00: Popeye marinela.**
**18:20: Mutikoa.**
**18:40: Hello Kitty.**
**19:10: Doraemon.**
**19:55: Autobus magikoa.**
**20:20: Galactick football.**
**20:45: Berebiziko espioak.**
**21:30: Sut&blai.**
**21:55: Orain.**
**22:05: Munduan gaur.** 'Umurage'.
**23:00: Elkartasunaren bideak.** 'Sustraiak-I (Uganda)'.
**23:25: Abbey road zuzenean.**
**00:15: Ahotsenea.** 'Kemen Lertxundi'.
**00:40: Jungla sonoran galdu naiz.**
**00:55: Burp.**
**01:20: Kultura gaua.** 'Kukai'.
**02:25: Kukai - Hnay Illa.** Ikuskizuna.

## La 1

**06:00: Noticias 24h.** Albistegia.
**06:30: Telediario matinal.** Albistegia.
**09:00: Los desayunos de TVE.** Ana Pastorrek aurkeztutako saioa.
**10:15: La mañana de la 1.** Marilo Monterok aurkezten duen magazina.
**14:00: Albistegia.**
**14:30: Corazón.** Anne Igartiburuk prentsa arrosari buruz aurkezten duen magazina.
**15:00: Telediario 1.** Ana Blancok eta Jesus Alvarezek aurkezten duten albistegia.
**16:15: Amar en tiempos revueltos.** Telesaila.
**17:00: Bella Calamidades.** Telesaila.



'Amar en tiempos...'. 16:15

**17:55: En nombre del amor.** Telesaila.
**18:25: España directo.** Pilar Garcia Muñizek aurkezten duen magazina.
**20:00: Gente.** Maria Avizandak aurkezten duen magazina.
**21:00: Telediario 2.** Albistegia.
**22:15: Españoles en el mundo.** 'Uganda'.
**23:05: Destino: España.**
**00:00: Españoles en el mundo.** 'San Petersburgo'.
**01:00: Paddock GP.**
**01:20: La noche en 24 horas.**
**02:50: Deporte noche.**
**03:40: TVE es música.**
**04:00: Noticias 24h.**

## La 2

**07:00: Los Lunnis.** Las tortugas ninja. Lazy Town. El jardin de los sueños. Ya llega Noddy.Gomaespumenglish. Pat el cartero. Los hermanos koala.
**09:35: Aqui hay trabajo.**
**10:00: La aventura del saber.**
**11:00: El tesoro de los indios.**
**11:55: El poder del futuro: la energía de hidrógeno.**
**12:45: Tierra herida.**
**13:15: Zona ACB.**
**13:30: Para todos la 2.**
**15:30: Saber y ganar.** Jordi Hurtadoren eskutik.
**16:00: Grandes documentales.** 'Mundo natural. Pasion por los elefantes'. 'El super felino del Kalahari'. 'Megaterremotos'.



'Maroa' filma. 22:00

**18:55: Biodiario.**
**19:00: El hombre y la tierra (fauna iberica).**
**19:30: Pagina 2.**
**20:00: La 2 Noticias.**
**20:30: Cámara abierta.**
**21:00: La lista.** Lehiaketa.
**22:00: Zinema.** 'Maroa'. Zuz.: Solveig Hoogestseijn. Akt.: Tristan Ulloa, Yorlis Dominguez, Elba Escobar. 2005.
**23:40: Film laburren lehiaketa.**
**23:55: Conciertos de Radio-3.** Chico Ocaña.
**00:25: Zinema.** 'El honor del capitán Lex'. Zuz.: Andre de Toth. Akt.: Gary Cooper, Phyllis Thaxter, David Brian. 1952.
**01:55: Teledeporte.**

## Antena 3

**06:30: Las noticias de la mañana.** Sandra Golpek eta Luis Fragak aurkezten duten albistegia.
**09:00: Espejo público.** Susana Grisok aurkezten duen magazina.
**12:30: La ruleta de la fortuna.** Jorge Fernandezek aurkezten duen lehiaketa.
**14:00: Los Simpson.** Marrazki bizidunetako telesasila. 'Million dollar Abie'. 'Rasca, Pica y Marge'.
**15:00: Antena 3 Noticias 1.** Roberto Arcek, Monica Carrillok eta Pilar Galanek aurkezten duten albistegia.
**15:50: La previsión de las 4.** Roberto Braserok aurkezten duen tartea.



'Karabudjan' telesaila. 22:15

**16:00: Tal cual lo contamos.** Cristina Lasvignesek aurkezten duen magazina.
**19:15: El Diario.** Sandra Daviuk aurkezten duen saioa.
**21:00: Antena 3 Noticias 2.** Matias Pratsek eta Monica Martinezek aurkezten duten albistegia.
**21:45: El club de los chistes.** Anabel Alonsok aurkezten duen umore saioa.
**22:15: Karabudjan.** Telesaila. Akt.: Hugo Silva, Marta Nieto.
**00:00: Zinema.** 'La sombra del diablo'. Zuz.: Alan J. Pakula. Akt.: Harrison Ford, Brad Pitt, Margaret Colin. 1997.
**02:15: Astro show.**
**04:30: Unicos.**



## Futuramak ekimenaren berri

Ixi Garcia Bilboko Futuramak ekimeneko sortzailearekin solastatuko dira. Umeen heziketan sormena piztea du helburu guraso talde horrek. Egunerokotasuna hobetzeko proposamenak trukatzen dituzte. Aurretik, Edorta Jimenez idazleari buruzko erreportajea emango dute.

**'Bat eta bat'.** Hamaika. 21:00.



## 'La Duquesa' telefilmaren estreina

Cayetana Fitz-James Stuart Albako dukesaren inguruko telefilma estreinatuko dute. Gaur lehenengo zatia ikusi ahalko da. Irene Visedok eta Adriana Ozoresek jokatuko dute dukesaren rola. Ondoren, *Hormigas blancas* saioan, Albako dukesaren bizitzaren garairik garrantzitsuenez ariko dira.

**Telefilma.** T5. 22:00.



## Ertzantza itsasoko larrialdi batean

Pedro Garcia Larraganek Ondarroako portutik aurkeztuko ditu hainbat erreportaje: Ertzaintzaren Erreskate Taldea itsasoko larrialdi batean ikusi ahalko da. Berdela prestatzeko hainbat modu erakutsi ez ezik, ziklogenesi lehergarrian piraguista batzuei gertatuakoa ere erakutsiko dute.

**'Kresala'.** ETB1. 23:00

## Irratia

**Euskadi Irratia.** Maria Zulaika Vicente Ferrer Fundazioko Nafarroako ordezkaria gonbidatu dute *Faktoria* saiora. Horrez gain, Mikel Urdangarin musikariarekin solasean arituko dira. Asier Altuna zinema zuzendaria eta gidoigilearekin mintzatu dira *Aperitifa* saioan. Egun grabatzen ari den *Bertsolari* dokumentalaz ariko da. Dokumental horretan Andoni Egaña aztertzen du Bertsolari Txapelketan, eta Maialen Lujanbioren eta Unai Iturriagaren laguntza du gidoilari lanetarako.

**Info7.** *Egunkaria auzian* inputatua egon den Xabier Oleagarekin hitz egingo dute *Kalegorrian* saioan. Zazpi urteren ostean iritsi den absoluzioa epaiaren gainean arituko da. Barakaldo ere gerturatuko dira; krisiak utzi dituen ondorioak aztertuko dituzte Berri Otxoak taldearekin.

**FM**

**89.2** Segura irratia
**89.7** Antxeta irratia
**91.4** Euskalerria irratia
**91.8** Irulegiko Irratia
**93.6** Arrate irratia
**94.4/95.2** Euskadi irratia
**95.5** Xiberoko Boza
**96.0** Bilbo Hiria
**97.0** Tas-Tas irratia
**99.8** Herri Irratia
**101.3** France Bleu Pays Basque
**102.6** Bizkaia irratia
**103.5** Gaztea
**106.6** Gure Irratia
**107.0** Eguzki irratia / Oiartzun irratia
**107.5** Txolarre irratia
**107.5** Xorroxin irratia
**107.7** Hala Bedi

**AM**

**1224** Herri Irratia

**Internet**

**www.info7.com** Info7

# Cuatro

**07:00: Matinal Cuatro.** Ana Garcia Siñerizek aurkezten duen albistegia.
**09:30: Medicopter.** Telesaila. 'Cuatro elementos'.
**10:25: Alerta Cobra.** Telesaila. 'A la caza'. 'Al borde del abismo'.
**12:30: Las mañanas de Cuatro.** Concha Garcia Campoyk aurkezten duen magazin saioa.
**14:00: Noticias Cuatro.** Azken berriak biltzen dituen albistegia.
**14:55: Noticias Cuatro Deportes.**
**15:40: Entre fantasmas.** Telesaila. 'La cuna se mecerá'. 'El muerto viviente'. 'Escalofríos'. 'Un fantasma virtual'.



'Uau!' umore saioa. 00:25

**19:00: Justo a tiempo.** Iñaki Lopezek aurkezten duen lehiaketa.
**20:00: Password.** Ana Milanek aurkezten duen lehiaketa.
**21:00: Noticias Cuatro.** Albistegia.
**21:35: El hormiguero.** Pablo Motosen eskutik.
**22:25: House.** Telesaila. 'De 5 a 9'. 'Posición letal'.
**00:25: Uau!.** Santi Millanek aurkeztutako umore saio berria.
**01:45: Psych.** Telesaila.
**02:35: Cuatrosfera.** Todo el mundo odia a Chris. Telesaila.
**03:05: Marca y gana.**

# Tele 5

**06:30: Informativos Telecinco.** Daniel Gomezek eta Hilario Pinok aurkezten duten albistegia.
**09:00: El programa de Ana Rosa.** Ana Rosa Quintanak aurkezten duen magazina.
**12:30: Mujeres y hombres y viceversa.**
**14:00: Karlos Arguiñano en tu cocina.** 'Costilla asada con papas y chimichurri'.
**14:30: De buena ley.** Sandra Barnedaren eskutik.
**15:00: Informativos Telecinco.** Pedro Piquerasek azken berriak biltzen dituen albistegia aurkezten du.
**15:45: Sálvame diario.** Jorge Javier Vazquezek aurkezten duen magazina.



'Pasapalabra' lehiaketa. 20:00

**20:00: Pasalabra.** Christian Gálvezek aurkezten duen lehiaketa.
**20:55: Informativos Telecinco.** Jose Ribagordak eta Marta Fernandezek aurkezten duten albistegia
**22:00: La noche de la Duquesa. Telefilma.** 'La Duquesa (I)'. Zuz.: Salvador Calvo. Akt.: Adriana Ozores, Irene Visedo, Manuel de Blas, roberto Enriquez. 2010.
**23:45: Hormigas blancas. 'Cayetana de Alba (I).** Jordi Gonzalezen eskutik.
**02:30: Locos por ganar.** Lehiaketa.
**04:00: Infocomerciales.**
**05:00: Fusión sonora.**

# La Sexta

**07:00: LaSexta en concierto.**
**08:15: Cocina con Bruno Oteiza.** 'Caballa con escabeche dulce de hierbas'.
**08:40: Policías de Nueva York.** Telesaila.
**09:35: Jag: alerta roja.**
**11:30: Crímenes imperfectos.**
**12:30: Crímenes imperfectos. Historias criminales.**
**13:30: Debate: al límite.** Mamen Mendizabalen eskutik.
**14:00: LaSexta Noticias.** Helena Resanok aurkezten duen albistegia.
**14:55: LaSexta Deportes.**
**15:25: Sé lo que hicisteis.** Patricia Condek eta Angel Martinek aurkezten duten saioa.
**17:35: Qué vida más triste.**



'Hora punta' filma. 22:15

**18:05: Numb3rs.** Telesaila.
**19:00: NAVY investigación criminal.** Telesaila.
**20:00: LaSexta Noticias.** Albistegia.
**20:55: LaSexta Deportes.**
**21:30: El intermedio.** Wyomingeren eskutik.
**22:15: Zinema.** 'Hora punta'. Zuz.: Brett Ratner. Akt.: Jackie Chan, Chris Tucker, Tom Wilkinson. 1998.
**00:20: Buenafuente.** Andreu Buenafuentek aurkezten duen saioa. Gonbidatua: Carlos Ruiz Zafon.
**00:05: Buenafuente.**
**01:25: El intermedio.**
**02:25: Astro TV.**
**05:00: Teletienda.**

# TF1

**06:30: TFOU.** Marrazki bizidunak.
**08:30: Teleshopping.**
**09:20: Le Destin de Lisa.** Telesaila.
**11:10: Beverly Hills, 20210.** Telesaila.
**12:00: Attention a la marche!** Jean-Luc Reichmannek aurkezten duen lehiaketa.
**13:00: Journal.** Albistegia.
**13:55: Les feux de l'amour.** Telesaila.
**14:55: Telefilma.** 'Rendez-moi mon mari!'. Zuz.: Helen Shaver. Akt.: David James Elliott, Wendy Crewson. 2005.
**16:45: New York, police judiciaire.** Telesaila.
**17:35: Monk.** Telesaila.



'House' telesaila. 20:45

**18:30: A prendre ou a laisser.** Arthurrek aurkezten duen lehiaketa.
**19:05: Le juste prix.** Vincent Lagafek aurkezten duen lehiaketa.
**20:00: Journal.** Albistegia.
**20:45: House.** Telesaila. 'L'Hypocrite heureux'. 'Un chat est un chat'. 'Démission'.
**23:20: Harry Roselmack.** Magazina. 'Avec les fondamentalistes musulmans'.
**01:10: Koh-lanta, le choc des héros.**
**03:00: Enquêtes et révélations.**
**04:15: Reportages.** 'Les petits durs de San Benito'.
**04:50: Musique.**

# France 2

**06:30: Télématin.**
**09:05: Des jours et des vies.** Telesaila.
**09:30: Amour, gloire et beauté.** Telesaila.
**09:55: C'est au programme.**
**11:00: Motus.** Thierry Beccarok aurkezten duen lehiaketa.
**11:30: Les z'amours.** Texek aurkezten duen lehiaketa.
**12:00: Tout le monde veut prendre sa place.** Naguik aurkezten duen lehiaketa.
**13:00: Le journal.** Albistegia.
**14:05: Toute une histoire.**
**15:15: Comment ça va bien!.**
**16:20: Le renard.** Telesaila. 'Chambre 49'.
**17:25: Brigade des mers.** Telesaila. 'Affarie à suivre'.
**18:10: CD'aujourd'hui.**



'Nous ne vieillirons...'. 00:50

**18:15: En toutes lettres.** Julian Courbetek aurkezten duen lehiaketa.
**19:00: N'oubliez pas les paroles.**
**20:00: Journal.** Albistegia.
**20:35: Le Gran Gala des artistes.** '49e gala l'Union des Artistes'.
**22:50: Les infiltrés.** Magazina. 'Discrimination: flagrants délits'.
**00:30: Journal.**
**00:50: Zinema.** 'Nous ne vieillirons pas ensemble'. Zuz.: Maurice Pialat. Zuz.: Jean Yanne, Marlene Jobert, Macha Meril. 1972.
**02:30: Toute une histoire.**
**03:35: 24 heures d'info.**

# France 3

**06:45: Ludo.**
**08:35: Ludo vacances.**
**11:10: Plus belle la vie.**
**11:40: Le 12/13.**
**13:00: Nous nous sommes tant aimés.**
**13:30: En course sur France 3.**
**13:45: Inspecteur Derrick.**
**14:50: Inspecteur Barnaby.**
**16:40: Slam.**
**17:15: Des chiffres et des lettres.**
**17:50: Questions pour un champion.**
**18:45: Le 19/20.**
**20:10: Plus belle la vie.**
**20:35: Telefilma.** 'Garçon manqué'. Zuz.: David Delrieux. Akt.: Smain, Fejria Deliba. 2008.
**22:15: Ce soir (ou jamais!).**
**22:30 Soir 3.**
**22:55: Ce soir (ou jamais!).**
**00:10: Vie privée, vie publique, l'hebdo.**
**01:15: La case de l'oncle doc.**

# Arte

**18:05: Chapeau melon et boites de cuir.** 'Le monstre des égouts'.
**19:00: Arte journal.**
**19:30: Globalmag.**
**19:50: Il était une fois les royaumes d'Afrique.** 'L'Ethiopie'.
**20:35: Main basse sur le riz.** Dokumentala. Zuz.: Michel Crepu, Jean-Pierre Boris. 2010.
**22:20: Jekyll.** Telesaila.
**00:05: Agenda coup de coeur 'arte culture'.**
**00:10: Zinema.** 'Avril (JBA)'. Zuz.: Gerard Hustache-Mathieu. 2006.
**03:00: Zinema.** 'L'homme riche'. Zuz.: Dominique de Rivaz. 2008.
**04:25: L'art et la Manière.** Lucy & Jorge Orta.

Txomin Badiola › Artista

Jon Mikel Euba eta Sergio Prego artistekin eta 15 boluntariorekin lanean aritu da 40 egunez Leongo Musac zentroan. Orain ikusgai dago esperientziaren emaitza.

# «Artea esperientzian oinarritzen da, ez sisteman»




J. CASARES / EFE

**Ainara Gorostitzu**

«Sorkuntzaren ekintza partekatzeko» 40 eguneko itxialdia burutu eta 20 egunera, «biharamuna balu bezala» mintzo da Txomin Badiola (Bilbo 1957). Espainiako Musac arte garaikideko museoak Jon Mikel Euba (Bilbo, 1967), Sergio Prego (Donostia, 1969) eta Badiola gonbidatu zituen erakusketak egitera hastapenetan, baina hiru adiskideek«askoz ere anbiziotsuagoa» zen egitasmoa aurkeztu zioten Musaceko zuzendariari. Itxialdiaren emaitza ekainaren 6ra arte egongo da ikusgai, *Proforma 2010. 30 ariketa, 40 egun, 8 ordu* erakusketan.

Esperientzia hori bere ibilbidean mugarri bat izango dela dio Badiolak, pinturatik eskulturara jauzi egin zuenean bezala, edo New Yorkeko egonaldia bezala.

**40 eguneko lan kolektiboaren ondoren, nola aldatu da abiapuntuan jarri zenuten erakusketa?**

Garapenerako abiapuntu ziren hiru erakusketa jarri genituen urtarrilean, bakoitzak bere kabuz eta indibidualki prestaturiko lanekin osaturiko erakusketak. Orain, obra horiek izan duten bilakaera eta garapena ikus daiteke behin betiko erakusketan. Beti ere, behin betiko erakusketa izan daitekeen neurrian, artean gauza gutxi baitaude absolutuak.

Ikusleak aldaketa antzemango du, orain, Proforma modulua deitzen diogun sarrera gauzaz leporaino betea baitago. Gauza horiek esperientziak dira, 30 ariketen emaitzak.

**Nolakoa izan da berrogeialdiaren esperientzia?**

Nekagarria, egunean hamabi orduz lan egin baitugu. Baina batik bat, gogorra izan da, ekintzen egitaraua oso betea baikenuen. Egun batzuetan oso ariketa fisikoak egin behar genituen, eta beste batzuetan oso ariketa kontzeptualak eta intelektualak.

**Adibidez?**

Ariketa fisiko batzuetan gorputza behartu behar zen muga batzuk gainditzera, bideoak edo audioak grabatu ahal izateko; edo Sergioren puzgarri batzuk eskalatu behar ziren goian grabaketak egiteko. Bestalde, hizkuntzari loturiko ariketa asko egin ditugu, testuak eta irudiak sortuz. Beti ere, jarraibide oso zorrotzak jarraituz egin dugu lana; esate baterako, ariketa bat erretratatu behar zuten bi lagunek; horietako batek harreman intimoen ikuspegitik erretratatu behar zuen, eta, besteak, harreman publikoen ikuspegitik.

**Erakusketa hau ikustea artistaren estudioan sartzea bezala da?**

Antzekoa bai, baina ez da artistaren estudioan sartzea. Hau museo bat baita, hori da diferentzia. Hau instituzio bat da. Baina erakusketa honek esperientzia artistikoa lehen planoan jartzen du, instituzioa gobernatzen duten konbentzioen gainetik. 40 egunez museoan lanean aritzeak inguruko guztiak ere joerak aldatzera behartu ditu: garbitzaileak, segurtasunekoak, hezkuntza arduradunak... Guztientzako izan da egoera berezi bat, non eguneroko ekintza planteatzera behartuak zeuden. Garbitzaileen kasuan, adibidez, arazo handiak izan dituzte artea zer den eta zer ez den jakiteko. Segurtasunekoek ere ez zekiten nor zen artista, zer uki zitekeen...

**Instituzioaren estamentu guztiak ukitu dituzue.**

Hori da. Aldiz, artista bere estudioan lanean ari denean, bere bakardadean ari da, bere buruarekin, eta hemen instituzioaren bihotzean ari da. Pentsamenduaren sistema handiekin zerikusia duten jarrera sozialak erakusten dituzte instituzioek, artearekin, politikarekin, kultur politikarekin zerikusia dutenak, eta esperientzia honek instituzio horren bihotza ukitu du; ez da soilik azalean geldituden ekintza estetikoa izan. Instituzioaren konbentzioa oso sustraitua dago, zer uki dezakezun eta zer ez, zer egin dezakezun eta zer esan esaten dizu.

**Zuek, baina, hankaz gora jarri duzue.**

Bai, baina barrutik.Esperientzia hau ez dugu planteatu diskurtsoaren ildotik, baizik eta etikaren ikuspegitik. Gu artistak gara, artea egiten dugu, eta geure buruari hau galdetu diogu: zer dakar artea egiteak? Zer eskatzen du artea egiteak? Horregatik, artea egiten hasi eta ikusten duzu hamaika konbentziorekin tupust egiten duela, sistema ezbaian jartzen dela; baina, esan bezala, ez diskurtsoaren mailan, errealitatearen, ariketaren eta ekintzaren bidez baizik, etikaren mailan.

> «Itxialdian oso ariketa fisikoak eta oso ariketa intelektualak egin behar genituen»

> «Artearen sistema ezbaian jarri dugu, ariketaren eta ekintzaren bidez»

**Ekintza hasi aurretik, porrot egiteko beldurra azaldu zenuten.**

Esperientzia bat hala izan dadin, porrotaren aukera beregain hartu behar du. Hor dago arriskua, bestela ez dago esperientziarik, hori plantak egitea litzateke. Gurekin lan egin duten hamabost boluntarioak aukeratzean ere arrisku handia hartu genuen, ez baikenituen curriculumaren arabera hartu, baizik eta bakoitzak zituen asmoen arabera. Baina taldeak oso ondo funtzionatu du, hamabost lagunen parte-hartzea ikaragarria izan da, eta horregatik esperientzia bikaina izan da. Gauzak gaizki atera izan balira ere, esperientzia bat bizitzearekin aski izango genukeen.

**Lehen estudio batekin konparatu duguproiektua, baina unibertsitateko praktika baten antza ere badu.**

Jatorrizko unibertsitatearen antzera planteatu dugu guk proiektua hasieratik. Jatorrizko unibertsitateetan gremioka elkartzen ziren beren ekintza garatzeko, eta hura ikasteko batzen zitzaien jendea. Hori izan da gure proiektu honen *leit motiv*-a hasieratik. Artean unibertsitatea ezin da ohiko eskema zorrotzen arabera gobernatu. Arteari loturiko jakitatea ez da baliokidea beste karrerekin. Arte Ederretako fakultateetatik kanpoko egitura alternatiboak egon daitezke, artistaren praktikarekin lotuak daudenak.

**Zure obran funtsezko kontzeptua izan da beti ikuslea. Eta oraingoan?**

Ikusleari inoiz baino gehiago eskatuko dio aurrean duen obrak, parte-hartze handia eskatuko dio. Obrek esperientzia handia dute barruan, eta horregatik ikuslearekin zorrotzak dira. Gehiago eskatzen dute, baina gehiago ematen dute, aldi berean. Lan honetan parte hartzeko prest dagoen ikuslea esperientzia bat bizitzeko prest dagoen ikuslea izan behar da. Hori da artea. Ez zait interesatzen gauzak ikusi eta gauzek zerbait esango dioten esperantzan etorriko den ikusle pasiboa. Emateko prest joan behar da ikuslea, zerbait jasoko badu.

**Artea sortzeko eta erakusteko beste eredu bat planteatzen duzue?**

*Proforma* ez da izate bat; *Proforma* aldi bat, fase bat da. Lehen fasean artista bakoitzak bere obrak jarri zituen; gero, bilakaera etorri zen; eta, orain, erakusketa. Noski, fase horiek infinituak izan litezke, baina mugatu egin behar dira definitu ahal izateko. Gure nahia litzateke laneko eredu honek aurrera jarraitzea. Ez da erakusketa bat, ez ekoizpen bat, ez estudioko lan bat, guztiak batzen dituen eredu bat baizik, non artisten arteko harremana, artisten eta obren artekoa, ikusleen eta obren artekoa, eta instituzioekikoa ezbaian jartzen diren.

**Esperientzia honek nola eragingo dio zure ibilbideari?**

Emandako denbora eta ilusioa kontuan izanik, *Proforma* mugarri bat izango da nire ibilbidean, ziur, sakona eta benetakoa izan delako; bestela patetikoa litzateke. Artea esperientzia delako kontzientzia erabatekoa edukitzeak behartzen zaitu oso adi egotera, artearen munduko konbentzionalismoetan ez erortzeko. Artearenak guztiz zehazturiko profesio bat dirudi, denbora jakin batean erakusketa bat duzu, eta horretarako obra kopuru jakin bat prestatu behar duzu, modu jakin batean landua... Baina artea esperientzian oinarritzen da, ez da sisteman oinarritzen, eta instituzioek ezarritako konbentzio horiek guztiak erlatibizaturik geldituko dira esperientzia honen ondoren. Gu libreago sentitzen gara.

40» Antton Lukuren 'Zeru&Zuri' antzezlana Izpuran estreinatuko dute Donibane Garaziko ikasleek

42» Aramaio gailendu zaio Kakiturri-Ehariri Arabako koadrila arteko bertsolari txapelketan

# Herritarrek emandako 1.800 objektu eskuratu ditu San Telmo museoak

Arte Ederren bilduma osatze aldera, azken bi mendeotako zenbait euskal artistaren obrak ere erosi ditu museoak

**Ainhoa Sarasola** Donostia



Hainbat jantzi eman dizkio museoari Pilar Unzetak —irudian—. Unzetaren atzean, museoak erositako Zamacoiren margolan bat. JUAN CARLOS RUIZ / ARP

Donostiako San Telmo museoko berritze obrek aurrera egiten duten bitartean, zentroaren bilduma aberasteko lanetan jarraitzen dute arduradunek. Azken bi urteotan eginiko eskuraketen artean, hainbat herritarrek eta enpresak emandako 1.878 objektuak nabarmendu zituen Denis Itxaso Kultura zinegotziak, atzo eginiko agerraldian. XX. mendeko kaleko bizitzarekin, enpresa munduarekin eta merkataritzarekin zerikusia duten objektuak dira gehienak, herritarrek egunerokoan erabili ohi zituztenak. Horiekin, Gipuzkoako gizartearen bilakaera azaltzeko xedea betetze aldera, bilduma osoagoa izango du museoak.

2008an eta 2009an, 350.000 euro inguru baliatu ditu museoak margolan, eskultura eta bestelako lanak eskuratzeko. Besteak beste, XIX. eta XX. mendeetako zenbait euskal artistaren lanak eskuratu ditu. Zamacois, Lekuona, Etxenagusia, Quintin de Torre, Ibarrola, Badiola, Alaez, Garmendia, Aranberri, Zumeta, Urrutia, Irureta, Iñurrieta, Aurelio Arteta, Felix Arteta, Tellaetxe, Larroque, Gallego, Ameztoi, Nagel eta Lucarini aipatu zituen Itxasok. 1920 eta 1930eko hamarkadetan Tolosako Laborde y Labayen enpresan eginiko kartelak ere lortu ditu.

Guztira, 550 lan eskuratu ditu San Telmok bi urteotan. 2008an, 115 pieza erosi zituen, enkantean, partikularrei nahiz arte galeriei. Gordailuan partikular baten pieza bat eskuratu zuen, eta dohaintza bidez, beste 750 pieza, 13 partikularrenak eta lau erakunderenak. Iaz, berriz, 435 pieza erosi zituen; gordailuan bost pieza eskuratu zituen partikularretatik eta dendetatik; partikular baten legatua jaso zuen; eta dohaintza bidez, berriz, 27 partikularrek, sei dendak eta zortzi erakunde nahiz enpresak 1.128 pieza eman zizkioten.

Dohaintzan jasotako piezen artean daude, besteak beste, azken hiru urteotan Fernando Botanz Legazpiko bildumagileak emandako XX. mende erdiko 1.013 jantzi, altzari eta apaingarriak. Edo Pilar Unzetak emandako 123 piezak, gehienak jantziak. Baita Gaska-Ajuria sendiaren jantzi bilduma ere. Askotariko objektuak jaso ditu museoak dohaintza bidez: Cervezas El Leon desagertuaren botilak, 1960ko hamarkadako mahai jokoak, lau gurpildun patinak nahiz Irungo Sancheski etxeko patinete bat, besteak beste.

### Merkataritzaren historia

Gipuzkoako gizartea deskribatzeko helburuarekin ere, Donostiako merkataritzaren memoria gordetzeko proiektua jarri zuen martxan museoak iaz, hiriko denden historia azalduko duten objektu, dokumentazio eta materialak biltzeko. Iaz itxitako Hernani kaleko Lasa dendarekin, Otaegi gozotegiarekin eta Benegas lurrindendarekin harremanetan jarri zen museoa, eta objektu bilduma «interesgarria» biltzeaz gain, dendetako arduradunekin elkarrizketak grabatu dituzte. Hainbat enpresatara zabaldu dute proiektua, tartean, Irizar, CAF edo Heineken etxeetara, eta haien aldetik jasotako erantzuna ere «oso ona» izan dela iritzi dio Itxasok. «Euskal gizartearen garapena eta ibilbidea ordezkatu nahi dituen museoaren zentzu berria» ulertu izanagatik eskerrak eman zizkien.

Dohaintzak egin dituzten herritarrei eta enpresei eskerrak eman zizkien Susana Soto museoko zuzendariak ere. Agerraldian izan ziren haietariko batzuk. «Gizarteari lotuta egiten du museoak bere ondarea eta bere historia, eta hori da funtsezkoa», esan zuen Sotok. Objektuekin, museoaren bilduma iraunkorraren *Modernitatearen esnatzea* atala nahiz zentroaren gordailua asko aberastuko direla adierazi zuen Sotok. Erakusketetan, objektuen alboan jabe ohien izenak jartzea ez dutela baztertzen gehitu zuen, modu horretan jende gehiago piezak ematera animatu daitekeela iritzita. Hartarako deia egin zien herritarrei, eta batez ere, *Belle Epoque*-ko eta industrializazio garaiko materiala falta dutela jakinarazi zuen.

Bestalde, museoa handitu eta berritzeko lanak martxa onean doazela esan zuen Itxasok, eta aurreikusi bezala, 2011ko udaberrian irekiko dutela. Plaza berritzeko asmoa ere badu Udalak.

## Donostia kultur hiriburu izateko hautagaitza diruz babestuko du Kutxak

Olatu-talka jaialdia eta EOSen emanaldia ekimenetarako 250.000 euro jarriko ditu Kutxa Fundazioak

**Erredakzioa** Donostia

Donostia 2016an Europako Kultur Hiriburu izateko hautagaitzarekin bat egin du Kutxa Fundazioak. Hala, hautagaitzaren inguruan aurten egingo diren hainbat ekitaldi 250.000 eurorekin laguntzeko konpromisoa hartu du erakundeak. Babestuko dituen ekitaldien artean daude, besteak beste, hilaren 23tik 25era egingo den Olatu-talka jaialdia eta Euskadiko Orkestra Sinfonikoak heldu den abuztuan eskainiko duen doako emanaldia. Izendapena lortzeko egingo diren ekimenetan modu aktiboan parte hartzeko konpromisoa hartu zuen atzo Kutxa Fundazioko presidente Xabier Iturbek, Odon Elorza alkatearekin prentsaurreko batean sinatutako hitzarmenaren bidez.

Hitzarmenaren arabera, diru laguntza aurten izango da indarrean, baina udazkenean hautagaitzak lehen aukeraketa fasea gaindituz gero, urtero berrituko da laguntza hori.

Erakundeen babesa jasotzearen garrantzia nabarmendu zuen Elorzak, eta hautagaitzak lehen fasea gaindituko duen ziurtasuna agertu zuen. Iturbek, berriz, «herrialde osoarena den proiektua ez soilik diruz, baita ideiekin ere» babestea «plazer bat» dela adierazi zuen.

berria.info Euskaldunon sarea




**'Egunkaria'-ko auziaren epaiari buruzko zuzeneko telebista saioa BERRIA.INFOn:**
*auzipetuen agerraldia, elkarrizketak, auziaren bideo erreportajea...*

**Gaur, 11:15etik aurrera**

# Errugbiaren antzerki jokoa

Baionako taldearen koloreak jantzirik, Lukuk zuzendutako ‘Zeru&Zuri’ emanen dute Garaziko lizeokoek

**Nora Arbelbide** Izpura



Joan den astean *Zeru&Zuri* antzezlanaren errepikan hartutako irudi bat. NICOLAS MOLLO

Aldi honetan komedia dute ekarriko taula gainera Donibane Garaziko lizeoko ikasleek, Antton Luku idazle eta antzerkilariaren zuzendaritzapean eta Chimeres taldeko Ximun Fuchs eta Bruno Parisen esku ukaldiarekin. Lizeoko ikasleekin osatzen duen 17. antzezlana du Lukuk. *Zeru & Zuri* heldu den ostegun eta ostiralean eskainiko dute publikoari, 21:00etan, Izpurako Fauxtin Bentaberri aretoan.

Baionako errugbi taldearen jantzien koloreak berriz hartzen dituen izenburuak dioen bezala, errugbi munduan murgildu du bere komedia Lukuk. Istorioa bi hitzetan laburbiltzeko, pertsonaia nagusiak Jojo eta Nina senar-emazteak dira, Baionako errugbi taldearen sostengatzaile sutsuak. Miarritzeko taldearen aurkako derbyaren eguna hurbil dutela, halako batean, Jojo tiroa bezala sartzen da apartamendura, baliza bat eskuetan. Laster jakinen da balizaren barnean partidaren itxura alda lezaketen elementuak badirela, hainbat ondorio sortuz. Luku errugbi zalea da, beraz? «Ez dut biziki segitzen baina errugbi zalea naiz, bai. Oso joko interesgarria zait, eta aski teatrala antzemanen dut. Badira biziki pertsonaia karakterizatuak, balentriak kontatzeko moduarengatik eta».

Mundu horrek ematen du nondik tira: «Komediek orokorki funtzionatzen dute testuingurua ezaguna bada. Fenomeno sozial azkar bat baldin bada, orduan martxan da». Piarres Larzabalen *Herriko botzak* antzerkian bezala. Komedietan erreferentzia bat da Lukurentzat: «Herriko bozak eta ihizia nahasten ditu. Ez bazara ehiztaria ere, badakizu nola mensten diren. Orduan ulertzen dituzu trabesak».

Aldi honetan, ihiziaren ordez, errugbia. Errugbiaz ez interesatu arren, Baionan bezala, beste leku anitzetan, ezin ihes egin. Gainera, pasio handiko toki bat da, eta horrek ere bideak zabaltzen ditu: «Jendea pasionatzen da, nahiz eta ondotik irri egin beren buruaz. Iturri irrigarria du berez». Aitzaki aldetik, bada ere zer aurkitu: «Badira sekretuak, zurrumurruen sortzaileak, diru istorio horiek, ez baitakigu sobera nola pasatzen den... Baiona, Miarritze, Anoeta... Anitz espekulazio bada horren inguruan, mentala ere». Hots, komediarako osagai guztiak ditu: «Testuinguru sinesgarria eta horren oinarri usaiaz kanpoko gertakari bat, anekdota bat». Toberan ez bezala, «komediak badu horrelako egunerokotasun bat», Lukuren ustez: «Istorio bat kontatzen du. Pertsonaiak badira eta krisi bat bizi dute eta bada finitze bat. Ez dira bilatzen irudi oso aberatsak, irudiek berek erraiten baitute. Istorioa da kontatzen. Beraz, ez da joko bera». Pertsonaiak «sinesgarria» izan behar du, oroz gainetik: «Toberan pertsonak pertsonaia klase oso bat ordezkatzen du».

> “
> Toberan ez bezala, komediak badu horrelako egunerokotasun bat»
> **ANTTON LUKU**
> Antzerki zuzendaria

Irudia › Senpere



## ‘HATSAREN POESIA 2010’ OSPATU DUTE

*Hatsaren Poesia 2010* poema bilduma aurkeztu zuten igandean Senpereko Larraldean (Lapurdi), 50 inguru poesia idazle batu zituen ospakizun batean. Liburuan ehundik gora idazle hartu du parte poema bana idatziz. Egileen artean, Jean Louis Davant, Luzien Etxezaharreta, Pello Otxoteko, Juan Ramon Makuso, Joan Mari Irigoien, Oier Guillan, Marikita Tambourin eta Edu Zelaieta daude, besteak beste. Elkarrekin bazkaldu ostean, *Hatsaren olerki bustiak* emanaldia osatu zuten olerkarietako batzuk, poemak errezitatuz. Hilaren 23an beste aurkezpen bat izango du *Hatsaren Poesia 2010* liburuak, Berriozarren (Nafarroa), Herriko Bibliotekan. HATSA ELKARTEA

## → Laburrak

### Accept-ek talde berria aurkeztuko du Barakaldon

**MUSIKA ›** Accept taldeak Barakaldoko Rock Star aretoan joko du maiatzaren 30ean. Talde berria aurkeztuko du heavy metal taldeak: Mark Tornillo (ahotsa), Wolf Hoffman (gitarra), Herman Frank (gitarra), Peter Baltes (baxua) eta Stefan Schwarzman (bateria). Sarrerak dagoeneko salgai daude.

### ‘Arriskua maite’ diskoa grabatzen ari da Kupela

**MUSIKA ›** Kupela hirukotea Arriskua maite diskoa grabatzen ari da Donostiako Elkar estudioan. Larrañagak (panderoa eta ahotsa), Zabalek (soinu txikia) eta Berasategik (bateria eta perkusioa) bertsoa, trikitixa eta umorez eta satiraz tindaturiko hitzak bilduko dituzte kantu berrietan. Diskoa maiatzaren 20an argitaratuko da.

### Lawrence Fosterrek EOS zuzenduko du asteon

**MUSIKA ›** Lawrence Foster zuzendari estatubatuarraren gidaritzapean, Schumann eta Brahmsen bigarren sinfoniak eskainiko ditu Euskadiko Orkestra Sinfonikoak, bihar Bilbon eta etzi Gasteizen. Montpellierreko Orkestra eta Opera Nazionaleko eta Gulbenkian Orkestrako zuzendaria da Foster, eta aurreko denboraldietan ere lan egin izan du EOSekin.

### MACBA museoak ziklo bat eskaini dio Peter Watkinsi

**ZINEMA ›** Peter Watkins dokumental egilearen lanik enblematikoenetako batzuk eskainiko ditu Bartzelonako MACBA museoak, horien artean *The War Game* (1965). Lan hori isilpean gordeta eduki zuen BBCk bi hamarkadetan, Erresuma Batuko gobernuaren presioak zirela eta. *Privilege*, *The Diary of an Unknown Soldier*, *Edvuard Munch* eta *The Journey* ere ikusi ahal izango dira MACBAn.

### Doctor Deseo Durangon ikusteko sarrerarik ez dago

**MUSIKA ›** Doctor Deseok disko berria, *Deseo: cartografía imposible*, aurkezteko kontzertu bira hasiko du datorren ostiralean, Durangoko Plateruena kafe antzokian. Emanaldi horretarako sarrera guztiak saldu dira dagoeneko, eta kontzertuaren egunean ez da leihatilan sarrerarik jarriko salgai. Bilboko taldeak joan den astean kaleratu zuen lan berria.

Apirilaren 18a bitartean
pLazako
erosleen artean
zozketa



2 pertsonarentzako
bazkaria edo afaria
Iparragirre
sagardotegian

Urdaibai kontserbak
ekoizlearen sorta:
Antxoak ozpinetan
Antxoak oliotan · Hegaluzea



Sartu eta erosi gurean

www.euskalherriko
pLaza.com

Euskal Herriko produktuak, ekoizlearengandik zure eskura


Aramaioko taldeko lau kideak. ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA

# Aramaio Kakiturri-Ehariri nagusitu zaio Arabako sariketako lehen finalerdian

Gasteizko Aldapazaleak taldeak irabazi du Bertso Sorta Kolektiboa bertso jarrien sariko lehen finalerdia

**Erredakzioa** Gasteiz

Aramaioko taldeak irabazi zuen Arabako koadrila arteko lehen bertsolari txapelketako finalerdietako liga txikiko aurreneko saioa, Kakiturri-Ehariko taldearen aurka lehiatutakoa, herenegun, Gopegiko kultur etxean. Aramaiok 581,5 puntu eskuratu zituen eta Kakiturri-Eharik 568,5.

Andere Arriolabengoak, Manex Agirrek, Iker Agirrek eta Xabi Igoak osatu zuten Aramaioko taldea; Kakiturri-Eharikoa, berriz, hiru beteranok: Ricardo Gonzalez de Duranak, Juan Mari Juaristik eta Felipe Zelaietak.

Ofizioko saioetan nahiko makal aritu baziren ere, bakarkako lanetan maila hobea erakutsi zuten bertsolariek. Manex Agirrek euskararen normalizazioaren inguruan kantatutako bertsoak, adibidez, aberastasun handikoak izan ziren. Felipe Zelaieta eta Andere Arriolabengoa ederki aritu ziren hamarreko txikian. Aurrera egin ahala saioak gora egin zuen, eta maila oneko amaiera umoretsua izan zuen, batez ere *Santi Mamiñe* doinuan kantatu zituzten bertsoei esker.

**Beste bi saio finalerdietan**

Beste bi lehia jokatu behar dira oraindik finalerdietako liga txikia amaitu eta finalean zein bi talde ariko diren jakiteko. Liga txikiko bigarren saioan Amurrioko Altubepekoak eta Gasteizko Kakiturri-Ehari lehiatuko dira, hilaren 18an, Araiako Andra Mari aretoan; eta hirugarren eta azkenekoan, Aramaio eta Amurrioko Altubepekoak, hilaren 25ean, Amurrioko aretoan. Finala maiatzaren 8an jokatuko dute liga txikiko lehenengo bi taldeek, Gasteizko Auzolana pilotalekuan.

Bat-bateko bertsoen lehia hasi aurretik, Bertso Sorta Kolektiboa bertso jarrien lehiaketako lehen finalerdia jokatu zen herenegun Gopegin, eta Gasteizko Aldapazaleak taldeak lortu zuen finalerako sailkatzea, Gasteizko Bertsoaren Saltsan eta Maeztuko bertso eskolako Mendialdekoak taldeak gainditurik. Txapelketako liga txikiko gainerako saioekin batera egingo dituzte Bertso Sorta Kolektiboa bertso jarrien lehiaketako gainerako saioak.

# Mahats pikorrak ahoan

## Kritika

**Dantza**
'Irresponsables'

**Konpainia:** Provisional Danza.
**Lekua:** Artium museoa (Gasteiz).
**Data:** Apirilak 10.

**Agus Perez**

Gutxitan izaten dugu Provisional danza konpainiaren lanak gurean ikusteko aukera, eta beraz, Gasteizko Artiumek programatutako emanaldia ezinbesteko hitzordua bihurtu da. Dantzarako atondu duten aretoa guztiz zuria da eta kontraste aproposa egin du dantzarien jaka, gona labur edota praka beltzekin.

Zuri-beltzeko estetika zehatz hori bat etorri da lehen pasarteetan erakutsi den muturreko dotoreziarekin, eta dantzarien beso eta eskuen keinu delikatuek mugimenduaren pisugabetasuna azpimarratu dute, Transit konpainiaren *Mandala* mitiko hura ere gogoraraziz. Hala ere, oraingo honetan Carmen Werner koreografoa asko aldendu da bere estiloan hainbeste preziatzen ditudan dentsitate eta sakontasun horietatik, eta askoz pieza jostagarriagoa eratu du, gizakiaren alderik etereoenak dantzaren elikagai izan daitezen.

Hasiera batean oinutsik zihoazen hiru gizonak, eta takoiekin hiru emakumeak, baina haietariko inork ez du ezer jantzi jaka beltzaren azpian, eta batzuen zein besteen bular-aldeak agerian geratu dira une batean edo bestean. Laster, baina, areagotuz joan dira biluztasun une laburrak eta, banitatearen eta sentsualtasunaren gainetik, erotismorik aratzenak hartu du emanaldiaren protagonismo osoa. Horretan, jakina, rol nagusia jokatu du gorputz bakoitzaren edertasunak, baina aldi berean, esangura handikoak izan dira arropa aldaketak, emakumeen adats luzeak eta atsegin handiz ahoratu diren mahats pikor potoloak.

Daniel Abreu koreografoaren laguntza eszenikoarekin, planteamendu koreografiko konplexua sortu du Wernerrek, eta zaila izan da eszenan gertatzen zen guztia jasotzea. Gainera, dantzarekin batera hizketaldi laburrak, txantxa subliminal bikainak eta objektuen erabilera sinbolikoak tartekatu dira. Fox-trot estiloko musikarekin dantzatutako zatiek, ordea, publiko zabalari egindako kontzesioaren itxura hartu dute, baina proposamenak bere osotasunean aberastasun handiko diskurtsoa sortu du eta, batez ere, beste plano batean kokatu gaitu geure buruarekiko.


Provisional taldearen *Irresponsables* koreografiako irudi bat.

harpidedunentzat
Kioskoa sarrerak
Atera etekinak Berriaren harpidetzari!
berriak gonbidatzen zaitu

IRRIEN LAGUNAK



Pirritx, Porrotx eta Mari Motots

20 sarrera

MENDIZORROTZA
Gasteiz

Apirilak 17, larunbata
16:00etan eta 19:00etan

GOSE




kontzertua

10 sarrera

KAFE ANTZOKIA
Elgeta

Apirilak 17, larunbata
22:30ean

UMEENTZAKO ANTZERKIA

Gorakada teatro:
'Julio Verne-ren azken abentura'



10 sarrera

SOCIAL ANTZOKIA
Basauri

Apirilak 18, igandea
12:30ean

Antolatzailea:

Sarrerak eskuratzeko deitu, **apirilaren 14 asteazkena**, harpidetza sailera.
(Ordutegia: 08:30-10:30. Telefonoa: 943-30 43 45)

**Jasotako dei guztien artean zozketa egingo dugu.
Saridunen izenak apirilaren 15ean argitaratuko ditugu egunkarian.**

AUKERA EZAZU, BIZI EUSKARAZ berria





Miriam Altube eta Ixiar Garcia Futuramak, ama futuristen taldeko sinboloa egiten. MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

Futuramak Bilbon sortu den talde berria da. Gurasoek dituzten beharrizanei erantzuten berritzaileak izaten saiatzen dira, elkarri bizipenak eta esperientziak kontatuz.

# Ama futuristak Bilbon

**Ianire Renobales** Bilbo

Ama zein aita sortzaileek sortutako talde aurrerakoia da Futuramak, ama futuristak. Beraien zeregina da egunerokotasuna hobetzea, eta datozkien abentura berri guztiak dibertigarriagoak izan daitezen ideiak martxan jartzea. Futuramak urte hasieran sortu zen Bilbon; hala ere, hilabeteak zeramatzaten proiektuarekin lanean. Sei lagunek osatzen dute elkargunea, baina Internet bidez handituz doa proiektua, eta hamabost partaide dira orain. Ekimena martxa onean ari da aurreratzen, eta, hurrengo hilabeteetan, Donostian, Gasteizen eta Oiartzunen sortuko dituzte talde berriak.

Futuramak astean behin, asteazken arratsaldeetan, elkartzen dira. Eguraldi txarra badago txoko batean biltzen dira; bestela, kalean, zabuak dauden tokietan umeak asper ez daitezen.

Talde honen xedea ideia berriei ekitea da. Hirietan aurkitzen dituzten zailtasunak detektatu, horien inguruan hobekuntza batzuk proposatu eta aurrera eramaten saiatzen dira. Ixiar Garcia Futuramak taldeko sortzailea da, eta, hark azaldu duenez, «egunerokotasuna sortzaileagoa izatea bilatzen dugu, ama eta aita berritzaileak izanez. Gurasoek daukagun ikuspegi batetik, paisaia eraldatzea da gure asmoa».

Garciak haur gazte bat dauka, eta ama izan zenean beharrizan berriak zituela sumatu zuen. Jada haurdun zegoela ohartu zen hirian bertan zerbitzu eta eskaintza ez zegoela guztiz eguneratuta. Dioenez, esnatzen denetik oheratzen denera arte, hobekuntzak bilatzen saiatzen da. Miriam Altube ere Futuramak taldeko kidea da: «*Baby friendly* guneak, umeentzako egokitutako espazioak, bultzatu nahi ditugu hirian; kafetegiak, zinemak, dendak, parkeak... izan daitezke; azken batean, adin guztietako umeentzako leku aproposak sortu».

Era berean, gurasoentzako toki egokiak bilatzen dituzte, zarata gabeko eta atsedenerako lekuak. Batzuetan gurasoek elkartzea beharrezkoa dutela aipatu dute; horiek horrela, aholkularitza emateko sarea sortzeko asmoa dute. Bizipenak elkarri kontatzearen aldeko apostu garbia egiten dute, egungo zerbitzu asko modu positiboan eraldatzeko.

Bestalde, taldeak amek duten bizimodu aldaketa aldarrikatu nahi dute. Altubek argi dauka, «amatasuna ez da geldialdi bat bizitzan; asmo, grina eta ilusioekin jarraitu behar du emakumeak. Seme edo alaba bat izanda ez da mundua bukatzen, handitu egiten da». Ideia hori abiapuntutzat hartuta, umeentzako hezibeta sortzaileagoa bilatzen saiatzen dira etengabe.

### Ideia futuristak sustatzen

Burutapenen joan-etorri horretan ideia batzuk garatzen saiatzen ari dira. Hasteko, Bilboko mapa bat sortu nahi dute bakoitzak bere umeak eramaten dituen tokiak markatzeko eta partekatzeko. Futuramak diren lekuak adierazi nahi dituzte gida horretan, baina baita Futuramak ez diren lekuak ere. Umeekin joateko eta egoteko aproposak ez diren tokiei gurutze gorria ipini nahi diete. Adibidez, sarreran eskailerak dauzkaten saltokiak edo aulkiarekin mugitzeko lekua ez dutenak. Beste ideia bat da bularra emateko elastikoak diseinatzea. Ama futurista horien ustez, merkatuan oso gutxi eta garestiak daude aukeran. Nabarmendu dute bularra emateko lekuak oso murritzak direla hirian, batez ere neguan; beraz, interesgarritzat jotzen dute Futuramen gida horretan identifikatzea umeak elikatzeko puntuak.

> «Egunerokotasuna sortzaileagoa izatea nahi dugu, ama eta aita berritzaileak izanez»
> **IXIAR GARCIA**
> Futuramak taldeko sortzailea

> «'Baby friendly' guneak, umeentzat egokitutako espazioak, bultzatu nahi ditugu hirian»
> **MIRIAM ALTUBE**
> Futuramak taldeko kidea

Bestalde, liburuen mailegua eta informazioaren transmisioa aipatzen dute. Tailerrak antolatu nahi dituzte ezagupenak partekatzeko, eta urtean behin kongresua egin nahi dute haien filosofiarekin bat datozen lagunek egitasmo horiek aberastu ditzaten. Gainera, artistak gonbidatu nahi dituzte umeen parkeetan edo berdeguneetan interbentzioak egin ditzaten. Gainera, bizikletazko ibilaldiak edo irakurketa saioak ere bultzatzen dituzte taldekideek.

Egunerokotasuna puskatzean datza gakoa. Proposamenak egiten ditu Futuramak, ama futuristen taldeak. Kultur programazioen aldaketa proposatzen dute, hankaz gora ipintzea aurretik lehendiko errutina asko. Futuramak askatasunaren mezua luzatu nahi du, iritziak eta esperientziak elkarri kontatzeko aukera eman nahi du pertsonak epaitu gabe. Ama edo aita futurista izan nahi duenak Interneten topatuko ditu emakume sortzaile hauek, *futuramak.blogspot.com* webgunean.

Osasuna →

Zereal integralak baztertu egin dira azken urteotan, baina, osasunari begira, askoz elikagai hobeak dira zereal integralekin egindakoak; ogian, arrozan, galletetan eta abar izaten dira.

# Integralak ala finduak?



Elikadura
Cristina Perez

Komeni da gure eguneroko dietan zereal integralak hartzea, dituzten ezaugarriengatik. Zereal integralek zuntz gehiago dute, eta osasunerako mesedegarriak dira. Ogia, arroza, gosaltzeko zerealak, galletak... eta beste hainbat janaritan izaten dira.

## Bien arteko desberdintasunak

Janari integralak zerealen ale osoarekin egiten dira; hori dela eta, zuntz gehiago daukate finduek baino. Elikagai finduen prozesuan zerealen zati batzuk kentzen dira; esaterako, galorratza eta zahia. Horrek ezaugarri nutrizionalak aldarazten ditu. Bien ezberdintasun nagusia konposaketa nutrizionalean dago.

Laboreen germenean dauden nutrienteak B taldeko bitaminak, E bitamina, selenioa, zinka, kobrea, magnesioa, fosforoa, burdina eta gantz poliinsaturatuak dira. Zereal integral horiek dituzten zahiak zuntzetan aberatsak dira.

Nutriente horiek edukitzeaz aparte, zaporea ere aldatu egiten da, zereal integralaren zaporeek intensitate gehiago daukatelako normalean.

## Zein eragin dute osasunean?

Zuntzetan aberatsak diren janariek dituzten nutrienteei esker, osasunean onura hauek izaten dira:

- Digestioa hobetzen du, gorontziak osatzen laguntzen eta egestioa errazten du; beraz, idorreria salbuesten edo sendatzen du.
- Minbiziaren kontra lan egiten dute, batez ere koloneko minbiziaren kontra. Gaixotasun hori sortzen duten partikulak (kantzirogenoak) gorontziekin batera bultzatu ditu zuntzak, eta heste lodiarekin kontaktuan denbora gutxiago egoten dira.
- Ase egiten dute, eta hori gizentasuna salbuesteko eta sendatzeko baliagarria da, beste elikagai energetikoak jaten ez direlako. Horrek ez du esan nahi jangai horiek energia gutxiago dutenik.
- Odolean kolesterola jaisten laguntzen dute; beraz, arazo kardiobaskularretan lagungarriak dira.
- Diabetea duten pretsonentzat egokiagoak dira zereal integralak zereal finduak baino. Elikagai integralen indize gluzemikoa finduena baino txikiagoa da; hau da, jan eta gero ez dute glukosaren nibela igotzen, glukosa motelago xurgatzen delako zuntz horieri esker. Beraz, intsulinaren beharrak txikiagoak dira.
- E bitaminak nerbio sistemako zelulak babesten ditu (globulu gorriak eta gihar zelulak), antioxidatzailea baita.

Hala ere, denak ez dira abantailak eta kasu konkretu batzuetan gomendagarriagoak dira elikagai finduak.

Elikagai integralak hartzera ohituta ez dagoen pertsona bati arazo gastrointestinalak sortu ahal dizkio zereal integral gehiegi hartzeak. Beraz, komeni da intergalen kontsumoa gutxinaka gehitzen joatea.

Beherakoa daukan pertsona batek ere zereal finduak hautatu behar ditu, baita cron gaixotasuna eta kolitis ultzerosoa duen pertsonak ere, labore integralek gaixotasun horiek areagotu egiten dituztelako.

Desnutrizioa edota digestio astuna duten pertsonentzat ere gomendagarriagoak dira elikagai finduak integralak baino. Lehenengoak askoz errazago xurgatzen dira; beraz, gehiago aprobetxatuko dira dituzten nutrienteak eta azkarrago lortuko dugu energia.

Anemia dutenek ere zereal finduak hautatu behar dituzte; zuntzekin, burdina xurgatzea gehiago kostatzen zaiolako gorputzari.

## Zuntzetan aberatsak diren janariak eta zuntz motak

Kontuan izan behar da bi motatako zuntzak daudela, zuntz solubleak eta zuntz insolubleak. Solubleak ura hartzeko ahalmena du; horri esker, zuntza puztu egiten da, eta bolumena ematen diete gorontziei. Zuntz insolubleak ez dauka ura hartzeko ahalmenik. Horren funtzioa gorontziak narrastatzea da. Biak oso beharrezkoak dira. Labore integralak zuntz insolubleak ditu bakarrik. Beraz, organismoak behar duen zuntz maila lortzeko, zereal integralez aparte, zuntz soluble duten elikagaiak ere hartu behar dira; frutak, barazkiak eta lekaleak.

Badaude berez zuntzik ez duten jatekoak eta gehitu egiten diezkitenak; esaterako, jogurta eta esnea. Beste batzuetan, zerealak findu egiten dituzte, eta gero zuntza gehitu; horiek ez dira janari integralak, zuntzetan aberatsak baizik, eta ez dituzte ezaugarri berak.

Elikagai integralak zerealen garuna osoarekin egindako elikagaiak dira. Zuntzetan aberatsak direnetan, aldiz, zereal finduei zuntza gehitzen diote, baina gehienetan zuntz hori soilik zahia da germenik gabe. Beraz, germenaren bitaminak eta mineralak ez ditu edukiko.



Labore integralak alde askotatik onak dira giza gorputzarentzat. BERRIA

Produktua

## Arrautza

Jangai aberats eta osasuntsua da arrautza; ezaugarri nutrizionalak direla medio, jatea egokia da edozein adinean. Astean lau edo bost arrautza jatea aholkatzen da.

Proteinen iturri da arrautza, kalitate handiko proteinen iturri gainera (haragiak edo arrainak ematen dituzten proteinak baina kalitate handiagokoak). Egia da, bestalde, kolesterol kopurua handia duela, baina gantz asegabeetan; hau da, gantz onetan aberatsa da, eta horrek kolesterolaren eragina konpentsatu egiten du. A, D, E eta B bitaminetan, burdinean, fosforoan, zinkan eta selenioan aberatsa da, gainera.



Galdera

## Gure amak 75 urte ditu, eta hortz asko galdu ditu; murtxikatzeko arazoak ditu, eta horrek jangaiak asko murriztu dizkio; alegia, elikagai ugari ezin ditu jan. Zer egin dezakegu?

Barazki jatorriko janarietan, beti aipatzen ditugu karbohidratoak, koipeak, proteinak, zuntza, gatz mineralak eta bitaminak. Baina, azken urteotan, nutriente talde horietan sartzen ez diren beste sustantzia ugari daude. Horiei deitzen diegu sustantzia edo elementu fitokimikoak. Landare jatorriko janarietan izaten dira bakarrik, eta oso kopuru txikietan, gainera: fruta, barazki, lekale eta zereal batzuetan. Gatz mineralek eta bitaminek bezala, ez dute energiarik ematen, baina gehienek gaitasun antioxidatzailea dute, gaixotasun askoren prebentzioa eta sendakuntza errazten dituzte. Horregatik, komeni da aipatutako janarietan dieta askotarikoa eta aberatsa izatea.

**Osasuna →**

Izaera baikorra edo ezkorra edukitzea maila batean genetikak finkatzen duela diote adituek. Dena den, ikasi ere egiten da baikor eta ezkor izaten. Ezbeharretatik ateratzeko, jarrera baikor bat edukitzea oso garrantzitsua izan daiteke.

# Nola ikusten duzu botila?



**Adimen emozionala**
Karmele Gurrutxaga

Eman dezagun botila bat duzula esku artean, eta, barruan begiratuz, zerbait duela ikusten duzula: kantitate berdina dago airetik eta uretik; bai? Zer esango zenuke, erdi hutsik edo erdi beterik dagoela? Behin, aurrez erretiratutako pertsona talde batekin ikastaro batean nintzela, galdera berdina egin, eta argi asko erantzun zidan kide batek: «Barruan dagoenaren arabera: ura baldin badago, erdi beterik, eta ardoa baldin badu, berriz, erdi hutsik».

Botilen izaera, erdi hutsik edo beterik ikustea, konturatuko zinen moduan, jarrera baikorra eta ezkorrarekin zuzenean lotzen da. Horren inguruan adi datu honi: Martin Seligmanek, Pensilvaniako Unibertsitatean Psikologia Baikorraren mugimenduaren aitzindarietako batek esan bezala, izaera baikorra heredatzen den bertutea da, %44 arteraino behintzat. Kontuan hartzeko datua, nolanahi ere. Iturria aipatu nahi izan dut, informazioari seriotasuna eman asmoz; hau da, ez du zerikusirik denbora-pasarako egin ohi diren ikerketa arin horiekin. Eta zer esan nahi du horrek, jarrera ezkorra oinordetza moduan jaso bada, zama hori ere eragingarri izango dela? Ez dakit, kontrastatu gabeko ondorioa dugu azken hori; beraz, heldu diezaiogun esanguratsu denari.



Botila erdi hutsik ikusten dute batzuek, eta erdi beterik besteek. BERRIA

**Ikasi edo oinordetu**

Sekulako zortea dute zenbaitzuek, itxura batean behintzat: ile horia izatea, kalitate oneko hortzak edo gantzak gehiegi itsasten ez direneko genetika horiek onenak zirelakoan ginen honetan, gainera, jarrera baikorra ere heredatzen omen dela baieztatzen digute. Bada, a zer zortea horiena. Herentziaz jasotzen denaren inguruan, psikologia eta pedagogiaren esparruan ia betidanik sortu den eztabaida ere hor dago ordea: baikor izate hori, zer da, heredatua ala ikasia? Izan ere, ukaezina da lehen urteetan ekiten den modelatze prozesu horretan, ia konturatu ere egiten ez garen keinu, trebezia edo hitz egiteko moduak nola xurgatzen eta imitatzen dituen haurrak. Eta, beraz, baikor izate hori ez ote da ikasi den zerbait?

Bada, zorionez, ikasi ere egiten da. Eskerrak! Bestela, ehuneko horretatik kanpo geundekeenok non erreklamatu geure eskubideak?

Jarraian, lehen aipatutako bi kontzeptu, antzekoak baina oso ezberdinak: izaera eta jarrera. Izaera baikorra da herentzia baikor hori jaso dutenen lehen hazia, berezkoa. Baita hazi zoragarri hori jaso ez arren inguruan baldintza egokitan ernetzen hasi dena ere: lehen urteetako etxeko giroan, hezitzaile eta zaintzaile izan direnekin harremanetan; inguruan diren gauza eta bizipen xume horien atsegintasuna aditzera ematen denean; gauza txiki horien benetako balioa eta handitasuna xurgatzen duenean.

Orain, jarrera; jarrera baikorra, ezkorra, irekia, edo itxia; edozein dela ere, jaiotzetik edo hezkuntzari esker jasotakoa izan daiteke, baina baita ikasia ere. Eta, berriro diot, eskerrak! Bada itxaropena, beraz. Hau da, guretzat ohikoa eta berezkoa bada botila erdi hutsik ikustea, bada, okerrago ibiliko gara egoera zailei aurre egiteko garaian, baina, edozein kasutan, geure erantzukizunaz jabetu beharko dugu. Erantzukizuna diot, ez egoera zaila geuk eragin izanagatik —ez beti, behintzat—, egoera horrekiko guk geuk dugun jarrerarekiko, alegia.

Pertsona baikor eta ezkorren artean nork ditu arazo gehiago? Eta nahigabezko gertakari gehiago pairatzen ote dituzte mundua beltz ikusten dutenek? Tamalez, kanpotik sortutako zorigaitz eta bizipen gogorrak edozeinen bizitzan eror daitezke; baikor edo ezkor, kontua hau da: baikorrek aurrera egiteko gaitasun handiagoa dutela, gertaera horren iluntasunean harrapatuta gelditzen ez direlako. Eta inguruan dituzten gauza txiki atsegin handi horiekin abian jartzen direlako.

**Gauza txiki atseginei heldu**

Pentsalari ezezagun baten hitzak jarraian: «Zaindu itzazu zure pentsamenduak, denborarekin zure hitz bilakatuko baitira. Zaindu itzazu zure hitzak, denborarekin zure ekintzak bihurtuko baitira. Eta zaindu itzazu zure ekintzak, denborarekin zure bizitza bilakatuko baitira».

**Baikorrek ezkorrek baino aukera gehiago dituzte egoera zailetan aurrera ateratzeko**

**Norberaren jarrerak eragin dezake egoera ilunak ilun izaten jarraitzea**

Berriro diot: ezin esan norbera bere zorigaiztoen eragile denik, ez horixe. Baina bai, norbere jarrerarekin egoera ilun hori iluntzen jarrai daitekeela, nonbaitetik argi-izpiren bat bilatu ordez.

Etxeko lan atsegin bat amaitzeko: egizu, egunaren amaieran, gaur bizi izandako une atseginen balantzea; ahal bada, gogoratu zeuk eragindako egoera atseginena. Eta berdin bihar, etzi… benetako zoriona une txiki atsegin horien emaitza baita. Irribarre gozo bat zuretzat.

ERROTA
HORTZ KLINIKA
ZURE AHO OSASUNAREN ZAINTZAILEAK
Julian Apraiz, 1
01012 GASTEIZ
Tel.: 945 21 33 90
errotadental@euskalnet.net

sycom training
ADIMEN EMOZIONALA
• Ezagutu zure emozioak, ongizatea bilatu
• Enpresetan, hezkuntzan eta familiekin egin dugu lan
Gordoniz, 44 2.
48002 BILBO
944-103027
www.sycomtraining.com

**Ezarian →**

Egunero bizimoduan ezinbestekoa bada ere, ahotsa ez da merezi den moduan zaintzen, adituek diotenez; ahotsaren patologiak hedatu egin dira azken urteetan.

# Barruko arma ikusezina



**Anakoz Amenabar** Gasteiz

Seduzitzeko arma, beldurtu, agindu edota eta irribarre eginarazteko ezinbesteko tresna da ahotsa. Ez dago pertsonaren izaera agerian utziko duen ezaugarri hoberik. Txikitatik erabiltzeagatik, ordea, ez zaio behar besteko garrantzirik ematen, ez da behar bezala zaintzen, harekin bestelako helburuak lortu daitezkeela jabetu arte. Ostiralean, ahotsaren nazioarteko egunean, behar duen garrantzia eman eta zaintzeko deia egingo dute adituek.

Urtetik urtera hazten ari dira ahotsarekin lotutako gaixotasunak, geroz eta zarata gehiago duen gizarte honetan. Lanerako ezinbesteko tresna da askorentzat eta haiek dira, hain zuzen ere, gaixotasun mota hau izateko arrisku gehien dituztenak. Eskola irakasleak dira disfonia gehien jasaten duten profesionalak, baja hartzeko arrazoien artean lehendabizikoa. Irakaskuntzan dabiltzanen % 62k arazoak dituzte ahotsean eta % 42k, disfonia funtzionala dute, ahotsa egoki erabiltzen ez dutelako dituzte arazoak. Haurren artean ere, sei-zortzi urterekin, ahots arazo ugari izaten dira, noduluak sortuta, batik bat mutilen artean.

**Ahots perfektuaren bila**

Adituen arabera, ahots osasuntsu eta natural bat izatea gorputzaren araberakoa da. Behar bezala izateko, besteak beste, komeni da egunean bi litro ur edatea, ahots korda eta arnas bideak hidratatuta mantentzeko. Berogailu eta aire girotuak kontrolatu behar dira, arnas bideak sumintzen direlako, eta hizketa garaian etenak egitea komeni da.

Ahotsa aipatuta, Frank Sinatra (1915-1998) dator gogora. Izen berarekin ezagun egin baitzen New Yerseyko (AEB) abeslaria, teknikoki abeslari bikaina izateaz gainera, abestien emozioak antzeztu eta transmititzeko zuen abileziagatik. Bada gizateriaren ondare izendatu duten ahotsik ere: Carlos Gardel (1887-1935) tango abeslari uruguaitarrarena. Hala erabaki zuen Unescok 2003an, Munduko Memoriaren egitasmoaren baitan. Urruti joan gabe ere, bada historiara pasako den ahotsik, Julian Gaiarrerena (1844-1890) esaterako. Egun ez da grabaziorik geratzen baina entzun zutenek «aingeruen antzera» kantatzen zuela kontatu dute. Bitxikeria moduan, haren laringea enbalsamatua ikus daiteke Erronkarin kantariaren omenez dagoen museoan. Ohikoa baino laringe handiagoa zuela deskubritu zuten medikuek.

Norberak gustuko ahotsak ditu memorian gordeta, baina zientzialariek ere topatu dute perfektua. Andrew Linn Sheffieldeko (Ingalaterra) unibertsitateko hizkuntzalaritza irakasleak eta Shannon Harris musika ingeniariak egin zuten esperimentua 2008an. Horretarako, Europako emakume eta gizonek hitz egiterakoan erabiltzen duten tonuaren azterketa egin zuten, baita hitz egiteko abiadura, minutuko hitz kopurua, frekuentzia eta intonazioa ere.

Guztiak aztertu eta ezaugarri matematiko komunak alderatu zituzten. Autoreen arabera, ahotsa erakargarri egiten duten ezaugarri garrantzitsuenetako bi hitz egiten duenak beregan duen segurtasuna eta gainontzekoekin duen konfiantza dira. Erakargarri izateko, pertsona batek gehienez 164 hitz esan behar ditu minutuan, eta 0,48ko etenak egin esaldien artean.

Ikerketak ikerketa, norberarena zaindu eta ahalik eta etekin gehien ateratzeko ikastaroak ere badaude. Gustuko hitzekin, ordea, ahots baldarrik ez.

## ↓ Ahotsarekin lanean



### «Esperientziarekin mikro aurrean lasaiago zaude, eta nabari da ahotsean»

**Amaia Villanueva.**
Irrati esataria

Goizetik sartzen da lanera Herri Irratiko estudioetan, eta gorputzeko beste atalak bezala ahotsa ere iratzarri eta berotzen joan behar dela dio. «Ez da gauza bera mikrofono aurrean goizeko zazpietan jartzea edo arratsaldeko bostetan. Goiz lan egin behar dudanean hitz egitea edo ozen irakurtzea gustatzen zait, emisioan sartu aurretik». Urteek aurrera egin ahala, ahotsa ere hezten joaten dela uste du, mikrofonoen aurrean hitz egiteko modua moldatuz doa eta aurkezten ari den saioarentzat egokiena bilatuz. «Azken batean, ez da gure egunerokoan erabiltzen dugun hitz egiteko modua, eta iratia bertan ez da gauza bera albistegietan aritzea edo magazin batean, ahots formatu desberdinak ikasten zoaz». Garrantzitsuena, hitz egin bitartean arnas egiten ikastea da: «Badirudi erraza dela, baina batzuetan mikroaren aurrean azeleratu eta arnasik gabe geratzen zara. Esperientziarekin lasaiago zaude, naturalago, eta antzematen da ahotsean». Irratian ari bada ere ahotsa gehiegi zaintzen ez duela aitortu du, «eta gero horrek ondorioak dakartza, batez ere astelehenetan, asteburu aldrebesa izan bada».



### «Konfiantza emateko beharrezkoa zait ahotsa ondo izatea»

**Olaia Arrieta**
Abesbatzako partaidea

Kantuzale amorratua da eta ez du ahotsik gabeko egun bat imajinatzen. Gasteizko Vocalia abesbatzako partaidea da, baina hortik kanpo ere kantu kantari igarotzen du eguna, autoa gidatu edota goizean lanerako prestatu bitartean. «Txikitatik abestu izan dut, eta orain ume txiki bat daukat eta asko abesten diot, nik asmatutako kantuak eta betikoak ere bai». Bulegoan ere elementu garrantzitsua du ahotsa, lan bileretan batik bat, «bezeroari segurtasuna edo eta konfiantza transmititzeko beharrezkoa izaten baita ondo edukitzea». Afoniak eman izan dio disgusturen bat edo beste; abesbatzarekin denbora luzez Mozarten *Requiema* prestatu eta gero, haren lagunek kantatzen nola disfrutatu zuten ikusleen artean eserita ikusi behar izan zuen. Geroztik eztarria ondo zaintzen saiatzen da, aire korronteetatik ihesi, fularrekin estalita, baina noiz edo noiz afoniko jartzen denean ere badu sendabiderik: «Pare bat egun izaten dira, oso deserosoak, eztia ur beroarekin hartzen dut orduan». Arreta berezia jartzen die ahotsei, «deserosoa egiten zait gaizki arnastegatik ahotsa kaltetuta dutenena».



### «Ahal dugun arte behartu behar izaten dugu eztarria»

**Unai Gartzia**
Irakaslea

Ezinbesteko tresna da ahotsa irakasle lanean. Eguna azalpenak ematen igarotzen du eta ozen gainera, 25 bat gaztetxoren aurrean. «Eguna amaitu orduko, sei bat orduren bueltan, ia etenik gabe hitz egiten aritu eta gero, lur jota amaitzen dugu». Horregatik, hainbat arazo izan ditu lanaren ondorioz; ahotsa galdu izan du eta eztarriko infekzioa ere izan du behin baino gehiagotan. Oporraldiak izaten dira arazo horiek gainditzeko garaiak baina bitartean gutxiago eta baxuago hitz egiten saiatzen da. «Isilik egotea litzateke hoberena, baina hori ezinezkoa denez, ahal dugun arte behartu behar izaten dugu eztarria». Pentsatu izan du maiz ahots adituenera jotzea baina ez du, oraingoz, bisitatu. «Dinamika horretara ohitu naiz eta ez dut neurri berezirik hartzen. Kontua da, ordea, urteek aurrera egin ahala ahots gaitasunak galdu ditudala ohartu naizela». Ahotsa bera baino gehiago hitz egiteko modua baloratzen du, tonua, behar bezalako isiluneak egitea ahoskera, intonazioa... «Konkistatzeko edota konbentzitzeko tresna ezin hobea da ahotsa, behar bezala erabiltzen jakinez gero, noski!».

## Ezarian →



GIORGIO BENVENUTI / EFE



### «Ez zait garrasika ibiltzea gustatzen, ezta mitinetan ere»

**Mikel Arana**
Politikaria

Ahotsik gabe ezingo luke Eusko Legebiltzarreko osoko bilkura edota prentsaurrekorik eman. Lan tresna garrantzitsuena du ahotsa, baina behar adina zaintzen ez duela dio: «Ez behar den beste, ezta gutxiagorik ere, ez dut ezer zaintzen. Eztarriko mina dudanean ezti pixka bat hartzen dut esne beroarekin, baina soilik mina dudanean». Erretzailea da, gainera, eta horrek ez dio ahotsari batere mesederik egiten. Ahotsa behartu, ordea, ez du gehiegi behartzen. «Oso gutxitan oihukatzen dut, ezta mitinetan ere, ez zait garrasika ibiltzea gustatzen, ezta altuegi hitz egitea ere». Arazoren bat edo beste izan du Legebiltzarrean ahots gabe geratu delako baina beti gertatu izan da batzordeetan, oihartzun handiagoa izan zuen Euskadi Irratiko solasaldi batean bizi izandakoak: «San Tomas egunaren biharamunean ia ahotsik gabe nengoen eta solasaldia nuen, nola konpondu? Tamalez entzuleei barkamena eskatu nien eta ahal izan nuen neurrian solasaldia bukatu». Politikarien artean ez dago bereziki gustuko duen ahotsik, baina bai, ordea, «gorroto» duen baten bat, «norena den ez dut esango, noski».

**Rafael Garcia Sardon** • Otorrinolaringologoa

# «Inguruan dugun zarata da ahotsaren etsairik handiena»

**A. Amenabar** Gasteiz

Gasteizko Santiago eta Txagorritxu erietxeko ahotsaren laborategian dihardu, ahotsaren ezaugarriak aztertu ez ezik haren erabileran izaten diren disfoniak aztertzeko. Besteak beste, giro hotsak eraginda, nabarmen areagotu dira ahotsaren gaixotasunak.

**Zer erakusten digu ahotsak?**
Pertsona hori nolakoa den, haren izaera, harroa edo lotsatia den, umoretsua. Ispilu bat dela esan dezakegu. Ahotsa pertsona horrek harremanetan jartzeko duen modua da, pentsamendu eta sentimenduak adierazteko modua, eta lagun horrek bizi duen egoeraren arabera ere aldatu egiten da.

**Zein da herritarren ahotsaren egoera? Zaintzen dute behar bezala?**
Esan daiteke orokorrean ez dugula zaintzen behar den moduan, eta askotan garrantzia kentzen diogula. Adituengana jotzen dugu egoera kaxkarra denean eta beste aukerarik ez dagoenean, baina oso gutxi doaz aurretik errebisioa egitera, ez bada laneko mediku frogari esker. Ez gara konturatzen ahotsak duen garrantziaz arazoa eduki arte. Ahoko kordetatik operatzen dudanean sei bat egun egin behar izaten ditu gaixoak hitzik esan gabe eta benetan gaizki pasatzen du.

**Komeni da otorrinoarenera joatea?**
Komeni da urtean behin, behintzat, errebisioa egitea. Bi aste baino gehiago ahots zakarrak jota bagaude, bestalde, suposatu dezakegu ahots kordetan alterazioa egon dela eta beharrezkoa dela aditua-renera jotzea.

**Zein da ahotsaren gaitzik ohikoena?**
Disfonia da, ahots zakar moduan ezaguna dena. Horren kausa nagusia esfortzu bokala izaten da, dagokiguna baino ahots bolumen handiagoa erabili nahi dugunean. Eta egungo gizartean horren sortzaile nagusia soinu kutsadura da. Tabernetara sartzean, esaterako, gure gaitasunen gainetik hitz egiten ari gara, eta horri tabakoa eta alkohola gehitu behar zaizkio askotan. Alkoholak, kontrakoa dirudien arren, asko lehortzen ditu ahots kordak eta narritadura sortzen du.

**Arazoa haurren artean ere kezkatzeko modukoa da, ezta?**
Bai, haurren artean egoera ez da batere ona. Eskolan dauden haurren %40k ahotsaren patologiaren bat du. Beste haurren artean gailentzeko indartu egiten dute ahotsa askotan. Horrek noduloak eragiten ditu eztarrian.

**Nola zaindu daiteke hori?**
Gehienetan bakarrik desagertu egiten dira, beharrezko errehabilitazioarekin. Noiz edo noiz kirurgia beharrezkoa izaten da. Egoera horiek saihesteko atsedena eta hainbat gomendio bete behar dira. Suabe hitz egitea, esfortzurik egin ez eta soinu kutsadurarik gabeko egoera batean bizitzea. Hori da etsairik handiena. Ahotsarentzako toxiko handiena, tabakoa baino gehiago, giro zarata da. Kutsadura horrek egiten du gure gaitasunen gainetik hitz egitea. Tabakoa eta berogailuek sortzen duten lehortearekin batera, narritadura sortzen da ahots korden muki-mintzetan eta gaixotasuna azkenik. Beharrezkoa da irratiaren edo telebistaren bolumena, esaterako, oso altua ez izatea. Lau ordu baino gehiago jarraian hitz egiten egotea edo bi ordu baino gehiago abesten egotea ere kaltegarria da, traumatismoa sortzen duelako kordetan.



JUANAN RUIZ / ARGAZKI PRESS

Ez da ahaztu behar kordak soinua sortu arren, arnas aparatuak emango digula indarra eta horregatik hau ere zaintzea beharrezkoa dela.

**Garrantzitsua da sudurretik arnas egitea, ezta?**
Ahal dugunean behintzat bai. Airea berotzen du sudurrak, hezetu eta filtratzen duelako.

**Posible da gustuko ahotsa ez izan eta aldatzea?**
Ez da miraririk egiten baina bakoitzarentzat onena dena lortu daiteke. Ahotsa hezi daiteke.






Hiru eta berrogei euro arteko laguntzak jaso zituzten iaz Nafarroako euskaltegietako ikasleek Gobernuaren eskutik. Kexen ondoren, kendu egin dute diru saila aurten.

# Diru ez den diru laguntza

**Iñigo Astiz** Iruñea

Ezin esan hiru euro dirua denik, ez eta laguntza handiegia denik ere. Baina hori da Alfredo Chourraut euskara ikasleak iaz barnetegian aritzeagatik jaso zuen diru laguntza. Hiru euro eman zizkion Nafarroako Gobernuak euskara ikasteak dakartzan gastuei aurre egiteko. Klaseen ehuneko hainbatetan egoten zela ziurtatzen zuten paper sinatuak aurkeztu behar izan zituen horretarako, matrikula ordaindu izanaren ziurtagiria, fotokopiak... dena. Irriz hasten da azalpenaren une honetan Chourraut. «Egin beharreko horiek egin eta denbora batera bi eskutitz ziurtatu jaso nituen. Ez bat, bi baizik; bi eskutitz. Euskarabidearena bata, eta ogasunekoena bestea. Bi eskutitz, hiru euroko laguntza eman zidatela esateko! Diru laguntza baino gehiago balio dute, kasik, bi eskutitz horien zigiluek eta!». Esku bakarrean erraz kabitzen zaizkio, behintzat, hiru euroak.

Ez da kasu partikularra. Antzeko eskutitzak jaso zituzten Nafarroako euskaltegietako hainbat ikaslek urtea bukatze aldera zela. Izan zen 40 euro jaso zuenik, baina baita 6, 8, 12, 18, 25 eta Chourraut kasuan bezala, hiru euro jaso zituenik. «Borondate gutxi dago», dio, «eta disimulatzeko are gogo gutxiago. Hori erakusten du diru laguntza honek».

Jasotakoa itzuli egin zioten, horregatik, ikasleek Euskarabideari. Zentimoko txanponetan itzuli ere. 20.000 eurokoa zen Nafarroako Gobernuak euskaltegiko ikasleei bideratutako diru laguntza orain hiru urte, baina iaz 9.000 eurora jaitsi zuten kopuru hori. Euskaltegiei bideratutako diru laguntza sail beretik ematen zitzaien dirua ikasleei, gainera, eta, beraz, euskaltegien kaltean zen ikasleen alde zena, nolabait ere. Aurten, baina, ez da halakorik izango. Ikasleei ematekoa ziren diru laguntzak kendu egin ditu Nafarroako Gobernuak, eta euskaltegiek jasoko dute aurten iaz haientzako izan zena.

«Gobernuari egin genizkion bi eskaeretatik bi, behintzat, bete dira aurten», azaltzen du Helios Del Campo Nafarroako AEKko koordinatzaileak. «Bestela ere diru sail txikia dugu euskaltegiok, eta ikasleentzako diru hori euskaltegien sailetik ez kentzea *lortu* da aurten. Bestalde, beka hauekin egiten ari ziren itxurakeria kanpaina amaitzea ere *lortu* da. Tira, agian, lortu esatea gehiegi izango da, eta horren ordez, aurten hartu dituzten erabakiekin hori *gertatzen* dela da esan behar genukeena».


Alfredo Chourraut Euskarabidearen eskutitza eta hiru eurorekin. IÑIGO URIZ / ARGAZKI PRESS

### Sail propioa helburu

Ikasleentzako bekena ideia ona dela dio Del Campok. Bai berez, behintzat, baina gaizki kudeatu dutela. «Gure aldarrikapenetako bat hori da: ikasleak laguntzak jasotzea. Oso ideia ona da jatorrian, baina itxurakeria hutsean gelditu da, azkenean, Nafarroan». «Ongi hornitutako diru sail propioa». Hori lortzea da helburua Del Camporen hitzetan: «Hori da ideala, eta hori da zenbait Udalek darabilten irizpidea ere, baina urrun daude eskariok egun, Nafarroako Gobernuak eskaintzen duenetik».

Nork bere poltsikotik ordaindu beharko dituzte, beraz, aurten, Nafarroan euskaltegietako ikasleek beren ikastaroak. Bai, behintzat, Udalen laguntzarik izan ezean. Iaz aritu ziren gisan, egia esan, zail baita iazko diru laguntzei diru laguntza deitzea ere. «Lotsagarria izan zen», Chourrauten hitzetan. «Halere, noski, hor jarraituko dugu», dio, «euskarak trukean asko ematen duelako, laguntza horiekin ematen zena baino askoz ere gehiago, bai, bistan denez».

Asteartea
2010eko apirilaren 13a
berria



## Maratila

Ane Muñoz

## Txistu eta txalo artean

*Egunkariaren auzi* luze bidegabean arrazoirik gabe epaitutakoak, lankideak, eta legez kanpoko itxieraren aurka gurea defendatuz kalera irten ziren euskal herritar guztiak zoriondu nahi ditut gaur. Bazen-eta garaia tribunaletan onartzea guk genekiena, hau da, gurea euskarazko prentsa garbia dela, gure kultura zaindu eta berau normal bizi ahal izateko nahitaezko instrumentua, besterik ez.

Ez dut inoiz ahaztuko *Egunkaria* itxi eta aste betera Medina del Campoko jaialdian bizi izandako esperientzia gazigeza. Neuk zuzendutako *Basurdea* laburrari Gidoi Onenaren saria eman zioten berton. Imajinatu, *Fatxadolideko* hiri espainoletan espainolenean, Alacanteko beste gidoigilea eta biok, saria jasotzera igo behar.

Espainia sakonean euskarazko lan bat inolako aurreiritzirik gabe baloratu izanagatik epaimahaikoak eskertu nituenean, ai ama, aretoa mutu. Segundo tirabiratsu eta luze batzuen ondoren, lagunak mikroa kendu zidan, eta, erdi hunkituta erdi haserre, *Egunkaria*-ren itxierarekin adierazpen askatasunari emandako zaplastekoa salatu zuen. Hura entzunda, ikusle batzuk txistuka hasi ziren, «*fuera, buuu*...». Ignoranteak! Uf, a ze une tristea. Nire dardar eta estutasunaz jabeturik, lagunak besotik hartu ninduen, eta mikroa tinko eutsiz, «horregatik, sari hau *Egunkaria*-ko langileei eskaini nahi diegu» esan eta txalo parea bota zuen, berak bakarrik, oholtza erdian. Nik, berriz, nahikoa lan esku izerditu hartan nuen trofeo horteroa ez zedin irristatu. Zorionez, ikusleen artetik bospasei ausart zutitu eta txaloka hasi ziren, txistuen hots mingarria zerbait estaliz.